Kontseiluaren zuzendaritza eta euskararen 2000. urteko aurrekontuak

ARGIA

Euskal Herriko Astekaria

Eskubide politikoen alde

EUSKAL PRESOAK GOSE

Joseba Permach

"Legebiltzar nazionala eratu behar dugu"

DISKETXEA

Eresargi Txiki abesbatza
IZ-514-KD

Asgarth
Jainkoen egoitza
IZ-523-KD

European Youthchoir
IZ-512-KD

Jabier Muguruza
JA JA
IZ-319-KD



txirri, mirri eta txiribiton eta
Euskadiko Orkestra Sinfonikoa
IZ-520-KD

Suan Blai
IZ-513-KD

Errenteria Musikal eta
Ereintza Elkartea
Olentzero
IZ-515-KD

Kontrairo
Bazen garaia
IZ-516-KD

20009 DONOSTIA • Tel.: 943 21 90 63 • Faxa: 943 21 93 22 • e-posta: ikuskin@euskalnet.net

1.742. ZENBAKIA - 1999KO ABENDUAK 19

Argazkia: Alberto Elosegi
Diseinua: Aitzol Goikoetxea

■ Joseba Permach: «Legebiltzar nazionala eratu behar dugu» 9

■ Partehartze politikoa gose bilakatzen denean 12

■ Fermin Iraolagoitia: «Zeuden sei liburuak irakurtzen genituen lehen» 27

■ Kontseiluko zuzendaritza eta 2000.eko aurrekontuak 40

ORRIZ ORRI

Gora Pro Nobis. *Asisko Urmeneta* 4
Irakurleak mintzo 5

POLITIKA

Euskal Politikaren Termometroa 6
Elkarrizketa: Joseba Permach.
Xabier Letona 9

EKONOMIA

LAB: hazten jarraitzen duen sindikatu gaztea.
Daniel Udalaitz 16

EUSKARA

Euskalduntzea berrikuntza garaian.
Amaia Olano 20

GIZARTEA

Muxarraren negu loa.
Ainhoa Oihartzabal 24
Elkarrizketa: Fermin Iraolagoitia.
Urtzi Urrutikoetxea 27

KULTURA

Euskal Kulturaren Ezpalak 32
Erronka artistikoa upel artean.
A.M.S 35
«Gure Mendea»: Lasarte-Oria 1990: Lizardiren ametsa, bigarrenez. *Iñigo Aranbarri* 38
Elkarrizketa: Xabier Mendiguren.
Pello Zubiria 40

ASTIA HARTUTA

Argitalpenak 44
Agenda 47
Irrati-Telebista. *Beñat Doxandabaratz* 48
Bizia 51
Ihesi 53
Denborapasak 56

IRITZIAK

Politika: *Iñaki Esnaola* 8
Kultura: *Hasier Etxeberria* 34
Azkena: *Jose Inazio Ansorena* 58

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura eta Euskara Departamendua

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora:

fundazioa
fundación

ETA BAI !!!
ONTTO AROA
DUTE
UDAZKENEAN
LURREAN !!
SS · 2000 ·
AESICSKO + XAMAR

ARGIA
Euskal Herriko Astekaria

JABEA: KOMUNIKAZIO BIZIAGOA, S.A.L.
ZUZENDARIA: Pello Zubiria.
Kontseilu Editorialeko Arduraduna: Baleren Bakaikoa.
Erredakzioa: Nagore Irazustabarrena, Onintza Irureta, Xabier Letona, Eriz Zapirain.
Maketazioa: Berdaitz Goia.
Grafismoa: Aitzol Goikoetxea.
Administrazioa: Marijo Aierza.
Harpidetzak: Olatz Korta, Edurne Urruzmendi.
Hedapena: Ixabel Bereziartua.
Publizitatea: Iñigo Txintxurreta, Aloña Soraluze, Bego Zuza.
Argazkiak: Alberto Elosegi.

HELBIDEAK
GIPUZKOA: Zirkuitu ibilbidea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel.: 943 37 15 45.
Faxak: 943 37 34 03 (erredakzioa)/ 943 36 10 48 (komertziala).
IPARRALDEA: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 47 60 00.
Faxa: 559 47 60 01.
NAFARROA: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea.
Tel.: 948 22 22 85.
POSTA ELEKTRONIKOA:
Erredakzioa: kazeta@argia.com
Komertziala: komertzial@argia.com
WEB ORRIALDEA
www.argia.com
LEGE GORDAILUA: NA 80-1963.
ISSN: 0213-909X.
BATZORDE PAREKIDEA: 72562 E.

INPRIMATEGIA: Antza, S.A.L.
INFORMATIKA: A.S.P., S.A.L.

Harpidetza sariak:
Hego Euskal Herria..15.600 pta./93,76 euro
Ipar Euskal Herrian.....746 lib./113,73 euro
Espainia.....15.600 pta./93,76 euro
Beste atzerriak....20.100 pta./120,8 euro
Airez.....31.450 pta./189,02 euro

KOMUNIKAZIO BIZIAGOA, S.A.L.
Ametzagaiña Taldeko partaidea da

Gipuzkoako Abokatuen Elkargoaren frakdun kobratzailearen lan iluna (I)

Herritarrek aintzinatutako jarrera interesgarria sortu zen duela gutxi epaitegietan. Ahozko epaiketara joan behar eta abokatu euskaldunaren bitartez, euskaraz epaitua izateko eskubidea mugaraino eramateko aldarrikapena planteatu zen. Hau da, inolako itzulpenik behar ez duen epaile edo magistratua da eskatu dena. Hots, epaile euskalduna.

Behin eskari hori eginda, epaile batzuk emandako erantzuna, (batzuk hau azpimarratu nahi da, beste epaile batzuk ostean aipatuko diren neurriak ez dituzte eta hartu, oraino) hauxe: Ahozko epaiketak bertan behera utzi, unean uneko abokatua uko egindakotzat (errenuntziatutzat) hartu, herritarrak beste abokatu bat («legedia onartuko duena», «itzultzailea onartuko duena») hautatzera derrigortu, eta uko egindako abokatuari zehapen espedientea ireki, diru isunak luzatuz. (Milioi bat pezeta, handiena, 50.000 pezeta, txikiena, tartekoak besteak: 300.000 pezeta, 100.000 pezeta).

Hau da, laburbilduz, orain artean euskara hizkuntza ofizial eta propio den lurraldeotan jarduten duten justizia banatzaileek erabaki dutena. Eta horretan darraite. Gipuzkoan, oraino, bi milioi pezetatik gorako isunak ezarri dituzte orora, bederatzi abokatuoi.

Eta epaile horien jarrera tamalgarriaren garrantzia azpimarratu nahi bada ere, honako lerrook, batik bat, isun espediente hauetan Gipuzkoako Abokatuen Elkargoaren Gobernu Batzarrak izan duen jarrera aztertzeko helburua dute. Goazen bada, horretara.

Isundutako abokatuetako batzuk, Elkargoari babesa eskatu zioten idatziz, ulertzen bait zuten planteatzen zen arazoaren aurrean, abokatuak (eta finean, herritarrak) eskatzen ari ziren planteamenduaren alde agertu behar zuela Elkargoak).

Erantzuna, babesa ez eskeintzea izan da. Erantzuna, Gipuzkoako Entzutegi Probintzialaren aurrean ospatu zen ahozko epaiketa batera, Batzarkide guztiak togaz jantzia agertzea izan da, akusatuen borondatearen aurkako ofiziozko euskarako txandako bi abokatu inposatu ostean, bi hauei itzulpena onartzea derrigortuz eta sekula egon ez den presentzia «insolita» horrekin magistratuei «zuekin gaude» keinu mutu bat eginez.

Erantzuna ez da hor amaitzen. Epaileek espedientatutako abokatuei ezarritako isuna kobratzeko lana ere egin du eta horretan darrai Elkargoak. Abokatuek Ofizioko txandatik bere zerbitzuen ordainetan kobratzeko duten zenbatekotik, Elkargoak erretentzioa egiten du, diru hau epaitegira eraman eta isuna estaltzeko. Alegia, epaile espedientatzaileen frakdun kobratzailearen lana egiten dihardu «gure» Elkargoak, abokatuak bere lanarekin irabazi duen diru bat bahituz.

LUIX BARINAGARREMENTERIA OLAIZOLA

Hiruko Txikian

HURBILEKO URRUNETIK

Durango. Etxeko hedabideen hurbila izan dut berriemale. Gure kultur azoka nazionala ekarri didate bertara bertaratzezinak ongieza ekar ez diezadan. Eta eskerrak eman behar, katalogoa behintzat bizi-bizi jaso ahal izan baitut beren jarduna dela eta. Musikoak, kantariak, kazetariak, idazleak, ekoizleak, argitaratzaileak... Guztiak jomuga beraren morroin. Saldu. Horretan behintzat, denok bat. Eta ez da txikia egin dugun lorpena, edozein parean ezartzen gaituena. Ikaragarri aitzinatu dugu saltze estrategietan, autopromozioaren arloari dagozkienetan alegia. Eta hedabideak erabiltzen ingurukoak adina bagarela erakutsi dugu. Bakoitzaren ekoizpenak iragartze lanetan maisu. Horrela, kazetarien zeregina erraztuz edonorena da edonoren parekoa, eta salmentaren ugaria kalitate. Zenbat eta gehiago saldu —edo iragarri joan dela— bost egun horietan, orduan eta hobeagoa dugu ekoizpena. Ezinbestean erosi behar dena. Domaia, dastatu ezean iragarritakoen generoa jakitea ezinezkoa dugula, kazetariak publizitatearen zati baitira. Inguruko naziotan bezalaxe. Normalizatzen ari ●

◆ **JOXE MARI OSTOLAZA**

TERMO

TXANPONA

TELEFONICAREN PRIBILEGIOAK

Oharkabean igaro da Estatuak Telefonicari plantila murrizteko ematen dizkion pribilegioei buruzko eskandaluzko albistea. Madrilgo komunikabide batek argitaratu zuen, baina euskal komunikabide batek ere ez du gero albistea jaso. 10.849 lanposturen desagerpenak, (plantilaren % 21, 1999-2000 artean), konpainiarentzat 150.000 milioi pezetako (6.000 milioi libera) aurrezpena esan nahiko du. Estatuak Telefonicaren enplegu erregulazio planagatik 185.150 milioi pezeta ordainduko ditu 13 urtetan. Hau da, Gizarte Segurantzari eta INEMari kalte egingo die, langile erregularizatuen diru sarrera murritzagoengatik eta langabezi kostuengatik. Espainiako Gobernuak ontzat eman zituen plan horiek; konexio abonuak eta hiri deiak % 35 baino gehiago igo nahi dituen enpresa batentzat. Bitartean, Gobernuak pentsio eta langabezi dirulaguntza miserableak mantentzen jarraitzen du eta euren langabezi laguntza agortu zuten hamarnaka mila pertsona inongo laguntzarik gabe uzten jarraitzen du. Horrela funtzionatzen du eskuinekoa eta kapitalista den gobernu batek. Koherentea da, nola ez!, bere interesekin.

◆ DANIEL UDALAITZ

PRESOEN MUGAK

HIRU presok —Mikel Zubimendik, Sotero Etxandik eta Josetxo Arizkurenek— 40 egunetik gorako gose greban ari dira jadanik, beren bizitza egoera oso arriskutsuan jarriz. Erabaki pertsonal hausnartuak eraman ditu egoera horretara eta, alde horretatik, jarraitzeari buruzko azken hitza beraiena da. Edonola ere, une batetik aurrera estatuek beren gorputzekin jolas krudelari ekingo diotela ere badakite. Hori da une batetik aurrera saihestu behar dena. Aski egin dute beren eskubideen alde, aski Euskal Herriak bizi duen egoeran beren aletxoa jartzeko; gehiegi egin dute. Une bakoitzean, bakoitzak bere neurrian egin behar du ekarpena eta presoak beren ahalmenetik harantzagokoa egiten ari dira.

PROPOSAMEN ESTRATEGIKOA

PARLAMENTU nazionalaren proposamena —honek eskatzen duen guztiarekin— egin berri du Euskal Herritarrok indar politikoak. Ezker abertzalearen epe ertainerako estrategiaren ardatzetakoa dirudi, beste ardatz bat, ezinbestean, Euskal Herriaren egungo lurralde banaketari lotua baitago, eguneroko jardunaren bidez. Alderdi abertzaleek erronkari indarrez helduz gero, ETAk bere jardun armatua alboratuko luke, ETAk berak su-etenaren iragarpenean adierazi zuen legez. Erabaki horretan islatzen da proposamenak ezker abertzalerako izan dezakeen epe ertainerako garrantzia. Politikak fikzioa dirudi, baina ondo aztertu beharko da, besteak beste, munduko estatu gabeko beste herri batzuek ere antzerako bideei ekin izan dietelako.

LANDER GARRO

■HBk bere proposamena luzatu du jada.

EUROPAKO BULEGO BAT JAKAN

MIARRITZEN Interreg III programa izeneko solasaldiak burutu berri dira. Solasaldiotan Pirinio bi aldeetara dauden eskualde edo erregioen ordezkariak mintzatu dira. Lankidetza elkarte hau zazpi elkartez osatua da: Akitania, Languedoc-Rousello, Midi Pyrenees, EAE, Nafarroa, Aragoi eta Katalunia. Mugaz gainerako herremanak gauzatu aldera bulego bat irekitzeko asmoa agertu dute eskualde hauetako ordezkariek. Kudeaketa eta kutxa bakarra izanen lituzkeen bulego honen egiturak antolatzeko europako laguntza izatea baitezpadakotzat jotzen dute ordezkariek.

BAHEA

● Mitxel Sarasketa, 20 urte espetxean egin duen preso ohia: «Presoak militante politikoak dira gehienak ETAkoak eta erakunde batek ezin du aurrera egin bere militanteei bizkarra emanez areago kartzelan badira, haien erreakzioa eragin gabe. Orain arte presoek beti erakutsi digute bat direla ETAk hartutako erabakiekin».

●Eneko Landaburu, Europako Batzordeko eskualde politikarako zuzendaria: «Euskal Herrian, batzuk Madrilera eta beste batzuk Parisera begiratzera behartu gintuzten. Indarre

E T R O A

BIDEAREN AMAIERA

Hauteskundeen emaitzekin eskuetan hitzartu zuten akordioa EAJ eta PPk. Espainiako hauteskundeak gainean direla apurtu ditu EAJk PPrekiko harremanak. Aznarrek EAJ eta abertzaleei buruz hilaren hasieran egindako adierazpen gogorrek eragin dute jeltzaleen erabakia. Hauteskunde garaian, ez datorkio gaizki ez batari eta ez besteari apurketarena. Dirudienez, ez da kasualitatea akordio desberdinak hauteskunde atarian apurtzea. Hala gertatu zen PSE-EE eta Jaurlaritzarekin iaz, eta berdin PSN eta UPNren arteko akordioarekin. Baina EAJ eta PPrena arazo sakonagoa da, eta Euskal Herriko egoera politikoarekin erabat lotua. Gertakizunen abiada ikusita, lehenxeago edo geroxeago gertatu beharrekoa zen.

FORU HOBEKUNTZAREN ERREFORMA

MADRILEK Foruen Hobekuntzaren erreforma txiki bat onartu du azkenean: aurrerantzean, besteak beste, Gobernuko Lehendakaria hautatzeko prozedura automatikoa ezabatu egingo da. Ondo etorri zaie PSN eta UPNri lege hori, horren bidez beren hautagaiek lau alditan —seitik— Legebiltzarreko gehiengorik gabe Lehendakari atera dira eta. PPren Gobernuak, 1841eko «Ley paccionada» delakoaren izpiritua ondo ulertu duela erakusten du berriz ere.

EZKER BATUAREN ZAILTASUNAK

EZKER Batua deabruaren parera eraman dute beste alderdi estatalistek. Ez diote Lizarra-Garazikoa barkatu. Ezker txarreko bidea egin dute hilabete hauotan eta erabaki gaitzak hartu beharrean dira. Politikan, zoritxarrez, ez da dena koherentzia izaten. Batzuetan, giroa eta testuingurua koherentzia bezain eraginkorrak dira. Lintxamendu giroa eta hauteskundeen gertutasunak, Espainiako IUren jarrera ulertzera eraman gaitzake, baina ez dirudi oso jarrera koherentea, ez IU-EBrekikoa, ezta bizi dugun gatazkari begira ere. Lehengo metodologia ona —Lizarra-Garazikoa— orain ere hala beharko luke.

■Ezker Batua une gaitza bizitzen ari da.

batzuetan, eta fineziaz bestetan, elkarren kontra ezarri gintuzten».

● Jose Antonio Rubalkaba jeltzalea Mayor Orejari Giza Eskubideen Batzordetik egindako bilera deialdiari buruz: «PPk hemen zer egin duen ikusita, oso argi dago Mayor Orejaren erantzuna zein izango den: ez digu kasurik egingo eta bilera egin ere ez da egingo agian».

● Jose Antonio Urbiola jeltzalea: «PPrekiko harremanak aspaldi ziren ia ezinezkoak».

● Joaquin Almunia buruzagi sozialista: «Nazionalista ez garenok aurkari bat daukagu, nazionalismoa. Baina gure etsaia ez da EAJ, gure etsaia ETA da».



PABLO SANCHEZ

■Alain Lamassoure.

IZPIAK

Alain Lamassoure (BAM Aglomerazioko burua) mugaz gaineko lankidetzari buruz mintzatu zen Miarritzen. Angeluko auzapezaren iritziz, Espainia eta Frantziaren arteko mugalde honetan «bake zibilik» ez izanda ere, Lapurdi eta Gipuzkoako hiriburuen arteko elkarkidetzan dauden zailtasunak gaindigarriak dira.

Jon Idigorasen «El hijo de Juanita Gerrikagoitia» liburu biografikoa Durangoko azokan gehien saldutako liburuen artean dago.

Jaime Ignacio Del Burgo UPNko buruzagiak «Navarra es libertad» liburua kaleratu berri du. Liburuaren hitzaurrea Jaime Mayor Oreja barne ministroak egindakoa da.

JOXE LACALLE

■J.I. del Burgo.

Lizarra-Garazi, ontzi hauskorra

Abenduaren 6an, Aznar jaunak parlamentu espainiarrean denok ezagutzen ditugun adierazpenak egin zituenean, ia denok aitortzen dugun eta konpondu gabe dagoen arazo politikoa (ETAren agiria aitzakiatzat hartuta, hori bai) nazionalismo espainiarrak kokatzen duen puntuan ipini zuen erdiz erdi: euskaldunon autodeteminazio eskubidearen aurrean parlamentu espainiarra begi izango da (gaur hala da gutxienez). Brunete dibisio akorazatua eta Konstituzio espainiarra da Karta horretako 8-1 artikuluan ipinita dagoen mehatxuaren betetzea.

HORI esanik (euskaldunok intuitzen genuen eta aspalditik geunden horren jakinaren gainean, baina orain Gobernu espainiarreko presidenteak berak argitu digu), galdera zera da: zergatik iragarri du ETAk jarduera armatura itzultzeko posibilitatea, eta ikuspegi horretatik zergatik ipini du kili-kolo abertzaleen alorrean orain arte eraikitakoa? Hona nire ustez zergatik:

a) Proiektua ez dagoelako, ezta urrutitik ere, sendotua. Behin baino gehiagotan esan dut Lizarra-Garazi oso meheak diren eta gainera elkarri kolatuta dauden kristalez egindako jarroi bat dela, eta egun batez hautsi zitekeela.

b) Lizarra-Garazi bizi den denboran ez dugu ikusi (aldarrikapen orokorrak alde batera utzita) aurrera eginaraziko zigun proiektu politiko zehatz eta erreal bat.

c) Aurrera ez egiteko arrazoien sustraian baldin bazegoen batetik erakunde armatuaren fikzio-lilurazko planteamenduen (Euskal Herria osatzen duten herrialde guztien autodeterminazioa «herritar bat-boto bat» formula bidez, Estatu mailako 2000. urteko hauteskunde orokorretara ez presentatzea...) eta bestetik EAJ-EAren posibilismoaren arteko distantzian (hauek kezkatuagoak zeudelako ETAk behin betiko armak uzteaz, aurrerapen zehatz eta garbiak ekarriko zituzten eskaintza politikoak egiteaz baino), gaur esan behar da Lizarra-Garaziko ituna osatzen duten indarren artean egin diren ahaleginek ez dituztela distantzia horiek gainditu eta ez dutela lortu elkarrekin bidea egiteko puntu batean elkar aurkitzerik.



ALBERTO ELOSEGI

Iñaki Esnaola
Abokatua

"Hamar egun hauetan aurreko hamalau hilabetetan baino eskaintza politiko askoz zehatzagoak eta urrats gardenagoak eman dira. Ondorioz, alderdi politikoek hausnartu beharko dute beren lozorroaz"

Hortik ikusten dut ETAren agiria ia esklusiboki indar abertzaleei zuzendua. Eta holako zerbait gertatu behar zuen, zeren eta hamar egun hauetan aurreko hamalau hilabeteetan baino eskaintza politiko askoz zehatzagoak eta urrats gardenagoak eman baitira. Ondorioz, alderdi politikoek hausnartu egin beharko dute beren lozorroaz, zergatik behar izan duten holako astindu bat orain egiten duten bezalako era positiboan ekiteko.

Aukera politikoak dauden moduan planteatuta eta abertzaleek datozen urteetako borroka politikoan nondik joko duten zehaztea falta delarik, bi fronte irekitzen dira. Batetik, Lizarra-Garaziren proiektu politiko gaurkotu eta erreala zein den definitu eta argitzea, gure gizartean duen pisu politiko eta soziala behingoz ezagutzeko. Bestetik, proiektu hori forma, era eta bide erabat demokratikoetan aurkeztea euskal gizarteari modu zabal batean, eta baita Espainiakoari eta Europakoari ere.

ESPAINIAKOARI, ez PPk eta ez PSOEk sekula ez dezaten ETAren aitzakiarik izan aukera politiko batek dakarren planteamendu erabat politikoari ihes egiteko. Eta Euskal Herrian demokratak ez direla erakusten duen kontraesan larrian erori daitezen. Aukera hori demokratikoki maioritarioa baldin bada (EAEn, Nafarroan edo edonon dela ere) Espainiako Estatuak bere itxura juridiko-politikoa aldatu ahal izan dezan, horretarako bere tresnak kanbiatuz.

Eta Europakoari, talde politiko abertzale guztiek eta Lizarra-Garazi osatzen dutenek estalkirik gabe eta bortxarik gabe adierazi dezaten Euskadin badela gehiengo sozial bat autodeterminatzea eskatzen duena. Edozein delarik ere emaitza. Eta emaitza hori onartua dela eta izango dela batzuen eta besteen aldetik. Europa da horren adibide garbia gaur. Guk ez dugu salbuespen izan behar, eta ezin gara salbuespen izan. Horretan guztian askoz lan gehiago egin behar da. Hau orain arte egin ez bada ziurrenik jarroia meheegia zelako eta gogortu beharra zegoelako izan da.

Agian holako zerbait bilatzen zuen ETAk bere astinduarekin. Hala ere, badakigu epe laburrean errentagarriak diruditen astinduek, azkenean proiektu politiko bat desestabilizatzen bukatzen dutela ●

JOSEBA PERMACH

Su-etenaren apurketa, abertzaleen arteko elkarlana eta HBren proposamen politikoa izan ditugu mintzagai nagusiak. Marko juridiko-politiko honetatik beste batera iragateko ezinbestekotzat jotzen du parlamentu nazional konstituiente bat eratzea.

"LEGEBILTZAR NAZIONALA ERATU BEHAR DUGU"

ETAk su-etena bertan behera uzten duela iragarri ondoren, 1998ko irailean hasitako prozesu politikoa berrabiaraztea lortu dela esan liteke?

Akaso goiz da hori esateko. Azken egunetan, indefinizioan egon den EAJk adierazpen garrantzitsua plazaratu du autodeterminazioa eta lurraldetasunean oinarritutako marko berriaren alde. Hitzetatik ekintzetara pasatzea falta da eta hurrengo hilabeteetan lau alderdi abertzaleek, marko zaharretik berrira pasatzeko proposamen zehatza aurkeztu beharko dugu.

■ Astebete eskasean gertatu da hori guztia. Espero zenuten holako zerbait ala ETAren iragarpenaren ongorengo aste hartan asko egin zen?

Beste hiru alderdiei, EAJ, EA eta ABri jakinarazi genien prozesuaren definizio beharraz eta gero poztu egin gaitu EAJk horren denbora laburrean bere proposamena plazaratzeak. Guk gurea plazaratu berri dugu eta EA eta ABrenak ere entzun nahiko genituzke. Baina EAJ joku desberdinetara ere aritu zen aste hartan: abertzaleei dei hori egiten zien bitartean, Aznar eta Almuniarekin biltzen ari zen Ibarretxe. Aznarren azken adierazpenak ikusita, Paris eta Madrildik ez zaigula ezer eskainiko konturatzeko ordua iritsi da.

■ Nafarroako EHko hautetsi talde batek ETAri su-etena ez dezala apurtu eskatu dio agiri baten bidez. Nola hartu duzue?

ALBERTO ELOSEGI

■ «EAJk hogei urtetako dinamika gainditu behar du».

Lasaitasunarekin. Badakigu ezker abertzalean borroka armatuari buruzko iritzi desberdinak daudela. Beraz, hamalau hilabetetako su-etenaren ondoren horrelako gauzak gertatzea 'normala' da. Iritziak, noski, zilegi dira, baina ez zaigu zilegi iruditzen nola jokatu duten. Ezker abertzalean badago gauza desberdinei buruz gure artean eztabaidatzeko ohitura ona eta Mahai Nazionalak prentsaren bitartez entzun zuen lehenbiziz Patxi Zabaletak eta Milagros Rubiok egindako adierazpen hori. Guretzat askoz komenigarriagoa litzateke gure baitan aztertzea eta eztabaidatzea.

■ Zehaztu daiteke gehiago azken hilabeteetan aipatu duzuen epelkeria hori zertan datzan?

Guk badakigu termino horiek erabiltzean euskal herritar bati baino gehiagori zaila izango zaiola hainbat gauza ulertzea, guk benetan arduraz jokatzen dugulako eta gure arteko hainbat harremanen berri ematen ez dugulako. Ekaineko hauteskundeen ondoren, EAJk espero zituen emaitzak lortu ez zituelako, indar abertzaleek eraso ikaragarria jasan genuen. Ekainean bertan, proposamen batzuk luzatu genizkien EAJ eta EAri: bat, akordio instituzionala lotzea diputazio eta udaletxeetan, instituzio horiek prozesuaren zerbitzura jartzeko; bi, akordio politiko bat sinatzea, non egungo markotik beste batera iragan beharra azalduko zen, eta hau bideratzeko instituzio nazionalak abian jartzea; hiru, Udalbitza ahalik eta azkarren eratzea. Proposamenek ezezko biribila jaso zuten, bereziki EAJgatik. Hainbat udaletxetan akordioak itxi dira, baina diputazioetan ez dago inongo akordiorik oraindik eta proposatutako akordio politikoa ez da oraindik sinatu. Udalbiltza ere beranduago jarri zen martxan. Beraz, ez Udalbiltzak eta ez Lizarra-Garaziko iraileko bileran onartutako plangintzak, ez dute behar bezalako garapena izan.

■ Bat-batean ETAk bere iragarpena egiten du eta, astebetean, magiaz edo, aurrera egitea lortzen duzuela ematen du. Aurreko lau hilabeteetan ez zen posible hori egitea?

Lau hilabete horietan gure proposamenak atzeratu edo atzera bota dituztenei egin beharko litzaieke galdera. EAJ konturatu da azken hilabeteetan izan duen jarrera gainditu behar zuela eta pauso hori ematen hasia da.

■ Aurrekontuak gainean dira. Akordio instituzionalari dagokionez, lotu al da zerbait aurrera egiteko?

Aurretik ere garbi geratu da guk badugula borondatea instituzio desberdinetako aurrekontuei buruz hitz egiteko, eta aurrekontu hauek nazio eraikuntza eta eraldaketa sozialaren zerbitzura jartzeko. Baina zailtasun handiak somatu ditugu diputazioetako EAJko ordezkarien aldetik akordioetara iristeko. Aurrekontu batean ados jarriko bagina, horrek esan nahiko luke aukerak badirela gu geu diputazio gobernuetan sartzeko edo gurekin, Gasteizen bezala, batzar nagusietan akordio batera iristeko. Gasteizko parlamentuan, hurrengo egunetan akordio batera iristeko aukera egongo da seguruenik. Bestetik, beti esan zaigu instituzioetan parte hartu behar genuela eta orain diputazioetako gobernuetan parte hartzeko prest garenean, ez dute nahi. Ez dugu ulertzen.

■ Berriz ere blindaje garaietara itzultzen garela dirudi. Lizarra-Garaziko Akordioa, Jaurlaritza sostengatzen duena, Udalbitza... nahiko blindatuta al daude?

ETAk horrela iragarri du eta seguruenik garai gogorrak biziko ditugu. Honen aurrean, alderdi politiko guztioi dagokigu maila handiko konpromiso eta arduraz aritzea. Gatazka konpontzeko irtenbide demokratikoa jartzen duen tresna da Lizarra-Garazi. ETA gogor ari zenean jarri genuen abian —Irlandako Foroarekin— eta akordioa oraindik su-etenik ez zegoela itxi zen. Orduan posible izan zena, bigarren batean ere izan behar du. Herrialde desberdinak eta udalerriak ordezkatuko dituen instituzio bat bultzatu nahi dugu Udalbiltzarekin eta horrek ez du zerikusirik ETAk une batean egin dezakeen eraso batekin. Baina badakigu alderdi batzuk ETAren jarduna gure arteko harremana galarazteko erabiliko dutela.

■ Horregatik galdetzen dizut ea blindajea sendo ikusten duzun.

EAJ, EA eta ABren zuzendaritza politikoekin harreman sakona izan dugu azken hilabeteetan eta konfiantza maila nahiko handia lortu dugu. Horrek ziurtatzen du prozesu honekiko konpromezua bere horretan mantenduko dela. Hori sinetsi nahi dut.

■ Udalbiltza espero zena ematen ari da eduki eta erritmoei dagokienez?

Aurrerantzean orain espero duguna baino askoz gehiago emango du. Instituzio berria da eta pixkanaka martxan jarri behar dena. Goiz da bere emaitzak aztertzeko. Oraingoz diagnostikoa egitea da garrantzitsuena, eta plangintza zehazten denean, baliabide humano eta tekniko egokiak baldin badira, datorren urtean oso gauza garrantzitsuak egiteko aukera egongo da.

■ Su-etenaren krisi honetan eraikuntza nazionalarena kontzeptu klabea izan da, ETAren agirietan argi ikusten denez. Nola lortu eraikuntza nazionalari buruzko gutxieneko adostasun bat, erritmoak, edukiak...?

Lurraldetasuna eta gure burua determinatzeko eskubidea oinarrizkoak dira eta alderdi abertzaleok bat egiten dugu gutxiengo horretan. Hori lortzeko bideetan daude gure arteko desberdintasunak. Kontuan hartu behar da duela hogei urte EAJk Gasteizko instituzioen kudeaketaren aldeko apustu egin zuela, eta ezker abertzalearentzat hori akats bat izan dela, lurraldetasunari kalte handia egin diolako. Beraiek hogei urtetako kudeaketa eta dinamikarekin daude une honetan eta hori gainditzea zaila da. Dena den, EAJk apustuari helduko diolakoan gaude.

■ Zailtasunak agerikoak dira. Ez al litzateke errazagoa prozesu hori su-etenean egitea jarduera armatuan baino?

Irailetik hona egin ditugun hainbat eta hainbat bileratan horren aldeko ahalegina egin dugu. Ez dugu lortu denon artean autodeterminazioa eta lurraldetasunean oinarritutako estrategia eta konpromisorik gauzatzea. ETAk, bestalde, udan eskaintza zehatza egin zien EAJ eta EAri prozesua bururaino eramateko konpromisioa luzatuz, eta horrela berak ere armez egindako defentsa behin-betiko alboratzeko. Ez zuten erantzunik eman eta ondoren ere ahalegin ugari egin ditugu guk. Erabaki hau ETArena da eta gu, orain arte bezala, saiatuko gara akordio hori bilatzen.

■ Proposamenak zehaztu behar direla diozue. Zein zehaztapen eskatzen diozue EAJri bere proposamena dela eta?

Batetik, lurraldetasuna eta autodeterminazioan oinarritutako marko baten aldeko apustua egitea. Bestetik, lurraldetasunaren aldeko apustu egiten bada, Estatu espainiarrak eta frantsesak azken 200 urteetan Euskal Herrian eragindako neurriak ez onartzea. Iparraldeko instituzio eza, eta Hegoaldeko bi administrazioak inposaketatik etorri zaizkigu eta hortik ezin gaitezke beste bide batera abiatu. Nafar gizarteari ez zaio behin ere eskatu Foru Hobekuntzari buruzko iritzia eta beste hiru herrialdeei aukera bakarra eman zitzaien. Hori kontuan hartu behar da, errealitatetik kanpo ezin delako aritu, baina azken 200 urteetan bi estatuek bultzatu dituzten asimilazio politikak baztertu egin behar ditugu.

■ Baina nola zehazten da hori?

Lurraldetasunarai dagokionez, euskaldunok badaukagu quebecdarrek, eskoziarrek, eslovakoek edo txekiarrek izan ez duten arazo bat: gure lurraldetasuna errespetatzen duen parlamentu bat ez dugula, parlamentu hori marko juridiko-politiko berri bat planteatzen duena izan dadin. Beraz, marko juridiko-politi-

"Azken 200 urteetan Espainiak eta Frantziak bultzatutako asimilazio politikak baztertu behar ditugu"

SERIOTASUNAREN IRUDI

Politikari-korrikalaria da 30 urtetako donostiar hau. Alaba izan berri du eta Zarautzen bizi da. Mahai Nazionala lehenbizikoz espetxeratu zutenean izendatu zuten HBko bozeramaile. "Udaletxekoetara bai baina tankera honetako elkarrizketetara" ez zegoela ohitua zioen orduan. Makinatxo bat euri egin du harrezkero. Donostiako zinegotzi kargua utzi eta Mahai Nazionaleko koordinazioan arituko da burubelarri.

koaren inguruko eztabaida burutu behar badugu, bi aukera ditugu: egungo markoa kontuan hartuz, eta horrek esan nahi du hiru herrialdeak ordezkatuko dituen instituzio bat dugula, Nafarroak beste bat duela eta Iparraldean ez dagoela instituziorik. Beraz, marko horretatik ezin da abiatu prozesua. Bada bigarren aukera bat, askoz ere koherenteagoa: Euskal Herriko historian lehenbiziz legebiltzar konstituiente bat eratzea. Ez dugu esaten egungo instituzioak indargabetu eta ordezkatuko lituztekeenik, baina egungo markotik berrira pasatzeko gidaritza eramango luke. Legebiltzarra hautatzeko, beste edozein lekutan bezala, hauteskundeak egitea da logikoena. Baina eztabaida garrantzitsuena ez da hauteskunde horiek une honetan egitea posible den edo ez; garrantzitsuena da, prozesu konstituiente hau bururaino eraman behar duen erakundeak nazionala behar duela.

■ «Alderdi batzuk ETAren jarduna gure arteko harremanaren aurka erabiliko dute».

■ ETAk egindako proposamenaren zehaztapena litzateke, beraz.

Kontua ez da bakarrik ETAk proposamen hau aurrera eramanez gero defentsa armatua alboratzeko prest dagoela; hori berri ona da eta kontuan hartzekoa, baina gure arazorik nagusiena euskaldunok ordezkatzeko parlamentu eza da eta, beraz, goreneko instituzio hori martxan jarri behar da prozesu hau gidatu dezan. Konpara daiteke lehen aipatutako adibideekin, edo kurduen parlamentuarekin edo palestinaren asanblearekin. Gero, jakina, abertzale ez diren beste alderdi batzuk ere badira hemen eta horiekin ere negoziatu beharko litzateke, Paris eta Madrilekin bezala.

■ Herritarrek legitimatzen dituzte parlamentuak. Euskal Herriko lurralde batzuetan legitimazio txikia izan dezake legebiltzar horrek, adibidez Nafarroan eta Iparraldean.

Irlandan, adibidez, Europako hauteskundeetako parte hartzea % 19koa izan da, eta inork ez die ukatu legitimotasunik. Baionako hauteskundeetan ere parte hartzea oso txikia izan da eta inork ez die legitimitaterik kendu. Guk argi dugu une honetan «euskaldun bat bozka bat» lelopean milaka eta milaka pertsona joan daitekeela horrelako bozketa batera. Beste hausnarketa bat: inork ez du zalantzan jartzen Nafarroan edo Iparraldean, hiztunak gutxi edo asko izan, euskaldunen eskubide linguistikoak errespetatu behar direnik. Euskaldun sentitzen garenon eskubide politikoak, aldiz, ukatu egiten zaizkigu, nahiz eta NBEren karta desberdinetan pertsona bakoitzari bere nazioa hautatzeko eskubide politikoa aitortzen zaion. Badakigu herrialde guztietan ez direla emaitza berdinak lortuko baina eskubideak martxan jarri behar dira. Euskal Herrian izan diren asimilazio politiken ondorioz, badirudi Euskal Herrian dauden errealitateak behin-betikoz onartu behar ditugula. Hau hola balitz, itxaron beharko genuke egun Nafarroako ikastoletan dauden umeek ume gehiago izatera, horrela gehiengoa lortzeko. Hori ezin da horrela izan, guk proposatzen duguna guztiz demokratikoa da eta benetan aurrera eramanez gero, ikusiko da herritarrek zer eratako apustua egiten duten.

■ Aitzindari sinboliko bat, beraz, egun indarrean dauden erakundeekin elkarlanean aritu beharko litzatekeena?

Ez, maila sinbolikoan ez. Egungo sare instituzionalak baditu behar batzuk, eguneroko arazoek erantzunak behar dituztelako. Beste marko bat eraiki arte, arazo horiei egungo markotik erantzun behar zaie, eta gu ere horretan ari gara. Baina horrek ez du kentzen batzar eragile hori, eta ez eremu sinbolikoan, bera izan behar baita benetako liderra; eta egungo instituzioez gain, PPri, PSOEri, UDFri, UPNri edo RPRri bozka ematen dioten herritarren ordezkariekin ere hitz egin behar da.

■ HBk Ibarretxeren bilkuretara dei egin zuen. Keinu horretan ikus al daiteke borroka armatuaren jardunetik modu autonomoago batean jokatzen hasteko aztarnarik.

Ez dugu ukatu zenbait unetan, indar politiko bati ez zegozkion jarrerak edo neurriak hartu ditugula. Dena den, indar politiko bat garen heinean, gure irakurketa propioak egiteko aukera dugu eta joan den astean hori egin genuen. Ezin genien utzi, jarrera saboteatzailea mantendu duten PP eta PSOEri kontzentrazio hori aurpegia garbitzeko erabil zezaten. Prozesu honen alde aritu garen indar politikoek bertan egon behar genuen. Ez gentozen bat goitik behera Ibarretxeren adierazpenarekin, baina ezker abertzaleak bakearen beharraz ere mintzatu behar zuen.

■ Aste hartan, eman al zuen Ibarretxek, zuen ustez, uneak eskatzen zuen maila?

EAJk beti erakusten ditu bi jarrera, orduan ere, abertzaleei deialdi bat egiten zien bitartean, Ibarretxe Madrilen zegoen, eta oraindik ere ez dio azaldu euskal gizarteari Aznar edo Almuniarekin zeri buruz hitz egin zuen. Ibarretxek amaitu beharko luke askotan erakusten duen anbiguotasun horrekin eta datozen hilabeteetan jarrera gardenagoak erakustea gustatuko litzaiguke ●

◆ XABIER LETONA

"Legebiltzarrak ez lituzke egungo instituzioak ordezkatuko baina marko berrirako prozesua gidatu bai"

EUSKAL PRESOAK GOSE GREBAN

Euskal Preso Politikoen Kolektiboak orain dela zazpi aste ekin zion borrokaldi gogor bati. Gose greba mugagabeari hain zuzen ere. Hogei presok abaitu zuten baraualdiari eta hogeik segitzen dute uneon. Hauetatik hiruk 36. eguna gainditua zuten erreportaje hau idazterakoan.

PARTEHARTZE POLITIKOA GOSE BILAKATZEN DENEAN

EUSKAL DUNON EGUNKARIA

■ Batera-k presoen eskubideen aldeko burutiko ekintza bat. 31rako gizartea mobilizatzera deitzen du Euskal Herriko auzo eta herrietan.

Orain dela urte bete udazken itxaropentsu bat bizi izan zen Euskal Herrian. Lizarra-Garazi Adierazpenaren ondotik euskal gatazkaren bi ildo nagusiak birplanteatu ziren. Hots, bake eta normalizazio prozesua eta eraikuntza nazionalaren ildoak. Aldi berean, eta aro berri baten hastearekin batera, euskal preso politikoek normalizazioa eta eraikuntza nazionalaren prozesuan parte hartzeko eskubidea aldarrikatu zuten. Presoen beren prozesua lehenagotik dator, ordea. 1996an, «Euskal presoak Euskal Herrira» lelopeko kanpainari ekin zioten. Are lehenagotik, 1978ko amnistia eman zenetik, gose grebez gainera, itxialdiak, isilaldiak edota plantoak burutu izan dituzte, sakabanatze eta urrutiratzearen aurka eta bizi baldintza duinak exigituz. Urte luze hauetan, Euskal Herriko kartzeletan egoteko duten eskubidea ukatu egin zaie. Gaixorik batzuk, eta beren zigorraren hiru laurdenak beteak dituzte beste askok. Euskal presoek barruan segitzen dute, ordea.

IAZ BAINO OKERRAGO. Iazko abenduan herritarrek presoen alde buruturiko mobilizazioek itxaropen berri bat zabaldu zuten. Herri honek bizi duen aro politiko berria gaiztotuz joan da ordea, eta presoek iniziatiba hartu behar izan dute. Izan ere, iazko mobilizazioen garaian inork gutxik imajinatuko zuen presoek egoera hain larrian segituko zutenik une honetan. Ondo bidez, presoen auzia askozaz aurreratua egotea espero zen euskal gizartean. Euskal gizartea lozorroan geratu bide da. Liza-

rra-Garaziren trenaren lokomotorak bagoi asko zeraman antza, eta ezin izan dio denetatik batera tiratu. Haatik, presoen bagoia da ibilbide honetan presa handiena daukana. Madrilgo Gobernua, horretaz jabeturik, ondotxo arduratu da trenbidea oztopatzeaz. Oztopatu beharrik gabe, presoen bagoia bere esku izan du hasieratik, eta irtengabeko bidean arrestaturik atxikitzen du.

MUGARIK GABEKO BARAULDIA. Euskal Preso Politikoen Kolektiboak azaroaren 1ean ekin zion gose grebari, eta orduz gero hogei preso mantentzen dira jateari muzin eginez. Hasi ziren hogei presoen izenak ezagutzera eman ziren, baita zein kartzeletan ziren adierazi ere. Basauri, Langraiz, Iruñea, Martutenekoak Euskal Herrian. Frantziako estatuan, berriz, La Sante eta Fleury-Merogisekoak. Gose greba abiatzeko helburuak jakinarazi zizkieten Frantzia eta Espainiako gobernuei, baita mintzakidetzako kideen izenak ere. Mintzakideak hamalau dira. Estatu bakoitzean zazpi preso direlarik. Komunikatu luze baten bitartez erabaki latzaren arrazoiak azaldu dizkiote euskal gizarteari, baita borrokaldiaren muga beren ahalmenak baino ez zuela ezarriko adierazi ere. Gose grebaren amaiera honoko eskabideen ondoren letorke: «*Euskal preso guztiak kalean izatea eta euskal nazio eraikuntzan euskal gizarte osoarekin batera parte hartu ahal izatea, beren giza eskubideak errespetatuak izan daitezen batera*».

Euskal presoek 15 kilo galdu dituzte batez beste. Kartzeletako egoera kaskarrak eta hotza dituzte arerio

AZNARREK EZ DU ETSITZEN. Presoek prozesu demokratikoan parte hartzeko legitimotasuna haien «jarduera historikoa»k ematen diela dioten bitartean, Aznarren gobernu espainarrak ez du presoen gaian pauso handirik eman; ETArekin mintzatzea onartu bazuen ere. Egin dituen aldaketa txikiak, bere intereseko estrategia eta taktikaren ondorioz izan dira. Funtsean, Espainako gobernuarentzat —bake eta normalizazio prozesu delakoan— euskal presoak trukeko txanponak dira. PPren estrategiarekin bat datozenentzat presoen eskaera utopikoa da. Ez du lekurik estatu demokratiko batean. PSOEk, berriz, zehazpenak zehazpen, presoen jarrerari garrantzia kentzen dio, eta haien protagonismoa besterik ez dute ikusten ekintza honetan. Jaime Mayor Oreja da inola ere, presoen gaia muturreko egoera bateraino eramateko estrategiaren sustatzaile nagusia. Presoen Kolektiboak bere asmoa azaldu zuenean posizio hau hartu zuen: «*Presoek gose grebari ekiten badiote, medikuen laguntzaz egingo diogu aurre haien osoasunerako kaltegarria izan daitekeen ekintza horri. Ez dugu horregatik espetxe*

Presoen aldeko «sprint»ean parte hartzera deitu dute Batera-koek

Euskal Preso Politikoen Kolektiboak gose grebaren hasiera azaroaren 2an eman zion. 13 egun geroago, Batera izeneko plataforma aurkeztu zen publikoki: batzordea ezagutzera eman, baita dekalogo bat prentsaurrekoan zabaldu ere. Bi bozeramaile dituela —Patxi Bisquert eta Xabier Euskitze—, Joseba Egibar (EAJ), Rafa Larreina (EA), Jone Goirizelaia (EH), Tomas Garcia (IU-EB), Tomas Karrera (Senideak), Juan Mari Olano (AAB), Santi Ugarte (ELA) eta Jesus Mari Gete (LAB) dira batzordea osatzen dutenak.

Hil honen 31n manifestazioak egitea iragarri zuen bere aurkezpen egunean berean Batera plataformak. Anartean, tokian tokiko instituzioen aurrean konzentrazioak burutu izan dira plataformak deituta. Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean burutu zen lehen konzentrazioa. Bilkura isila izan zen. EH, EAJ eta EAko 200 hautetsi bildu ziren —Roman Sudupe ahalduna tarteko zelarik— presoek bizi duten egoera larria salatzeko.

Aznarren gobernuak «bakea presoen truke» negoziazio-eskema delakoari aitzi egitea da plataformaren asmoetako bat, presoen aldeko eskubideak aldarrikatzeaz gainera. «*Presoen gaia behar bezala bideratu edo konpontzeak prozesua sendotzeko balio dezakeela*» adierazi du Baterako Egibar jeltzaleak.

Bizkaia eta Arabako Diputazioek modu berean ekin izan diote Diputazioen aurrean jite bereko agerpenak burutu izan ziren iragan asteotan. Lizarra-Garaziren adierazpenaren baitan biltzen diren sentsibilitate ezberdinak elkar ulertze maila sendo bat erakusten ari dira presoen arazoaren inguruan. Batera plataforma sortu izanak lagundu bide du elkartasun agerpen hau bideratzen.

ETAren azken komunikatua ezagutu ondoren, Batera-koek bere dekalogoan agerturiko konpromisoa berretsi izan dute: «*su-etena hautsi izanak ez du euskal presoen aldeko mobilizazioak bertan behera utziko direla esan nahi inondik inora ere*» adieraziz.

Jon Imanol Gonzalez Merino santurtziarra zen gose grebari ekin zion 20 presoetako bat. Basauriko espetxetik Basurtuko ospitalera eraman zuten bere 34. eguna betetzen zuenean; egoera biziki larritzen ari baitzen. Espetxe Zaintzako Epaitegiaren baimenarekin joan ziren arren, Batera-koek ez zuten presoa bisitatzerik izan. Berarekin elkarrizketa izan nahi zutenean kartzelara eraman baitzuten berriro ere. Iñigo Urkullu parlamentario jeltzaleak Espetxe Erakundeetarako Zuzendaritzaren politika arbitarioa salatu zuen plataformaren izenean.

Ez da bisitatu nahi izan duten preso bakarra, Angel Figueroa —hamalau kilo galdurik—, Kepa del Hoyo, Edorta Ibarzabal, Jose Galastegi eta Asier Etxebarria —aurrekoak adina kilo galduta— ikusten ere saiatu baitira, besteak beste. Espetxe Erakundearen aldetiko jarrera «deitoragarri» honekin batera, euskal abertzaleen irudi bateragarria kontrastatu ahal izan da nolanahi ere. Mobilizazioak ez dira bukatu. Batera plataformakoek hilabete eta erdiko «sprint» modura aurkeztu zuten bere ekimena, eta, uneon, azkeneko pedal kolpeak ematera deitu diete herritarrei. Euskal Herriko auzo eta herri guztietan helmugak jarrita daude presoen eskubideen alde ekiteko. Gabonetakoa urteko garairik egokiena izaten da alde horretatik, eta aurtengoan bereziki baliatuko bide da bizi dugun une politiko berezia. Gatazka humanizatzeko konpromisoan adiskidetasuna da bidea Batera-koen iritziz ●

politika aldatuko. Presio eta koakzioagatik ez du aldaketarik egingo Gobernuak». Iritziak iritzi, iazko udazkenean zabaldu zen prozesua fase zail batetik pasatzen ari da. Iazko abenduan, prozesua bermatzeko gatazka humanizatze beharra adierazi zuten berean diharduten eragile politiko, sindikal eta sozialek. Urte baten buruan, konfrontazio latz batean aurkitzen da prozesua. Anartean, ez dira gutxi izan presoen eskubideen eta beren partehartzearen aldeko ekintzak. Gasteizko Eusko Legebiltzarretik eta Nafarroako Parlamentutik —EHko 13 kidek egin zuten barauldia— hasita udaletxe txikietaraino zabaldu dira haiekiko elkartasun ekintzak. Unibertsitate eta ikastetxeetan ere mobilizazioak ematen ari dira. Artean, presoak medikuen presioak jasaten ari dira beren ekimenari uko egin diezaioten. Presoen Senideak kezkati daude. Presoek kilo asko galdu dute eta hotza dute berebiziko etsai.

AMNISTIAREN GARAIA OTE? Presoen osasun egoera gaiztotuz joan ahala euren senideak espetxetaraino hurbildu dira. Zenbait kasutan, kartzela utzi eta eritetxera eraman dituztenean, haien atzetik joan dira. Ez dituzte ikusi ahal izan inola ere. Presoak artatu ondoren espetxera bueltatuak izan dira. Presoen egoera Estrasburgon ere izan da aipatua. Europako Ezker Batuko eurodiputatu batzuk —Alain Krivine buruan buru— elkartasuna agertu dute. Bitartean, presoek erakutsitako konpromisoarekin hainbat ekintza burutu da. Donostiako Belodromoan lehena. AABk deituriko ekitaldian, Begoña Sagarzazu preso ohiak honako deia egin zion gizarteari: «*Amnistiarantz Abiadurako Trena motel geratu zaigu. Mugi ditzagun karrika, herri eta auzoak, presoek erakutsitako konpromisoa eta duintasuna geure egin ditzagun*». HBk abenduaren 5ean jende oldea eraman zuen Bilbora «Euskal demokraziaren alde» lemari jarraikiz. Basauriko espetxean gose greban zeuden presoek «gorputzez ezinik, baina bihotzez bertan zeudela» adierazi zuten agiri baten bidez.

Presoek, prozesuan parte hartzeko legitimotasuna 'euren jarduera historiko'ren ondoriotzat jotzen dute

ELKARTASUNA HARRESIAN. Presoen aldeko elkartasuna La Sante espetxeraino iritsi zen hil honen 8an. Presoekin Elkartasuna Taldeko kideek beste ekintza ikusgarri bat burutu zuten CRSen harridura eta haserrerako. Lau kide igo ziren espetxeko harresian hormirudi bat eskuetan zutela: dispertsio eta kanporaketen aurka, eta presoak Euskal Herrira lemak frantsesez idatziak. Frantses poliziaren joera «basatiak» jasan ondoren, Parisko Polizia Judizialaren egoitzara eraman zituzten. Egun berean, Mikel Egibar presoa Arantzatzuko ospitalean ingresatu zuten 36 eguneko baraualdiaren ostean. 18 kilo galdu zituen. Presoak oso une larrietaraino eraman dute barauldia. Medikuen esanetan, beren leheneratzea oso zaila izanen da, oso baldintza txarretan ari baitira grebari ekiten. Kartzeletako hotza eta jasaten duten tratamendu eskasa azpimarratu dituzte hauen Senideek. Hitz hauek idazterakoan, gose greba hasi zuten 20 presoetatik hiruk jarraitzen dute: Sotero Etxandik 23 kilo galdu ditu, Mikel Zubimendik eta Arizkuren Ruizek berriz, 17 ●

◆MIKEL ASURMENDI

Iparraldeko Koordinaketak Baionan manifestatzera deitzen du larunbatean

Frantziako estatuan espetxeratuak diren euskal militanteei ez zaie uzten preso diren beste kideekin harreman txikiena izaten ere. Egoera hori ezagutu zuen Argi Perurenak Pauen atxilotua izan ondoren. Bere egoera salatzeko segidan ekin zion baraualdiari. Hilabete bat eta erdi darama Perurenak Fresnesen. Artean, Iratxe Sorozabal, Txema Olabarrieta eta Txuma Altable kanporatuak izan dira. Preso hauek, espainiar poliziaren eskuetan torturatuak izatearen beldurrez gose grebari ekin zioten.

Artean, Serafin Blanco eta Simon Caride Frantziako auzitegiek jarritako zigorra betetzear daudela, egoera bera pairatzen ari dira, eta gose grebari lotu dira protesta moduan. Presoek bere eskubideen alde daramaten borrokarekin batean, baita Frantziako Gobernuak daraman politika salatzeko eta presoekin elkartasunean, kaleko mobilizazio ugari bizitzen ari dira Euskal Herrian Koordinaketaren (Euskal Presoen Sustengu Komiteak) ekimenaren bidez.

Iratxe Sorzabalek 38 kilo zituen Espainaratu zutenean. Irunen, bere herrian, kanpaldia eta baraualdia egin zuen bere herrikide zenbaitek udaletxe aurrean. Egun libre dago.

Libre dago Txema Olabarrieta ere, eta bere aldeko akanpadak eta giza kateatze burutu ostean. Preso bilbotar honek, 17 egun jan gabe egin ondoren egarri grebari ekin zion. Txuma Altable La Jonquerako mugan utzi zuen Frantziako poliziak azaroaren 19an, eta egun berean egarri grebari ekin zion. Sei urteko zigorra bete ondoren 30 eguneko gose greba burutua zuen ordurako. Hiru preso hauek eritxetetik pasa behar izan zuten kanporatuak izan aitzinetik. Iratxe eta Txema libre utzi zituzten epailearen aurrean pasa ondoren. Altable, ordea, Soto del Realen kartzelaratzeko agindu zuen Teresa Palacios epaileak.

Ipar Euskal Herriko 20 herritan 650 pertsonek segitu izan diote Koordinaketak deituriko baraualdiari. Munta eta tamaina honetako lehen ekintza izan da Ipar Euskal Herrian, eta, hainbat hautetsik erakutsi du bere sustengua. Bi estatuko espetxetan gose greba mugagabea hasi zuten 20 presoen artean Josetxo Arizkuren Ruiz iruinsemea (Fleury Merogis) eta Mikel Zubimendi Berastegi (La Sante) bergararra aurkitzen dira; biak ala biak Frantzian espetxeratuak.

Josetxo Arizkuren, 36 eguneko gose greba betetzean —17 kilo galdurik—, erizainen laguntzaz eta anbulantzia batean eraman zuten Irene Stoller prokuradoreak presiditzen zuen tribunalaren aurrera. Arizkuren Ruizek —ETAko mintzakide presoa— akitu itxuraz baina sendo hitz egin zuen tribunalaren aitzinean: «*Frantzia, Espainia bezalaxe, euskal populuaren etsaia da*». Euskal preso politikoen kolektiboaren baraualdiak aitzina darrai Frantzia nahiz Espainiako estatuetan barrena. Iparraldeko Koordinaketak abendu honen 18an, larunbatez, Baionan presoen alde manifestatzera deitu du ●

Hainbat preso ohien lekukotasunak bildu ditugu. Gizon eta emakume hauen artean, eibartar bat, pasaitar bat, algortar bat eta hendaiar bat daude. Inolako protagonismorik gabe, presoek bizi duten egoera ezagun dute eta haiekiko elkartasun hitzak eskaini dizkigute.

GOSE GREBAREN TESTIGANTZA LATZA

Mitxel Sarasketa eibartarrak 20 urteko kartzelaldia eta 10 gose greba burutu izan ditu. Greba hauetako bi 35 egunekoak izan ziren: «*Baraualdiak egiten nituen artean ez banekien ere, haren eraginez-edo, bi aldiz gorputz erdia elbarrituta geratu zitzaidan gerora. Glukosa kontu bat zela-eta, gose greba gehiago ez egiteko gomendatu zidaten. Garun-odol-jario bat izan nuen bestalde eta erabakuntza bat egin zidaten*». 63 kilo inguru dituen Sarasketa 43 kilotan egon da.

Gose greben arrazoiak espetxe araudiak salatzeko nahiz arrazoi politikoengatik izaten dira: «*Euskal presoen kolektiboak egin dituen greben esperientziatik asko ikasi da. Oso ezberdinak izan dira biziriko egoerak. Puerto de Santa Marian egin genuenean, bi hilabeteko isolamendu eta gose pasa ostean hasi genuen baraualdia. Soriara eraman gintuzten, eta errepresioaz gain, gose grebari ekin genion. Ez diot egungoari garrantzia kentzen, aitzitik, areago ematen diot. Presoek eraman ibilbidea oso luze eta latza izan baita*». Madrilek azken greba hau instrumentalizatu dezake eta egoeraren arabera jokatu behar da Sarasketaren iritziz: «*Gobernuak agindua eman du jarraipen estua egiteko, eta ez du inor hiltzen utziko. Edo bai. ETAk izan duen interbentzioaren aurrean interesatzen bazaio, agian bai*».

MINGARRIA ZAIT AIPU HUTSA. Begoña Sagarzazu pasaitarrak 89tik 97ra ezagutu zuen kartzela: Pontevedra, Tenerife, Jaen... 20 eguneko gose grebak ezagutu ditu, eta errepresio une larrienak orduantxe ezagutu ere. Urarekin zuen arazorik handiena pasaitarrak: «*Urak goragalea ematen zidan. Edaten nuen ura botatzen nuen. Horregatik, ez naiz gauza izan baraualdiei aurre egiteko. Beste kideekin batera ezin segitu hark kristoren amorrua ematen zidan. Gero, Jaengo espetxeko ekonomatoan izotza saltzen zuten, eta hari esker 20 egunetara iritsita nago gose greban*». 43 kilotan geratzea ezagutu du Begoñak. Behin, patiora jaitsi, lagunekin hizketan hasi eta mingaina ahozapaian itsasirik geratu zitzaion. Izotz puska hartu txupatu eta hari esker eman zion buelta larrialdiari. Takikardia ere jasatea badaki zer den. Gose greba honen inguruan Bobby Sands preso errepublikar irlandarra gogora ekarria izan dela, eta euskal presoren batek haren bideari ekinen ote liokeen aipatu diogu: «*Mingarria egiten zait aipua. Badirudi presoren bat hiltzea eskatzen ari dela. Guztion gogoeta egiteko balio behar du horrek. Presoen konpromisoa izugarria da. Kalean horren erdira iritsiko bagina ez litzateke holakorik entzun beharko*».

EUSKALDUNON EGUNKARIA

■ Iratxe Sorzabalek 38 kilo zituen Espainaratu zutenean. 31 eguneko gose greba egin zuen.

ISOLAMENDUARI AITZI EGINIK. Geronimo Prieto hendaiarrak «Euskal Presoak Euskal Herrira» kanpaina barnean eta presoen eskubideak errespetatuak izan zitezen ekin zion gose grebari La Sante espetxean. 28 eguneko gose greba egin zuen: «*Hasieran animo handiz, segidan isolamenduan sartu ninduten, nirekin greban sartu zen kidea ezin ikusiz. Etengabeko mehatxuak jasaten genituen aurrera ez segitzeko. Medikuen segimendu zorrotza genuen. Gure osasunaren aurka ari ginela esanez*». Gauaren isiltasunean lortzen zuten bi presoek komunikatzea eta elkar animatzea. Gose grebaren ondorioak nozitzen ditu egun: «*Ordurarte ahoan ez nuen arazorik izan, harrez gero hortz zenbait usteltzen hasi zaizkit. Barau egiteko baldintzak oso txarrak ziren, edaten genuen iturriko ura ez baitzen ona*».

ARRITMIA LA JONQUERAN. Garbiñe Gomez algortarra Toulonen atxilotu zuten 94an. Fleury-Merogois-en eman zituen ia bost urte. Orain bost hilabete askatu zuten Soto del Realeko kartzelan aste bat pasa ondoren: «*Nik egin ditudan barauak motzak izan dira, baina beti isolamenduan. Isolamendua erregimen normala da Frantziako kartzeletan. Hartaz, bakarrik ekiten diozu grebari. Gogoan dut, preso kidea genuen Pilar Mondragon zeldan konorte galdurik aurkitu zutela funtzionarioek. Ospitalera azkar eraman ondoren atera zen bizirik*». Bost urteko kartzelaldia pasata, Guardia Zibilen esku utzi zuen polizia frantsesak La Jonquerako mugan: «*Oso gogorra zait horretaz hitz egitea. Madrilera eraman behar ninduten, baina Gironan bihotz arritmia jasan nuen. Entregatu aurretik ez nuen nire burua gose greban deklaratu, urduriak jota nengoen ordea, eta ez nuen ia ezer jan azken hilabetean. Erabat ahulduta Espainiaratu ninduten*» ●

◆ MIKEL ASURMENDI

SINDIKALGINTZA

LAB bere 25. urteurrena ospatzen ari da azken asteotan «25 urte lanean» lelopean. Datorren apirilean bere 5. Biltzarra burutuko du Donostian. Bestalde, ELAk ere Sindikatu Libreen Nazioarteko Konfederakuntzaren 50. urteurrenean eskuhartuko du.

LAB: HAZTEN JARRAITZEN DUEN SINDIKATU GAZTEA

■ Patxi Bisquert, Arnaldo Otegi, Jon Idigoras, Jose Elorrieta eta Rafa Diez, LABen 25. urteurreneko ospakizunean, Iruñean.

Duela 25 urteko udazkenean, 1974an, sortu zen LAB sindikatua. Gallartan, Ezkerraldearen bihotzean. Hain zuzen ere, iragan mendean Euskal Herriko langile mugimendua sortu zen ingurune berean, meatzarien artean —horietako gehienak Espainiako Estatuko beste lurralde batzuetatik etorriak—. Bertan, betidanik, alderdi politiko eta sindikatu estatalistek —PSOE, PCE, UGT, CCOO— izan dute gehiengoa. Ordura arte, mugimendu abertzalea ez zen ia ageri ere egiten inguru horretan. ELA bezalako sindikatu historikoak berak ere ez zuen inolako indarrik bertan. Hantxe sortu zen LAB, euskal langile mugimenduan izan behar zuen zeregin garrantzitsuaz jabeturik.

Ziurraski, garai hartan, ez zuen pentsatu ere egingo gaur egunera bitartean izan duen garapena eta bilakaera. Bistan da —azken hauteskunde sindikaletako datuei erreparatzea besterik ez dago— bera izan dela gehien hazi den sindikatua, afiliazio nahiz ordezkaritzan. Egunetik egunera gora ari da egiten, gaur egun CCOO eta UGT gaindituz nazio mailan. Euskal Herrian indar gehien duen ELA sindikatuarekin batera, erabateko gehiengoa osatzen du. Klase ikuspegiarekin eta nazio ikuspegiarekin sortu zen. Hain zuzen ere, bere bi ezaugarri horien ondorioz izan dira bere ibilbidean zehar krisialdiak, batzuetan bat eta besteetan bestea gehiago bultzatzeagatik. Gaur egun desagerturik dagoen Euskadiko Ezkerra (EE) esparru politikoan sartu izanak —HB sortu aurretik— asko baldintzatu zuen LAB sindikatuaren lehen urteetako ibilbidea.

50 urte beteko ditu Sindikatu Libreen Nazioarteko Konfederakuntzak

ELAk ere urteurrena ospatu du abendu honetan. 50 urte bete dira Sindikatu Libreen Nazioarteko Konfederakuntza (CISL) eratu zenetik, eta ELA haren kide eratzaileetako bat izan zen. Gaur egun, nazioarteko erakunde sindikal indartsuena da. 213 konfederazio sindikaletan bildurik, 143 herrialdetako 124 milioi langile ingururen ordezkaritza du. Indar horri esker, batzutan burokrazia sindikal handi bat sor badezake ere, leku garrantzitsua betetzen du mundu mailako negoziazioetan. Elkarrizketetarako ordezkari esanahitsua da hainbat nazioarteko erakunderen aurrean; esaterako, Munduko Bankua, Nazioarteko Moneta Fondoa, Merkataritzaren Munduko Erakundea edo Europako erakundeen aurrean.

CISLek, 2000. urtean, bere 17. Mundu Biltzarra burutuko du Hego Afrikan. Bere 50. urteurrena ospatuko du eta, batez ere, lan arloak munduan duen egoera aztertuko. Eguneratutako sindikalgintza batetik abiatuz, antolakuntzaren bidez langileen premiei erantzun bat ematen saiatuko dira.

CISL 1949an sortu zen Londresen. Une hartan 178 ordezkari eta 68 behatzaile bildu zituen, 53 herrialdetako 48 milioi langile ordezkatuz. Konfederakuntza honen sorrerak zerikusi handia du Gerra Hotzaren hasierarekin. Munduko sindikalgintzaren batasunarekin egiten zen amets. Nolanahi ere, ametsak ez zuen asko iraun. II. Mundu Gerraren ondoren, Munduko Sindikatuen Federazioa (FSM) sortu zen 1945ean, mundu guztiko langileak bilduz. Baina Europa eta ia munduko gainerako herrialde guztiak bi bloketan zatitu ziren, eta nazioarteko sindikalgintza ere zatitu egin zen. Horrela, FSM batez ere ekialdeko blokean mantendu zen, eta CISL eratu zen.

Nazioarte mailako erakunde sindikal honek, sortu zen une beretik, aniztasun handia izan du bere baitan, bai bertan afiliaturiko erakunde sindikalei dagokienez, bai horien ideologiari dagokionez. Zenbaitetan, CISL erakunde antikomunista huts bezala agertu izan da komunikabideetan, eta batzuk «horia» izatea ere leporatu izan diote. Baina, bere lehen biltzar eratzaileko ebazpenak irakurtzen baditugu, garbi ageri da askatasunaren erabateko aldarrikapena egiten zuela zentzu guztietan: adierazpen askatasuna, pentsamendu askatasuna, elkartzeko askatasuna, sindikatu libreak. Halaber, oso nabarmena da «totalitarismo eta eraso guztien aurka, zapalkuntza-erregimen guztien aurka...» duen jarrera. Eta beti aritu izan da gizarte justiziaren, gizarte segurantzaren eta herri guztiek independentzia nazionalerako duten eskubidearen alde.

CISL beti aritu izan da gizarte justiziaren eta herri guztiek independentzia nazionalerako duten eskubidearen alde

CISLek izan duen zabalkundea handia izan da. Berau Hirugarren Munduko sindikatuetarantz hasi zen, gero azaleratzen zihoazen herrialdeetako sindikatuetarantz eta, 1989. urtearen ondoren, Europako erdialdeko eta ekialdeko herrialdeetako sindikatuetarantz. Erakunde sindikal hau mundu mailako erakunde bihurtu da, eta bere zeregina ekonomiaren globalizazioak, kanpo-zorrak, langabeziak, ezegonkortasunak, multinazionalen jarduerek eta Munduko Bankua edo Munduko Moneta Fondoa bezalako boteregune indartsuek nazioen politikan duten eraginak langileriarengan dituzten ondorioei aurre egitea da.

Gaur egun Bill Jordan da CISLen lehendakaria, eta erakundearen 50 urteen balantzea egiterakoan, bi alderdi nabarmendu ditu: erakunde sindikalaren eraketa eragin zuten oinarrizko irizpideekiko konpromisoaren tinkotasuna eta etengabean aldatzen ari den munduari aurre hartu eta egokitzen asmatzeko gaitasuna ●

ITZULPEN ZERBITZUA
eskura
SERVICIO DE TRADUCCION
JOSÉ ARANA, 15 BEHEGAINA
20001 DONOSTIA
TELEFONOA: 943 29 18 30
FAXA: 943 27 58 69
eskura@euskalnet.net
Itzulpenak
Testu zuzenketak
Interpretaritza
EUSKARA - GAZTELANIA
GAZTELANIA - EUSKARA
Bezeroen beharretara egokituz.
Ingelesa
Frantsesa
Alemaniera
Italiera
Katalana
Portugesa
Galegoa...
hizkuntzetarako itzulpenak ere eskaintzen ditugu.
1985EAN SORTUA

INDEPENDENTZIA ETA SOZIALISMOA. Urteurren hau dela-eta, sindikatu abertzaleak hainbat ekitaldi antolatu du azken asteotan, Iruñean hasiz eta gainerako herrialdeetara zabalduz. Lehen ekitaldi publikoan, besteak beste, Jon Idigoras (LABen sortzailetakoa), gaur egungo idazkari nagusi Rafa Diez Usabiaga, ELAko idazkari nagusi Jose Elorrieta eta Euskal Herritarrokeko bozeramaile Arnaldo Otegi egon ziren.

Gaur egun, sortu zenetik 25 urte igaro ondoren, LABek «Independentzia eta Sozialismoa» aldarrikatuz jarraitzen du, Gallartako frontoian sortu zeneko nortasun ezaugarriei eutsiz. Hala adierazten du bere 5. Biltzarrerako kartelaren leloak. Kartelaren atzealdeko kolore gorriak eta gora begira dagoen geziak ikurrin erdia islatzen dute. Gainera, LABen adierazgarri diren ikus-osagaiak dauzka. Geziak, arduradunen hitzetan, aurrera eta etengabeko hazkundean doan sindikatua irudikatzen du; ikurrina erdiak sindikatu honen izaera nazionala; eta hondo gorriak bere nortasun ezkertiarra, gizarte eredu zehatz baten aldekoa.

Sindikatu honek emandako urrats garrantzitsuenetakoa, inolako zalantzarik gabe, duela urte batzuk, 1995ean, ELA sindikatuarekin sinatutako akordioa izan zen, guztiz erabakigarria gertatu baita Euskal Herriak bizi duen prozesu politikoari ateak zabaltzeko. Urrats horrek esparru politikoan izan duen eraginaz gainera, aipatzekoa da arlo sindikalean izan duen garrantzia, elkarren «aurkako» sindikatuak izatetik elkarren lankide izatera igaro baitira Euskal Herriko eraikuntza sozial eta nazionalean. Lan-harremanetarako euskal esparru berria ahalbidetuko duen esparru juridiko-politiko berriaren aldarrikapena izan da ekintza sindikal bateratuaren ardatz nagusietakoa.

Testuinguru honetan kokatu behar dira Diez Usabiagak sindikatuaren 25. urteurrenaren ospakizuna dela-eta egin adierazpenak, hots, LAB etorkizunari begira dagoela eta sindikatu abertzaleak gainerako sindikatuekin bat eginda borrokan jarraituko duela «*Euskal Herriaren eraikuntza nazional eta sozialaren alde*». Baina urrutirago ere joan zen. Bere sindikalgintza soziopolitikoaren ikuspegitik, garbi adierazi zuen sindikatuek, garai historiko honetan, ezin dutela besterik gabe alderdi politikoekin batera joate hutsean geratu. Sindikatuek zuzendaritza politikoan eta prozesu politikoaren aginte gelan egon behar dutela aldarrikatu zuen Rafa Diezek, «*horixe delako gaur egungo geldialdi egoera honen arrazoietako bat*». Diez Usabiagaren gogoeta hauetatik egun batzuetara ETAk su-etenaren amaiera iragarri zuen ●

◆ DANIEL UDALAITZ

LAB sindikatua Gallartan sortu zen 1974an, naziogintza eta klase borroka ardatz izanik

5. Biltzarra apirilean Donostian

LAB sindikatu abertzaleak dagoeneko iragarria du bere 5. Biltzarra: 2000. urteko apirilaren 7 eta 8an burutuko da Donostian. Arduradunek adierazi dutenez, biltzarraren helburu nagusia Euskal Herriko eraikuntza nazionalean eta sozialean sakontzea izango da.

Hiru ponentzia aurkeztuko dira, guztiak ere demokrazia eta subiranotasun mailako eszenatoki berri batean kokaturik. Eraikuntza nazionalak «*herri honetan bizi garen guzti-guztion zerbitzura*» egon behar duela diote. Nahiz eta eszenatoki politikoa globalizatua eta elkarren menpekoa dela onartu, ponentziak independentziaren eta Euskal Estatu baten alde egiten du. Diez Usabiagaren ustez, gainerako Estatuen antzeko Euskal Estatu baten aldarrikapena baliabide aktibo bat da gizartearen aldaketa eta kohesiorako, herrien arteko klase-elkartasunerako eta demokrazia politikoan sakontzeko.

Jarduera sindikalaren ponentziak subiranotasun esparru baten eraikuntzarako zein ekintza den beharrezkoa azaltzen du, baita euskal gizarte berri baten alde gizarte eredu alternatiboa eraikitzeko burutu beharreko ekintzak ere. Diez Usabiagaren iritziz, gizarte berri baten oinarriak jartzeko hiru ardatz behar dira: lanaren eta aberastasunaren banaketa, 35 orduen ezarpena helburutzat hartuz, lanaren ezegonkortasunaren aurkako borroka eta gizarte soldataren lorpena. Azkenik, antolamenduari dagokion ponentziak aldaketa garrantzitsuak aurkezten ditu, sektore eta lurraldekako jardueraren arteko bategitea bultzatu nahian, eskualdetako egiturei garrantzi handiagoa emanez ●

BILINTX MEGADENDA

IGANDE ETA JAIEGUNETAN ZABALIK

Fermin kalbeton, 21 • Tel.:42 00 80 / 42 02 24 • Faxa: 42 23 63 • 20003 DONOSTIA
Fermin kalbeton, 30 • Tel: 42 26 96 • 20003 DONOSTIA
Republica Argentina, 4 • Tel: 62 68 17 • Faxa: 62 68 17 • 20300 IRUN
Arostegieta, z/g. • Tel: 67 35 33 • Faxa: 67 35 00 • 20400 TOLOSA
Ibargarai, 12 • Tel: 76 40 50 • Faxa: 76 40 50 • 20570 BERGARA

Gipuzkoako herri arteko txapelketa bertsolari

Gipuzkoako herri arteko txapelketa bertsolari

FINALA

Azpeitian

Izarraitz frontoian
abenduaren 19an
11:30etan

Herri arteko Bertsolari Txapelketaren finalerako sarreren zozketan sarituak izan diren ARGIAren harpidedunak:

Jon Alkorta (Basauri)
Nekane Ariz (Usurbil)
Karmele Arregi (Iruñea)
Malentxu Arrospide (Lizartza)
Koldo Artola (Zarautz)
Joseba Barandiaran (Bilbo)
Jose Antonio Elorza (Zarautz)
Aitziber Etxanobe (Arbizu)
Lukas Etxeberria (Gasteiz)
Fray Juan de Zumarraga Institutua (Durango)

Zorionak!

Gipuzkoako herri arteko txapelketa bertsolari

Gipuzkoako herri arteko txapelketa bertsolari

HABE-REN KURRIKULU BERRIA

Bost urtetako esperimentazio fasea amaitu ostean, HABEk euskalduntzearen oinarrizko kurrikulua jarri du martxan. Irakasleen prestakuntza, ikasleen autonomia... kontuan hartuz euskalduntze-alfabetatzeak jarraitu beharreko bidea proposatzen da.

EUSKALDUNTZEA BERRIKUNTZA GARAIAN

Helduen euskalduntzea suspertu eta bideratzea da HABEren zeregina eta helburu hau lortzeko garrantzi handiko tresnatzat jo izan du programa didaktikoa. Sortu zenetik bertatik programa didaktiko honen diseinuan jardun du HABEk eta urte hauetan zehar proposamen ezberdinak kaleratu ditu, bakoitzean garaian garaiko ikuspegi eta berrikuntzak bilduz.

Lehen proposamena sortu zen urtean bertan egin zuen, 1981ean: «Helduen euskalduntzerako programazioa». Lan honek euskara-irakaskuntzarako programa biltzen zuen eta ondoren egin diren beste lanen oinarri izan da. Honen atzetik beste hiru programa etorri ziren: «Helduen euskalduntzea programatzen-84» (1983), «Euskalduntzearen lehen zortzi urratsetako edukia eta ebaluaketarako oinarrizko irizpideak» (1987) eta «Euskalduntzeko programa» (1989). Hauetako bakoitzak jarraipena izan duen bezala, 1989 urtean egindakoak ere badu ondorengoa, «Helduen euskalduntzearen oinarrizko kurrikulua».

1994 urtean hasi zen HABE euskalduntze-alfabetatzearen kurrikulu berria diseinatzen. Diseinu hau egiterakoan, euskalduntze-alfabetatzeak urte hauetan guztietan egindakoa, hizkutzen irakaskuntzan egindakoa eta programagintzaren ekarpen teorikoak kontuan hartu, eta hori hobetzeko balioko zuen tresna bat egitea zuten buruan. Aurrekoekin gertatu den bezala, proposamen berri hau hutsune, arazo eta premiak asetzera dator. Euskalduntzeari jauzi garrantzitsu bat ematen laguntzea nahi dute.

«Helduen euskalduntzearen oinarrizko kurrikulua» egitasmo baten zerbitzurako sortutako baliabide gisa definitu da, euskalduntzearen zerbitzura sortutakoa, alegia. Kurrikulu berri honen bereizgarri nagusiak hauek dira:

1) Kurrikulua egitasmo baten helburuak gauzatzeko baliabide den neurrian da baliagarri. Egitasmo hori euskara-irakaskuntza da; beraz, egitasmo honetan eragitea eta etengabeko berrikuntza eragile izatea da kurrikuluaren helburua.

2) Kurrikulua irakaskuntza sistemari eragiteko sortu da. Sistema horretan ikaslea eta irakaslea daude. Beste gauza batzuen artean, bi hauetan eragitea bilatzen du. Irakasleari etengabeko prestakuntza bermatuko dio, honek berarekin irakas-sistema osoaren berrikuntza ekarriko baitu. Baina sistemaren ardatza ikaslea da eta berak «agintzen» du irakaskuntzan. Bere heldutasuna eta autonomia bilatu nahi da kurrikuluaren bidez.

3) Kurrikulu hau oinarrizkoa dela esan dugu behin eta berriz, oinarrizkoa, orokorra eta zabala. Beraz, euskaltegi, irakasle eta ikasle bakoitzari dagokio bakoitzak be-

■ Jokin Nazabal, Hernaniko Udal Euskal

Euskalduntzearen kurrikulu berria ikasturte honetan jarri da abian, hau da, 99-00 ikasturtean. Hala ere, Hernaniko Udal Euskaltegian, proba gisa, 94-95 ikasturtean hasi ginen berau aplikatzen, HABE erakundeak gurean Saio-Talde bat jartzea erabaki zuenean, hain zuzen ere. Beraz, ondoko lerro hauetan dagoena esperientzia horretan oinarritutakoa izango da.

Gure ustez, kurrikulu berriari hiru ekarpen nagusi aitortu behar zaizkio. Lehena irakaskuntzaren ikuspegia bera. Orain arte, irakaslea izan da klasearen ardatz, hots, berak zekien zer ikasi behar genuen, noiz eta nola. Orain, berriz, irakaslearengandik ikaslearengana egin du ardatzak. Esate baterako, ikasle bati ikasturte baterako helburuak jartzeko orduan ikasleak izan behar du abiapuntua eta ez, oraintsu arte bezala, programazioak. Programazioa egin aurretik, honelakoak galdetu behar dizkiogu geure buruari: zertarako behar du ikasleak euskara? Zein testuingurutan erabiliko du? Nolako ikasleak dauzkagu? Hortik dago abiatu beharra, beste arrazoi askoren artean, irakaskuntza bere beharretatik hurbil sentitzeak berak motibatuko duelako ikaslea. Eta hori izan du gure euskaltegian eman den lehen aldaketa, programazioa alegia.

Bigarren ekarpena, berriz, da hizkuntzaren ikuspegi zabalagoa eskaintzen duela. Ikuspegi zabalago hau bi alderditara ekar liteke. Bata, ezagutzatik erabilerara eman nahi den saltoan. Bi hitzetan esanda, orain arte gramatika zen irakaskuntzaren erdigunea, hau da, ikasleak hizkuntza ikasi behar zuen: aditza, esaldi konpletiboak, erlatibozkoak... Pentsatzen genuen, horiek ikasiz gero, ikaslea gai izango zela gero hori praktikan jartzeko. Baina nork ez du ezagutzen hainbat eta hainbat ikasle forma horiek primeran jakin eta hitz erdirik esateko ezgauza? Horri erantzuteko, orain, erabilerara hurbildu nahi da ikaslea, hau da, ikasleak hizkuntzarekin gauzak eginez ikasi behar du; esate baterako, hizkuntzarekin salerosketak egin behar ditu klasean, telebistako berriak ulertzeko trebatu behar dugu... Hots, ikasleak hizkuntza kalean erabil dezan trebatu behar dugu klasean. Egia esan, euskaltegietan hau egiten urte asko generamatzan, baina, askotan zera egiten genuen, trebetasun horiek alde batetik irakatsi eta gramatika beste alde batetik, aparteko mundu bat bailitzan. Trebetasunak, gainera, irakatsi ez, praktikan jarrarazten genizkion ikasleari, bat-batean, nola egin erakutsi gabe, ikasleak berez jakingo balu bezala nola hitz egin, nola idatzi. Gure ustez, kurrikulu berriak hori guztia jaso eta horretan sakontzeko bide ematen du.

Bestea, berriz, esalditik testura eman den

re beharretara moldatzea, eta honela, proiektuari ekarpenak egitea.

KURRIKULUAREN NONDIK NORAKOAK. Edukiari dagokionez, oinarrizko kurrikulu honek lau atal ditu. Lehenengo atalean oinarriak biltzen dira eta kurrikulu honen iturburuan dauden hiru galdera erantzun nahi dira: zer ikasten da hizkuntza ikastean? Nola ikasten du helduak hizkuntza hori? Non, zein kulturatan, zertarako ikasten da? Honetarako hiru alderdi jorratzen ditu: hizkuntza, alderdi psikopedagogikoak eta alderdi soziokulturalak.

Bigarren atalean euskalduntze prozesua osatzen duten lau mailen helburu eta edukien berri ematen da. Maila bakoitza definitzerakoan, alderdi didaktikoak ez ezik, euskararen eta Euskal Herriaren egoera soziolinguistikoa ere kontuan hartu da.

Euskalduntzearen oinarrizko kurrikuluak dakarren aldaketariko bat mailaketarena da. Orain arte, eta euskaltegi sarearen arabera, euskalduntze prozesua zortzi edo hamabi urratsek osatzen bazuten, kurrikuluak lau maila proposatzen ditu. Lehenengo maila oinarrizkoa izango litzateke; honekin ikasleak gai izan behar du eguneroko harremanetan gertatzen diren elkarrizketak erdarara jo beharrik izan gabe burutzeko. Bigarren mailan, aurreko mailan jasotakoa sakontzen joango da ikaslea bere hizkuntza ekoizpena areagotzeko. Hirugarren maila Euskararen Gaitasun Agiriak (EGA) eskatzen duenaren parekoa izango da eta laugarrena arlo profesional, espezializatu eta zientifikoan euskaraz komunikatzeko gaitasuna bermatuko duena. Lau maila hauek gaur egun HAEE-IVAPek administrazioan egiten dituen hizkuntza eskakizunen parekoak dira.

Ikuspegi guztiz linguistikoa alboratu eta gaitasun komunikatiboa lantzea da joera nagusia

Metodologia da hirugarren atalean jorratzen den gaia. Atal honetan oinarri metodologiko batzuk aipatzen dira, baina irakasleari dagokio aukeraketa egitea.

Azken atalean ikasleei ez ezik irakasleei hainbeste buruhauste ematen dizkieten ebaluaketak aztertzen dira. Ebaluaketak egiterakoan euskalduntze prozesuko maila bakoitzean jarraitu beharreko irizpideak zehazten dira.

Oinarrizko kurrikulu honen diseinua bukatu ondoren, sare ezberdinetako euskaltegiei aurkeztu zitzaien eta baita esperimentazio fasea martxan jarri ahal izateko laguntza eskatu ere. Bederatzi izan dira guztira esperimentazio fase honetan aritu diren euskaltegiak eta hauek jarri dute praktikan euskalduntzearen oinarrizko kurrikulu berria.

Bost urte inguru pasa dira dagoeneko esperimentazio plan hau martxan jarri zenetik. Uztailean HABEk eta EHUk kurrikuluaren inguruko udako ikastaroa antolatu zuten bost urte hauetan egindakoaren balantze txiki bat egin eta esperimentazio

...giko irakaslea: «Euskararen irakaskuntzarako aurrerapauso bat da»

...saltoa da. Orain arte hizkuntza ikasteko zutabea esaldia zen. Esaldi horiek, gainera, zer azaltzeko nahi genituen, hartarako asmatzen genituen. Baina gero zera gertatzen zen, esaldi horiek artifizialak zirela, ez errealitatean erabiltzen direnak bezalakoak. Horren ondorio da, beste batzuen artean, euskaldunberrien euskara, askotan, hain artifiziala gertatzea. Jatorrizko hiztunok, hitz egiten ari garenean, esaldi asko ondo amaitu gabe uzten ditugu, gauza asko esan gabe... eta, hala ere, parean dagoenak primeran ulertzen gaitu. Zergatik? Ba, elkarrizketa ez delako esaldiak bata bestearen atzetik jartzea, testu bat baizik, osotasun bat duena. Esaldi asko eta asko ulergaitzak izango dira testuinguru horretatik ateratzen baditugu. Klasean, ordea, esaldiak landu izan ditugu, testuingurik gabe, isolatuak. Beraz, gure ustez, klasera ekarri behar dena elkarrizketa oso hori da, esaldi amaitu gabeekin, isildutako gauzekin... testua alegia. Ikasleak horrekin egingo du topo kalean, eta gure helburua erabilerara hurbiltzea bada, horretara jarri behar dugu eta ez laboratorioan asmatutako hitzkuntza eman eredu. Eta, gure ustez, kurrikulu berriak ikuspegi hau ere jasotzen du.

Honek guztiak, jakina, zenbait aldaketa ekarri ditu gure klaseetara. Besteak beste, testu errealak erabiltzea euskaltegian, eta, ondorioz, euskal hedabideak gehiago eta maila guztietan erabiltzea; klaseak integratuago egitea, ez gramatika alde batetik eta trebetasunak bestetik, baizik eta gramatika bai, baina zertarako erabili behar duen, hartarako eta neurri horretan.

Azkenik, kurrikuluaren hirugarren ekarpenari buruz bi gauza aipatu behar dira. Bata, ikaslea da. Ikasle bakoitza diferentea da, ikasteko modu, bizio, ohitura... diferenteak ditu. Kurrikulu berriak hori aintzat hartzea eskatzen du eta, horren ondorioz, gure klaseetan ikasten ere irakatsi behar dugu, hau da, ikasleak dituen ikasteko ohitura txarrak zuzendu, irakasteko modu eta teknika berriak erakutsi... horrela azkarrago eta hobeto ikasiko baitu.

Bestea azaltzeko, berriz, adibide bat erabiliko dut: eskolan egiten genituen idazlanak. Zenbat egin ote ditugu? Irakasleak gaia jarri eta guk idazlana asmatu. Baina, nola? Inork erakusten al zigun idazten? Inork esaten al zigun non eta zergatik jarri behar genuen puntu eta aparte? Inork irakasten al zigun nola lotu behar genituen esaldiak? Edo areago, inork esaten al zigun ez zaiola berdin idatzi behar gure lagun minari edo lantegiko nagusiari? Eta nola idatzi bakoitzari? Ez. Eskatzen zitzaiguna, eta zuzentzen zitzaiguna, irakasleari ematen genion idazlana zen. Zuzendu, gainera, akats gramatikalak bakarrik.

Kurrikulu berriaren ekarpenetako bat da *nola* horri ere erreparatu egin behar zaiola, ikasleei nola idatzi ere irakatsi behar zaiela. Eta prozesu hori ere ebaluatu egin behar da. Idazmenarekin bezalaxe entzumenarekin, irakurmenarekin eta mintzamenarekin. Edo berdin-berdin entzuten ote ditugu film bat, abesti bat edo aireportuko bozgoragailutik ematen duten oharra? Bada, hori guztia aintzat hartu behar da klasean ere, eta hau delakoan gaude kurrikulu honen ekarpenik nagusienetako bat, nagusiena ez bada.

Hauek dira, beraz, labur-labur bada ere, gure ustez kurrikulu berri honen ekarpenik nagusienak. Ekarpen hauek eguneroko jardunera ekartzea da orain erronka nagusia. Horretan aritu gara, eta ari gara oraindik, Hernaniko Udal Euskaltegian. Hasieran kosta egiten da, gauza berri guztiei ekitean gertatzen den bezalaxe, baina Hernaniko Udal Euskaltegiko bost urte hauetako jardunak erakutsi digu merezi duela saiatzea. Jakina, kurrikulu honek ez ditu arazo guztiak konponduko, ezta gutxiagorik ere, kurrikulu hau dela medio, ikasleek orain ez dute bat-batean eta ahaleginik gabe ikasiko, baina, gure ustez, euskararen irakaskuntzarako aurrerapauso bat da, gure klaseetako kalitatea hobetzen asko lagun dezake eta ●

fasean aritu diren euskaltegiek egin dituzten ekarpenak plazaratzeko.

Uda ikastaro honetan Euskal Herriko nahiz kanpoko adituak biltzen saiatu ziren, honela katalanerak, galizierak, frisierak edo galeserak bizi duten errealitatearen berri izateko aukera paregabea eskainiz.

Ikastaro honetan parte hartu zuten adituen artikuluak bildu ditu HABEk «Hizpide. Euskalduntze-alfabetatzearen aldizkarian». Agerkari honetan kurrikuluarekin zerikusi handia duten zenbait gairi buruzko artikuluak aurki daitezke, hala nola, materialgintza, irakasleen prestakuntza edo ikasleen autonomia. Artikulu hauetaz gain, aipatu atzerriko hizkuntzen kurrikuluaren berri ematen da eta azkenik udako ikastaro horretan egin zen mahainguruaren zati bat jasotzen da. Mahainguru honetan euskaltegi sare ezberdinetako adituek hartu zuten parte.

■ Euskalduntzearen oinarrizko kurrikulua eta herrialde ezberdinetako adituen artikuluak biltzen dira HABEk argitaratu dituen bi liburu hauetan.

ZENBAIT ADITUREN IRITZIAK ARTIKULUTAN. Aldizkarian kurrikuluaren materialgintza proiektuan koordinatzaile didaktikoa den Begoña Martinezek artikulu bat argitaratu du. Izenburutzat «Material kurrikularra eta berrikuntza: "Barrene" proiektua» duen artikulu honetan kurrikuluak materialgintzan egiten dituen proposamenak aurkezten dira. Kurrikulua martxan jarri zenean, konturatu ziren euskara irakasteko irakasleek darabilten materialaren erabileran ere zenbait aldaketa edo egokitzapen egitea behar beharrezkoa zela. Honela, «Barrene» deitu duten materialgintza proiektua aurrera eramatea erabaki zuten. Proiektua Leioako Udal Euskaltegiarekin jarri dute praktikan. Honetarako euskaltegi honetako zenbait irakasle eta HABEko lau teknikari aritu dira elkarlanean.

Proiektu honetarako ahozko materiala eskaini nahi izan da eta horretarako irrati zein telebistako dokumentuak erabili dira. Hala ere zenbaitetan bideo grabaketak egin behar izan dira nahi ziren adibideak eskaintzeko. Honetarako taberna moduko bat muntatu dute HABEko estudioetan. Barrene du izena taberna honek (hortik proiektuaren izena) eta bertako tabernaria da bideo bakoitzean agertzen denari buruzko azalpenak ematen dituena.

Orain arte hamar ikas-unitate sortu dira maila bakoitzerako. Ikasturte honetan ildo beretik jarraitzeko asmoa dute, baina Leioako udal euskaltegiarekin ez ezik, duela bost urtetik hona proiektu honetan murgildurik dagoen Hernanikoarekin ere ariko dira lanean. Gainera, sortutako materiala aurkezteko mintegiak antolatuko dituzte. Mintegi hauetan sare guztietako euskaltegiek parte hartzea nahi dute proiektuko arduradunek, egiten duten lan-proposamena osatu ahal izateko.

Esan bezala, materialgintzaz gain «Hizpide» aldizkariak beste zenbait gai ere jorratzen ditu. Euskara irakasleen prestakuntzari buruzko bi artikulu aurki ditzakegu bertan: Joanba Bergarak idatziriko «Berrikuntza kurrikularra eta euskara irakasleen prestakuntza» batetik eta Felix Etxeberriak idatziriko «Bigarren hizkuntzen irakaskuntzarako irakasleen formazioa: euskara» bestetik. Joanba Bergara HABEko prestakuntza ataleko arduraduna da eta euskara irakasleak prestatzeko graduondoaren eratzaile eta ikasketa batzordeko kide gisa jardun du. Felix Etxeberria, berriz, hezkuntza elebidunean eta hizkuntza jabekuntza eta irakaskuntzan lan franko egindakoa da.

Kurrikulu honek etengabeko berrikuntza eragile izan behar du euskalduntze alfabetatzean

Joanba Bergararen artikuluan euskalduntzea sortu zenetik irakasleen prestakuntza nolakoa izan den azaltzen zaigu. Bertan esaten zaigunez, 70eko hamarkadan, gaueskolak martxan jarri zirenean, irakasleen prestakuntza nahikoa eskasa zen. 1984an Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak hala agindu zuenetik, euskaltegi publiko zein pribatu homologatuetako irakasleek unibertsitateko diplomatura edo lizentziatura bat eta EGA izan behar dute. Honetaz gain, batean irakaskuntzarako sarrera eta bestean glotodidaktika ikastaroa deitzen dutena egin behar dute. Baina hau nahikoa ez dela eta, euskara irakasleei formazio iraunkorra emateko plangintza bat egiten hasi zen HABE. Irakasleen formazio plan honetan EHUrekin eta beste zenbait erakunderekin «Bigarren hizkuntzen irakaskuntzarako irakasleen formazioa: Euskara» eta «Euskalduntze-Alfabetatzearen diploma» graduondoko ikastaroak antolatu dira. Bestetik, UEUk azken urte hauetan bere programan glotodidaktika ikastaroak eskaintzen ditu. Egun HABEk plangintza honekin jarraitzen du eta euskaltegietako irakasleentzako ikastaro irekiak antolatzen ditu.

Felix Etxeberriaren —EHUko irakaslea da bera— artikulua HABEk unibertsitatearekin elkarlanean eginiko ikastaroen nondik norakoak azaltzera dator. Artikulu honetan esaten denez, ikastaro hauen helburua «*euskalduntzeko profesionalen formakuntza-prozesua zabaltzea eta adituak prestatzea da. Batetik, ikasketa amaierako diploma-agiria lortzeko bitartekoak eskaintzen dira eta, bestetik, euren burua*

prestatzeko ikasgai solteak lantzeko aukera ere ematen zaie».

«Helduen euskalduntzearen oinarrizko kurrikuluak» jorratzen duen beste gaietako bat euskalduntze prozesuan ikasleak duen garrantzia da. Ikasleak ikasten duena nola ikasten duen jakin behar du; are gehiago ikasle hauek helduak direnean. «Hizpide» aldizkarian Irma Huttunenek, Finlandiako Ouluko Unibertsitatean atzerriko hizkuntzen pedagogia ematen duen irakasleak, idatzi duen «Curriculumaren berrikuntza eta ikasle helduaren autonomia» artikulua da horren argigarri.

Artikulu honetan esaten denez, hizkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntzari buruzko iritzi modernoek ikuspegi guztiz linguistikoa alboratu eta gaitasun komunikatiboaren ikuspegia jarraitzen dute. Ikuspegi honetan, linguistikoaz gain elementu gehiago hartzen dira kontuan eta ikas prozesua ongi gara dadin ikasleak elementu hauek ezagutu behar ditu.

Honetarako ikasle eta irakasleen arteko komunikazioa ezinbestekoa da. Ikasleak autonomia lor dezan oso garrantzitsua da ikasketa planen helburua zein den argi zehaztea eta helburu horretara iristeko pausuak ikasleekin eztabaidatzea. Honela lortuko baita ikasleak bere ikasprozesua konszienteki garatzea.

Gaitasun komunikatiboa ikuspegi linguistikoari gailentzen ari zaio eta hizkuntza bat ikasteaz gain hizkuntza hori inguratzen duen kultura eta egoera soziokulturalaren berri ere izan behar du ikasleak. Ikuspegi berri honen nondik norakoak biltzen dituen artikuluan hizkuntzen irakaskuntzan kulturak duen garrantzia azpimarratzen da.

Gai hau da, hain zuzen ere, udako ikastaroetan egin zen mahainguruan azpimarratu zenetako bat. Hizkuntzaren inguruko kultura nola klaseratu galdetzen zuten mahainguruko partaideek. Hau egiteko modu ezberdinak aipatzen dira; material erreala erabiliz egin daiteke, baina dirudienez ez da hori bakarrik. Zenbaitek kultura sozializazio prozesu gisa ulertzen dute, eta prozesu horretan euskaltegiek lagundu behar diote ikasleari. Euskaltegiak euskara hiztun komunitatearen eta ikastaldearen arteko harremana sustatu behar du, kaleko jendea ikasgelara eramanez eta ikasgelakoa kalera ateraz. Denok dugu, beraz, zerikusia eta zeregina euskara ikasleen euskalduntze edo sozializazio prozesuan ●

◆ AMAIA OLANO

Arturoren kaiera

EUSKAL UNIBERTSITATEA LASTER

«Euskal Unibertsitatea, bihar ez bada, etzi etorriko zaigu» esan du Udako Euskal Unibertsitateko (UEU) zuzendari berriak. Datozen urteotako erronka nagusitzat jo du Xabier Isasi hautatu berriak euskarazko unibertsitatearen sorrera eta honek ez duela egun daudenak «zertan ordezkatu, bateragarria» dela aipatu du. Otsaila bitartean Mikel Aizpuruk jarraituko du karguan, eta orduan egingo den ohiko batzarrean ordezkatuko du Isasik.

HIZKUNTZ ESKAKIZUNEN SALTSA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila eta EAEko irakaskuntza alorreko sindikatuak ez dira oraino DBHko zentroetako lanpostuen berrantolaketan akordio batera iritsi. ELA, LAb eta EILASek irakasleei eskatzen zaizkien hizkuntz eskakizunetan zorrotzagoa izan behar dela diote, eta UGT eta CCOOk eskakizun horiek gehiegizkoak direla.

1805EKO ITZULPEN BATEN AZTERKETA

«Año Christiano ó exercicios devotos para todos los domingos y fiestas movibles del año» liburuaren pasarte baten euskarazko itzulpena Deikazteluko (argazkian) ganbara batean agertu zen duela bost urte. Pello Etxaniz filologoak testua aztertu eta Lizarraldekoa dela ondorioztatu du: «Garrantzitsua iruditu zitzaidan froga zezakeelako uste baino hegoalderago zegoela euskalkiaren muga, edo euskalkia bera noraino iristen zen ere atzeman zitekeelako».

OFFICE 2000 MERKATUAN DA

Office 2000 pakete informatikoaren euskarazko bertsioa kalean da. Word, Excel, Outlook eta Power Pointen aplikazioak eta hizkuntza zuzentzailea dauzka. CD-ROMa ere badakar berekin, Internet Exploreren bertsio berriaz.

Urrea

■ Abenduaren lehenean Arrigorriagako Udalak eta herriko 42 elkartek euskararen erabilera sustatzeko hitzarmena sinatu zuten. Elkarte hauek udalak koordinatuko duen programan eskuhartuko dute. Udalak, programa koordinatzeaz gain, bestelako baliabideak jarriko ditu elkarteen eskura: itzulpenak, aholkularitza teknikoa, jarraipena...

Ikatza

■ EHUko Informazio Zientzien fakultatearen webgunea lotsagarria da. Bertara heldu eta lehen orrialdean sartzea besterik ez duzu. «Publikazioiak», «Irakasgaien Ikertzapen» eta «Elkargiak» bezalako itzulpenak topatuko dituzu, baina benetan deigarria dena —kazetaritza irakasten den zentro batean!— «Komunikazio Erdiak» hitza, horrelaxe, jartzea da.

Bilatzaileak
Komunikazio Erdiak
Elkargiak

Kantauriar isurialdeko pagadietan gordetzen da muxar grisa. Gorde diogu, ugaztun karraskari hau ezkutukoa baita. Gautarra da esna dagoenean eta duela hilabete maiatza arterako loaldia hasi du. Pottolo-pottolo lokartu da eta pisuaren erdiarekin esnatuko da.

MUXARRAREN NEGU LOA

Negua inguratzen den heinean, gizakiok, kotoi geruza mordoaz estali eta berogailuetara hurbiltzen gara, baina denek ez dute bide berdina aukeratzen. Bada animalia xarmangarri bat neguko hotza lo goxoan saihesten duena. Nahiko genuke bai, eboluzioaren gailurrean gaudela uste dugunok, lotarako muxarraren oporraldiak edukitzea.

Muxar grisa (*Glis glis*), mikrougaztuna, karraskarien taldean sailkaturik dago. Animalia hau nahiko ezezaguna egiten zaigu bere ezaugarriak direla eta. Alde batetik gautarra izanik, babesleku ezkutuak erabiltzen ditu eta bestetik, urteko zazpi hilabete loaldi goxoan igarotzen ditu. Euskal Herrian, muxarren artean ugariena dugu muxar grisa. Animaliaren batekin alderatzekotan, urtxintxarekin pareka daiteke, gorputzaren itxura eta bere isats iletsua direla-eta.

Gehienbat nabarmentzen zaiona, bere begi beltz ikusgarriak dira, askotan, eraztun beltz batez inguratuak agertzen zaizkigu, begien tamaina handiagotuz.

Oso taktu fina duela adierazten duten bibote beltz luze-luzeak ageri zaizkio. Belarriak txikiak eta borobilak, sagutxo baten parekoak, gaueko hots nimiñoena ere entzuteko prestatuak. Zentzu hauek guztiek defentsa onak eskaintzen dizkiote animalia gautar honi.

JOXERRA AIHARTZA

11 cm-tatik 15 cm bitarte neur ditzakeen isats arro eta atzapar sendoen bidez, edozein zuhaitz edo horma ziztu bizian igotzeko ahalmena du eta adarretan zintzilikatzeko munduko trapezista trebeenaren pareko ere bada. Ukitzeko aukera izanez gero, ohartuko ginateke bere larruaren leuntasunaz. Gainaldetik grisa eta azpialdetik berriz, zuri-zuria da. Hala ere, kolorea aldatu egiten zaio heldua denean, gorriskagoa bihurtzen da, gainaldean ile beltzak ugaltzen zaizkio eta bizkarraldea sabelaldetik bereiziz, lerro horixka bat ageri zaio. Muxarraren pisua aldakorra da sasoiaren arabera, neguloaren haseran, izugarrizko pisua dute, egunak aurrera joan ahala pisua gutxituz doalarik. Dena den, 130-250 gr bitartean pisatu ohi dute eta luzera 13-18 cm-koa izan ohi da.

Baltikotik Bretainia arteko atlantiar kostan ezik, Europa osoan agertzen da muxar grisa, Iberiar penintsulan aldiz, kantauriar isurialdean soilik. Euskal Herrian, hostogalkorreko basoetara mugatua dago. Ugarien, goroldioz jositako eta harkaitzez betetako pagadi zaharretan

aurkitzen bada ere, populazioa asko emendatzen den urtetan, lurralde berriak okupatzera behartua dagoenez, pinudietan ere aurkitu izan da. Honez gainera baserri eta bordatan ere gustura egiten du habia, baratze eta fruitu arbolak gertu baititu. Habitik 100m bitarteko erradioan mugitzen da, baina eremu txiki honetan, lotarako lekua aldatzeko joera izugarria du.

Egun osoa lotan igaro ondoren, eguzkia sartzearekin batera, janari bila irteten da. Gau ilunean bazkatzera ateratzen den animalia bakarra ez denez, muxarrak kontuz ibili behar izaten du, bera ere, beste hainbatentzat mokadu goxoa baita. Bere etsai nagusiak, etxeko katua (*Felis catus*), basakatua (*Felis silvestris*), lepahoria (*Martes martes*), hontza handia (*Bubo bubo*), hontza ertaina (*Asio otus*) eta urubia (*Strix aluco*) dira.

Elikadurari dagokionez, fruitu, kimu, zuhaitz-azal eta hostoz elikatzen da udaberrian eta udan. Aldiz, irailetik aurrera, loaldirako erreserba ugari metatu behar duenez, pago-ezkur, ezkur, intxaur eta urrak jango ditu barra-barra. Noizbehinka intsektu edo antzeko animalia txikiren bat jan dezake.

Azarorako, muxarra pottolopottolo dago, gantzezko geruza sendoa eratua dauka eta neguari aurre egiteko prest dago. Nahiz eta noizean behin esnatu, hibernazioan zehar ez du ezer jaten, energiaren kontsumo urria, pilatutako gantzen konbustiotik datorkio batik bat.

Azaroan, tenperaturaren beherakada nabarmena somatzen duenean, lotara sartzen da, zuhaitz-zulo, haitzen zirrikitu, baserri edo borden ganbara edota berak egindako zuloetan.

Hibernazioan, muxarrek, metabolismoa bortizki aldatzen dute, arnas erritmoa bihotz-taupadak eta aktibitate muskularra murrizten dute, eta honekin batera gorputzeko tenperaturaren beherakada izugarria jasan, ia-ia izozte puntura iritsi arte. Honela, gutxika-gutxika gantzen erreserba agortzen doa, eguneko 0.2gr galduz. Hibernazioa bukatzerako bere pisuaren erdia galdua izango du.

Neguloa maiatzaldean amaitzen da, handik lau astetara berriz, araldia hasiz. Araldian, oihu hunkigarriak igortzen dituzte, guruin sexualen bidez usain-markak lurrean utziz. 30-32 egunetako ernaldia izaten dute eta abuztuaren bigarren hamabostaldian kumeak jaiotzen hasten dira. Urtean kumaldi bakarra izaten dute, 6-7 kume erdituz, kume horiek 5-9 urte bizi daitezkelarik.

Uda euritsu eta freskoek hurrengo udaberriko kume kopurua murrizten dute, baina benetan muxar kopuruan eragiten duena, pago-ezkur produkzioa da. Udazkenean pagoek pa-

JOXERRA AIHARTZA

■ Belarri txiki eta borobilak ditu; begi beltzak berriz, ikusgarriak dira.

■ Hibernazioa neguan bizirauteko estrategia

Neguan tenperaturak jaisteak, animalia askorentzat tenperatura horietara egokitzeaz gain janariaren murrizketa esan nahi du. Honen aurrean, estrategia desberdinak garatu dituzte animalia ornodun zein ornogabeek.

Zenbait hegazti eta ugaztunek lurralde epelagoetara migratzen dute: kukuak Zaireko oihanean beldarrak harrapatzen dihardu eta enara berriz, Nigeriako termitegien atzetik ibiltzen da. Ornogabe asko, kieszentziaz baliatzen dira, liztorrak adibidez, inguruneko tenperatura jaitsi aurretik hibernatzeko leku egokiak bilatzen ditu, zuhaitzen zirrikituak, lurreko zulotxoak... hurrengo udaberrira arte. Urtxintxa, hartza, azkonarra eta zenbait xaguxarrek berriz, energi gastua murrizten dute urtaro hotzenean lo kuluxkak eginez. Bihotzeko taupaden frekuentzia murriztu, baina gorputzeko tenperatura bere horretan mantentzen dute. Noizik eta behin esnatu egiten dira zerbait ehizatzeko edo ezkutatutako probisioetaz baliatzeko. Hau, ez dugu nahastu behar hibernazioarekin Benetako neguloa triku europarrak, hamsterrak, marmotak, zenbait saguzar intsektujalek, soro muxarrak eta muxar grisak egiten dutena da. Gorputzeko tenperatura izugarri jaisten da eta honekin batera arnasketa, bihotzeko taupadak eta zirkulazio sistemaren aktibitatea murrizten dute. Aktibitatearen jaitsiera orokorra, hormonalki kontrolatua dago, honela, gorputzeko tenperatura gehiegitxo jaisten bada, esnatu eta metabolismoa martxan jarriz beroa ekoizten du. Ezaugarri honek, desberdintzen du hibernazioa kieszentziatik, kasu honetan gorputzeko tenperatura gehiegi jaitsiz gero, animaliak ez du erantzuten eta hil egiten da ●

JOXERRA AIHARTZA

■ Loaldirako pago-ezkur, intxaur eta urrak jaten ditu.

go-ezkur gutxi emanez gero, udaberrian kume gutxiago jaioko dira. Muxarraren etsaiak aztertzerako orduan, gizakia ezin ahaztu. Erromatarren garaitik, jaki preziatua izan da, beraiek «gliraria»tan hazi eta gizentzen zituzten artifizialki. Jaki goxoa izateaz aparte, muxarren gantzek dituzten propietateak direla-eta, sendagai moduan erabili izan da. Zintzo aurpegia eduki arren, berak ere zenbait frutarboletan esanguratsuak ez diren kalteak eragin izan ditu.

KONERRA AIHARTZA

■ Zuhaitzak ziztu bizian igotzen ditu eta adarretan zintzilikatzen trapezista trebeenak adina abilezia badu.

EAE-KO ORNODUNAK. GARBEA

Gehienoi urruneko animalia iruditzen bazaigu ere, baserri eta bordatako ganbaratan bizi direnak erabat ohituta daude gizakira. Birritan pentsatu gabe azaltzen dute beren mutur txikia egurrezko bigen artetik eta ezkur, ur edo intxaurren bat gerturatuz gero, azkar asko hartuko dute inongo lotsarik gabe. Animalia txiki honetaz gozatu nahi izanez gero, saiatu beregana inguratzen, bera ez da askorik apuratuko-eta ●

◆ AINHOA OIHARTZABAL

■ «1999, pago-ezkur urte oso ona izan da, baina ez hain ona muxarrarentzat»

Zein funtzio betetzen du muxarrak gizartean? Jateko edo sendagai moduan erabiltzeko ehizatu izan da, kearekin edo gantxo baten bidez. Jateko orduan, jaki paregabea dela diote dastatu dutenek eta sendagai moduan, pelotariek ondo aski ezagutzen dute. Oso gantz fina denez, erraz barneratzen da azalean. Batez ere gihar eta artikulazio arazoetarako erabili ohi da, nahiz bere eraginak aztertzeke dauden.

■ Gizakia arriskua al da muxarrarentzat?

Ez zuzenki, muxarrak jateko edo sendatzeko ehizatzeak ez du populazioan eraginik, baina bai basoa kudeatzeko moduak. Arazoa, basoaren gaztetze eta sinplifikazioan datza. Muxarrak apurtutako edota zaharrak diren zuhaitzetan bizi ohi dira, zuhaitz gazteek zulorik ez dutenez ez du babeslekurik topatzen. Honekin loturik muxarrrez elikatzen diren hainbat animalia ere arriskuan legoke.

JOXE LACALLE

■ Enrike Castien, Nafarroako Gobernuko biologoa.

■ Muxar urte ona izan al da?

1999, pago-ezkur urte oso ona izan da, baina ez hain ona muxarrarentzat. Orokorrean, muxarraren populazioa handitzen da janaria emendatzen den heinean. Aurten ez dira proportzionalki hazi eta tartean, beraz, gaixotasunen bat izan ote den susmatzen dugu.

■ Proiektu berririk aurkeztu al da?

Ez, lehenagotik lantxo batzuk eginak badaude ere ez zaie jarraipenik eman. Gehienbat Europako Erdialdean aztertzen da, zientifikoki badituelako hainbat ezaugarri. Alde batetik ugaria da ia Europa osoan eta bestetik hibernazioa dela-eta, prozesu honetan ematen diren adaptazio ekologikoak oso ezezagunak ditugu oraindik ere.

■ Zein ingurune bereiziko zenuke muxarraren ugaitasunagatik?

Pago motzez osatutako pagadi zahar eta zulodunak, Aralar, Aizkorri eta Nafarroako Pirinioak batik bat. Mende honen hasiera arte, pagoak, beste hainbat zuhaitzaren antzera, egurretarako edo ikatzetarako erabiltzen ziren. Ganadua basoan sartzen zenez, pagoak 2-2,5m-tara mozten zituzten. Horrela, animaliek ezin zuten kimurik jan ●

FERMIN IRAOLAGOITIA



MONIKA DEL VALLE

"ZEUDEN SEI LIBURUAK IRAKURTZEN GENITUEN LEHEN"

Etxebarrikoa da Fermin Iraolagoitia pasiotarra. Hamaika urterekin Gabiriko seminariora abiatu zen. Batxilergoa egiteko garaia iritsi zitzaionean Eubara bidali zuten 1956. urtean. Ordurako Deustun urtebete egin zuen. Filosofia ikasketak egin zituen Tafallan eta Urretxun berriz Teologia ikasi zuen. Abadetuta, Bizkaiko bederatzi herritatik igaro zen eta Euban amaitu zuen ibilbidea. Makina bat eremutan lan egiteagatik da ezaguna. Bizkaiko ikastolen sorrera mugimenduan aritu zen, eta liburugintzan ere esperientzia handia du. Ibaizabal-Edelvives argitaletxeko sortzailea da Iraolagoitia. Berak azpimarratzen du euskarazko argitaletxeek bizi nahi badute beste argitaletxeekin elkartu beharko dutela.

Hainbat esparrutan jardundakoa zara, liburugintzan, editore, enpresari, ikastolen eremuan. Zelan ikusten duzu zure burua atzera begiratuta?

Horiek guztiak biltzeko ni beti kulturgile izan naizela esango nuke, eta beti euskaraz. Etxebarrikoa naiz, guztiz euskalduna den herria eta txikitandik euskaraz bizi izanik, euskarazko kulturgile izan naizela esango nuke, beti euskal kontuetan lanean.

■ Beti euskaraz bizitzea ez zen erraza izango bada.

Etxebarrin eskola zen erdaraz zegoen bakarra. Hamaika urterekin Gabiriko seminariora joan nintzen eta han ere inguruko baserritarrekin-eta euskaraz egiten nuen, zelan bestela! Horren ostean etorri nintzen

Eubara batxilergoa egitera, 1956an, urtebete Deustun egon ostean. Oso maisu onak izan genituen: Luis Anjel Sarasola, Luis Mari Larrarte... Eta euskaraz bizi ginen, «beladak» deitzen genituenak egiten genituen, antzerkiak, bertsoak... Orduan sortu genuen, bertoko ikasleok, «Bidez» aldizkaria. Hemendik Tafallara joan nintzen Filosofia ikastera.

■ Sasoi hartan euskal giro handiegirik ere ez zen izango bada.

Herrian ez, baina seminarioan talde handia biltzen ginen eta asko ginen euskaldunak. Han ere egin genituen «beladak», aldizkaria ere euskaraz egin genuen izenburua erdaraz izan arren. Baina salto handia Urretxun izan zen. Teologia ikastera joan nintzen eta han «Laiaketan» aldizkaria zegoen, Arantzazun egiten zen eta inguruko filosofo eta teologo denek idazten genuen hor, sakramentinoek, frantziskotarrek, pasiotarrek, denok parte hartzen genuen. Itzelezko artikuluak ziren, denak euskaraz, eta orduan hasi ginen elizako dokumentuak ere euskaratzen.

■ Frankismo garaiko urte ilunez gabiltza berbetan?

Bai, 65-70 urte haietan, abadetu ostean, Bizkaiko bederatzi herritan ibili nintzen eta handik Deustura itzulita gau-eskolak ematen hasi ginen. Orduan ez zegoen oraingo aukerarik euskara ikasteko. Gogoan dut zelan gelak eskatu zizkiguten euskara eskolak emateko. Eta beste zerbaiterako erabiliz gero Gobernu Zibiletik egurra etortzen zen. Batzuk Zamorako espetxean amaitu zuten. Baina euskaraz lanean jarraitu nuen, Deustun adibidez «Ikastola» aldizkaria sortu nuen erdaraz zegoen «Redención» aldizkariko atala bereizita. Zazpi mila ale egiten genituen. Sasoi hartan ere, Tere Rotaetxe, Julene Berrojalbiz eta beste batzuen laguntzaz lehen euskarazko jaunartzeak egin genituen Bilbon, orduan gogorra zen eta batzutan utzi ere ez zuten egiten.

■ Urte haietara helduta, lehen ikastolen mugimendua ere ordukoa da.

Ikastolak sortu aurretik Bilbon etxeetan egoten zen ikastola, esate baterako Lauro sortu aurretik Bilbon hiru lekutan egoten ginen. Lehenengo lana lekua topatzea zen, Julene Berrojalbiz, Sabin Zubiri eta beste batzuk ibili ziren hasieran eta ni euren inguruan hasi nintzen, materiala prestatzen batez ere... Bilbotik Eubara etorri nintzen eta 1969an lizeoa sortu nahi izan nuen, baina orduan ez zidaten utzi, ixteko asmoa ere bazegoen. Gero, hemen, 1977an sortu genuen Lauaxeta ikastola, Euba ez zen itxi, baina aldaketa batzuk egon ziren. Lauro orduantxe sortu zen, Eubara ekarri edo ez egon ginen berbetan. Lauro sortu aurretik zalantzak izan zituzten gurasoek, orduan guk hemen sortu genuen. Lehen pasiotarren seminario zena, nik ikastetxe bihurtu nuen. Hiruzpalau urtetan ikastola egin genuen irakasle erdaldunak euskaldunduz eta misto eginez mutilentzat bakarrik zena.



■ «Gura beste, egundo ez da izango, baina orain hamar urte pentsatu ere ez genuen egingo gaur irakurtzen diren liburuak irakurriko zirenik euskaraz».

■ Zein da ikastola eta liburugintzaren arteko harremana, zeu sortzaile izatea ala harago doa?

Nik IKA erakundea sortu nuen, hau da, Ikastola Katolikoen Alkartea. Bizkaian beste erakundea BIE zen (Bizkaiko Ikastolen Elkartea) eta gurean Berriz, Begoñazpi, Ondarroako Txomin Agirre... sartu ginen. Gaurkoa baino askoz giro zatikatuagoa zegoen sasoi hartan, dena zen diskusioa; erlijioa, hizkuntza, batua-bizkaiera... eta hor sortu genuen IKA. Beste elkarte batzuen atzean ere egon nintzen: BIA (Bizkaiko Idazleen Alkartea), BEBA (Bizkaiko Euskera Biziaren Alkartea), bizkaiera indartzeko taldea. Gaurko Bizkaia Irratia ez zegoen orduan, Radio Popular erdara hutsez zen eta euskarazko lehen berbak sartu nituen. Gaurko Ibaizabal argitaletxearen aurretik, IKAk egin zituen urte batzuk liburugintzan, materiala-eta sortzen. IKA-Ibaizabal zen orduan, eta hor enpresa modura jokatu beharra ikusi genuen, 90eko urrian. Ordutik elkarte anonimoa daukagu eta orain Ibaizabal-Edelvives da. Gaur enpresa lez dabil, betiko helburuekin, euskararen inguruan jardutea eta euskarazko irakaskuntza integrala ematea. Beste galdera zera da, zergatik sortu genuen? Indar gehiago be-

har genuelako, IKA-Ibaizabal oso lokala zen, Bizkaia hutsera mugatuta eta testugintza ere bizkaieraz bakarrik lantzen zuen. Orduan nik ikusten nuen euskararen eremuan zabaldu eta indarra hartu ezik ez zegoela zereginik. Zalantzan egon nintzen, enpresa hori euskal editorialekin egin ala erdarazko editorial baten laguntzaz.

■ Eta azken aukera horren alde egin zenuen.

Euskal edo erdal argitaletxeekin elkarlana egin, hori zen zalantza. Sasoi hartan Santillana argitaletxeak Madrilera eroan ninduen zeozer egiteko asmotan, baina ez zen irten. Gero lan batzuk egin genituen SM etxearekin. Guk esate baterako, Geografia eta Matematiketako bost ikasturte atera genituen, handik itzulita, baina Euskal Herri osorako, bizkaieraz eta gipuzkeraz. Baina ez genuen egiten traturik enpresa moduan, gauza puntualak bakarrik ziren. Erlijiozko bost liburu ere euskaratu genituen, Gipuzkoarako gipuzkeraz eta Bizkairako bizkaieraz, baina ez eurekin elkartuta, eskubideak erosita bakarrik.

■ Gaur ostera, Ibaizabal-Edelvives da enpresa, hau da, batasun antzekoa egon zen.

Edelvivesek gu aukeratu gaitu Euskal Herrian partaide izateko. Orduan guk enpresa bat daukagu eta kapital erdia hemengoa da eta bestea eurena. Katalunian beste horrenbeste egiten du, Galizian ere bai, bakoitzean delegazio bat dauka. Edelvivesek gure bitartez euskaraz sortzen du, baina hemen lana guk egiten dugu, guk aukeratzen dugu, aurrekontua egin... Eurak partaide dira. Lehen Euskal Herrian erdara hutsez egiten zuten lan, hortaz biontzat ondo etorri da, bestelakoan saldu barik gelditu ziren-eta. Guretzako ere ondo etorri da; ze bestela gure indarrez soilik ezin izango genukeen gaur gabiltzan kopuruetan ibili. Euregaz batu ginenean hasi ginen Euskal Herri osora begira produzitzen eta nabarmen hazi gara. Orain esan liteke testugintzan geu garela lehenak, gure aurrekontua handia da, urtean 200 milioikoa eta 1.300 liburu egin ditugu Ibaizabal sortu zenetik. Testugintzan, hiru urtetik unibertsitatera arte dena daukagu, batxilerretik doanarentzat. Irakurgaietan, bideo eta audioan, lan piloa daukagu. Egin kontu zenbat bilduma ditugun, euregaz batu ezean hemengo batekin batuta ezingo genukeen.

Hamarrekoa

JUAN MANUEL ETXEBERRIA

«Ikerlari, ipuinlari eta herri-euskararen jasotzailea»

●

JOSU LEGARRETA

«Lehengo gure ohiturak eta gaurko mundua ondo ezagutzen dauan gizona»

●

AGUSTIN ZUBIKARAI

«Idazle ugaria eta antzerkigintzan jakituna»

●

MARTIN OLAZAR

«Bizkaieraren alde buru-belarri jokatu, idatzi eta jardun dauana»

●

MARTZEL ANDRINUA

«Euskal Herriko bertsolari onenetarikoa eta sermoilari bikaina»

●

FELIX ZUBIAGA

«Nobelagintzan trebe, ugari eta jatorra»

●

BIBIÑE PUJANA

«Umezale amorratua: antzerki-ipuin-kanta. Beti umeekin euskaraz jolasean»

●

ANTTON IRUSTA

«Txiste kontalari ausarta eta erabarritzailea»

●

JABI ARTARAZ

«Testugintzan, batez be Bizkaian, liburu pila egin zein orraztu dituan maisua»

●

PIEDAD ATEKA

«Beti eskolan eta eskolarako liburuak eta ipuinak sortzen dabilen irakaslea»

Eta gero, sarea ere behar da saltzeko, liburuak egiteaz gain saldu egin behar direlako. Nik Kukuma sortu nuen adibidez, Bizkaiko liburu-dendetan banatzeko kooperatiba, produktuaren zabalkundean lagungarri izan dadin. Azpiegiturarik ezean, alferrik dira laguntzak.

■ Kanpoko argitaletxeek euskal merkatua ikusi dute beraz, irakaskuntzako esparruan batez ere. Euskal Editoreen Elkarteko presidente zinela aipatzen zenuen, ordea, batu ezean denentzat lekurik ez zela egongo. Ba al dago egun denentzako merkaturik?

Ez, baina berez galtzen dira. Nik, editoreen elkarteko presidente nintzenean, hori planteatu nuen. Orduan hamaika argitaletxe geunden eta erosle potentziala bost edo zazpi milakoa zen ikasturte bakoitzean. Kanpoko lauzpabost argitaletxe sartu ziren, merkatuari eustearren eta indartsu, baina zer gertatu da azken aldian? Bi edo hiru arlo hartu dituztela soilik, errentagarrienak jakina. Santillana adibidez, euskaraz Zubia dena, itzelezko indarrez hasi zen liburuak argitaratzen, baina orain hori jaitsi egin da, produkzioa gora beharrean behera joan da. Zergatik? Ba, ez duelako etekinik ematen eta urte batzutan eman ezik... horiek ez doaz dirua galtzera. Hori da gertatzen ari dena.

Hori goitik behera norbaitek arautu behar badu, nork jaramon egin horri? Lege aldetik ez da egon ezer, guk geuk topatu ditugu gure bideak, baina batzuk orain lauzpabost urte baino askoz gutxiago argitaratzen dute. Kanpoko adibideak eman dizkizut baina bertokoei ere gertatzen zaie. Horrelakoetan gai batzuk aukeratzen dituzte.

■ Haur literatura indartsu dabilen artean, helduenak eta beste liburu mota batek indarra galdu duela aipatzen da aspaldion, portzentualki behinik behin.

Gura beste, egundo ez da izango, baina orain hamar urte pentsatu ere ez genuen egingo gaur irakurtzen diren liburuak irakurriko zirenik euskaraz. Alde batetik zuk diozuna egia da, baina gaztelaniaz edo ingelesez, helduek zenbatek irakurtzen dute? Estatistikak irakurrita beldurgarria da zenbat liburu egiten den espainolez eta zenbat irakurle dauden. Orduan ez dut uste gu salbuespen berezia garenik, izatekotan salbuespen baikorra izango ginateke. Ez dago irakurleak mugitzeko pilularik. Asko erein behar da, ideiak landu behar dira eta batzuk kale egiten dute eta beste batzuk

MONIKA DEL VALLE

■ «Euregaz batu ezean hemengo batekin batuta ezingo genukeen».

ustekabean pilo bat saltzen dira. Daukagun irakurlearentzako ez dugu sortu aukerako libururik, dirurik ematen ez digutelako.

Nik badakit adineko jende euskaldunari gustuko zaizkion liburutxo batzuk eginez gero gehiago irakurriko luketela. Ari gara egiten hirugarren adinekoentzako liburutxo batzuk, batuaz eta bizkaieraz, baina ez dira errentagarriak. Mila ale eginda laguntzen duzu, besteetan hiru edo lau mila eginda, eta merkatuari erantzun bat ematen diogu, ehun liburu artean egin dezakegulako, baina hortik ezin da bizi. Gai askorekin gertatu da, antzerkia, eliz-liburuak; orain 20-25 urte arte gehienak ziren, gaur ez dira errentagarriak. Nik izan nuen ametsa, eliz-barrutiak batu eta zerbait egiteko baina... batzuek erdaraz egiten dute, euskaraz batere ez. Eta arazoa ez da gazteena soilik, gizarte osoa sekularizatu da. Geuk ere, zenbatek irakurtzen ditugu klasikoak? Lehen bai, lehen ez irudi eta ez ezer ez zegoen. Zeuden sei liburuak irakurtzen genituen, gaur seiehun egonda... Fraileek ere euskaraz bizita ere, zenbat liburu irakurri ote ditugu? Telebista ere badaukagu... denon jokabidea da hori.

■ Argitaletxeen elkarlanaz badago berririk?

Oinarri legez beti esan dut edozein produktutan, enpresetan elkartu beharra dagoela. Baina ez dakit gai garen euskal argitaletxeak elkartzeko, froga batzuk egin dira eta ez dira irten. Behin baino gehiagotan hitz egin dut merkatua banatzeko argitaletxeekin eta ezin da. Zer gertatzen da? Bakoitzak bere nortasuna daukala eta nortasun hori zaindu nahi bada ezin da egin. Lehenago egin genuen proba bat, nahiz eta burujabetasuna galdu ez, erosketak eta inprenta lana elkarrekin egiteko. Bada, horrela ere ez. Orduan lehen esandakoa gertatu da, ahulenak edo diru erraztasun gutxien izan dutenak jausi egin dira eta indar gehiago izan dutenak doaz aurrera.

■ Merkatu lege hutsez gain, erakunde publikoen ardura ere hor dago. Zein izan beharko litzateke bete beharko luketen funtzioa zure ustez?

Erakundeek puntu horretan oso gaitz daukate ezer egitea, laguntza batzuk ipintzen dituzte eta denei berdin ematen diete; zuk hau egin eta zuri hau, denontzat arau berdinak daude. Nahi duenak nahi duena esango du, baina Euskal Herrian izan dugun aukerarik ez dut uste beste inork inon izan duenik, eta beti daude kexak, e? Ados, aldaketak egongo dira eta baliteke egokiagoa izatea Eusko Jaurlaritzak eta Aldundiek plangintza egitea baina tira, gaur arte legez jarraituz gero, ni konforme.

■ Amaitzeko, aurrera begira zelan ikusten duzu euskalkiek eta batuak behar duten harremana, azken honek hogeita hamar urte bete dituela?

Guk praktikan euskaldun umeari dakien euskaran egitea diogu. Bizkaieraz gutxiago saltzen dugu, baina bizkaieraz argitaratzen ditugu gai guztiak oinarri horri jarraitzearren. Kontua bizkaieran bertan ere badago, euskalkia batuago beharko genuke, baina kostatu egiten da, prozesu luzea da, eta gauza batzuk arautzeko batu egin behar da. Orain lauzpabost urte egin zen eta badaude horretarako taldeak ere. Baina urte batzutan oso zapalduta egon da bizkaiera. Orain lasaiago gabiltza zorionez. Lehen ez zegoen aukerarik irrati edo telebistan bizkaiera entzuteko, orain bai, eta uste dut dagoen apurra aprobetxatu egin behar dela.

Nik egin nuen doktorego tesian adibidez, Ertzaintza eta irakaskuntzaren gaiak hartu nituen, legez gureak diren eskubideak, baina praktikan euskaraz egin ezin direnak. Hortaz oraindik euskaraz bizitzeko aukerarik ez dago praktikan. Guk Euban adibidez hori natural egiten dugu, zorte hori daukagu fraileok, lo ere euskaraz egiten dugula, baina aurrera begira gizartean batu egin behar da eta enpresak egin behar dira kulturgintzan ●

◆ URTZI URRUTIKOETXEA

MONIKA DEL VALLE

■ «Gai askorekin gertatu da, antzerkia, eliz liburuak; orain 25 urte gehienak ziren, gaur ez dira errentegarriak».

FINALA

FINALA

AZPEITIAN

Izarraitz Pilotalekuan

Abenduaren 19an goizeko 11:00etan

ERNIOPE

J,M, IRAZU
TXOMIN GARMENDIA
AMAIA AGIRRE
AITOR USANDIZAGA

ZARAUTZ - JAI TXIKI

ANDONI EGAÑA
JULEN ZULAIKA
IÑIGO MANZISIDOR "MANTXI"

SARRERAK TOLOSAKO CANTABRICON , AZPEITIKO MEOLA ETA PASTORKUAN, ZARAUZKO TXIKI POLITEN, ETA HERNANIKO AKERREN SALGAI

Antolatzaile:

Babesle nagusia:



Laguntzaile:

EZPA

PRINTZA

POLITICALLY CORRECT

Xabier Izagak honela hausnartu zuen idazleen sormen askatasunaren inguruan «Gara»n:

«(...) Hainbat kritikok militante, politiko eta gisako adjektiboak darabiltzate zenbait idazleren lanen izaera literarioa ukatzeko. Izen ere, obra barik idazlearen pentsamoldea epaitzen baitute. (...) Beti ere ezkerreko idazleei aurkitzen diete delako morrontza beren idazlanetan. Beraz, agi danean, ezkerreko ideologiak baizik ez dira literaturarentzat kaltegarriak. (...) Edozein merkatu ekoizkinek bezala etekin ekonomikoa besterik bilatzen ez duen obrak ez al ditu ideologiarenak baino sormenarentzako muga handiagoak? (...) Sormenaren zama handia den beste fenomeno bat ere sartu zaigu sukalderaino: «politically correct» delakoa. (...)

Politikoki zuzenaren diskurtsoa Estatu Batuetatik heldu zaigu. Han, esate baterako, beltzei «afroamerikar» esaten diete(...). Aulki elektrikoan jesarri eta kiskali egingo dituzte, baina inola ere ez iraindu. Koldo Izagirreren «Incursiones en territorio enemigo» izenburua desatsegina da zenbaitentzat.(...) Izan ere, izenburu politikoki zuzenago edo, «guk demokratok» espezieak esaten duen moduan, «toleranteago» bat ezar ziezaiokeen Izagirrek bere liburuari, baina nekez egokiagorik. (...)».

EUSKALKOM PRENTSA ELKARTEA

EUSKALDUNON Egunkaria»ren Urtekarian (abenduaren 5ean) plazaratuta jakin da azaroaren 4an Euskalkom euskarazko prentsa idatziaren elkartea sortu dela. «Egunkaria», «Jakin», «Elhuyar» eta Topagunea biltzen ditu elkarte berri honek, partaide guztien zerrendarik zabaldu ez bada ere. Urriaren 21ean burutu zuten fundazio batzarra, eta sorrera prozesuan gertatutako gorabeherak direla eta ARGIAko zuzendaritzak bilkuran ez parte hartzea erabaki zuen. 1996an Donostiako Miramar jauregian egindako Euskalkom jardunaldietan oinarritzen du bere ibilbidea elkarte berriak, bere lehen helburutzat aipatzen duelarik «elkartekideen interes ekonomiko, sozial, profesional eta kulturalak babestea, ordezkatzea eta sustatzea Administrazioaren, sektore ekonomikoen, komunikabideen, alderdi politikoen eta gizarte erakundeen aurrean». Oraingoz ez daude elkartean ez ARGIA eta ez AEKren «Aizu» aldizkaria.

EUSKALDUNON EGUNKARIA

«PUTZ» ETA «BAZKA» JAIO DIRA

BI aldizkari jaio dira Durangoko Euskal Liburu eta Diskoen 34. Azokaren baitan. Estrata Liburuak —garai bateko Susa— kaleratu du «Bazka» aldizkaria. Iñigo Aranbarri idazle azkoitiarra da zuzendaria. Eta literaturak betetzen du lehen ale honetan leku gehien nahiz eta egungo kulturako beste gai batzuk ere jorratu diren. «Putz» bihilabetekaria Apocalifting Kultur elkartearekin batera jaio da. Tonu umoretsua eta tratamendu informala dira aldizkariaren ezaugarri nagusiak. Horrez gain, literatur lanak bildu nahi dituzte aldizkari berrian.



ALBERTO ELOSEGI

■ «Putz» eta «Bazka» aldizkari berriak.

75 URTE TXISTUZ OSPATZEN

GASTEIZKO Udal Txistulari Bandak 75 urte beteko ditu aurten. Urte hauetan guztietan formatu bera mantendu du txistulari bandak: txistu lehena, bigarrena, silbotea eta atabalariak osatu dute taldea. Urtemuga ospatzeko kontzertu bat egin zuten abenduaren 12an Vital Kutxaren Gasteizko aretoan. Bertan Gipuzkoa, Bizkaia, Nafarroa eta Arabako hainbat udal txistularik hartu zuen parte. Gainera, Gasteizko Udal Txistulari Taldeko kide ohiak omendu zituzten.

HITZ BITAN

● **Mikel Bujandak honela zioen «Euskaldunon Egunkaria»n eta «Gara»n: «Hainbat nafar komunikabidek euskara Hizkuntza Politika Saileko laguntzak jasotzeko bide bezala bakarrik ikusten dute».**

● **Mikel Telleriak zera esan zuen «Euskaldunon Egunkaria»n: «(...) Hitzek euren esanahiak dituzte, baina horrezaz aparte, niretzat ezinbestekoa da hitzek behar dutela musikaltasun bat eduki, (...). Euskarak duen musikaltasuna ateratzen saiatzen naiz».**

L A K

JOALDUNAK EUROPA ZAHARREAN

Europako mundu zaharrean zehar barreiaturik dago joalduna. Ez da soilik euskalduna. Eihartzea Kultura etxeak burututako ikerketak toki bakoitzak era ezberdinetako joaldunak dituela ondorioztatu du. Thierry Truffaut etnologoak egindako ikerketa euskaldunak duela bizpahiru mila urte zeuden lurraldetatik hasi zen. Ondoren, Kantabrian eta Biarnoan —garai batean euskaldunak ziren lurretan— ohitura berdintsuak aurkitu zituen. Eta azkenik, Portugalen, Bulgarian eta Grezian ere topatu ditu Truffautek joaldunak. Aurkitutako ñabardurak erakusketa ibiltari batean ikusi ahal izango dira orain. «Txilin» izeneko erakusketari otsailaren bukaeran emango zaio hasiera Hazparnen. Ondoren Euskal Herri guztian aurkeztuko delarik. Internet gune bat ere jarriko dute informazio guztia bilduz. Horrez gain, kaleko animazio bat sortuko dute inauterietako pertsonaia nagusiekin.

BAIONAKO ARTE LANAK IKUSGAI

BAIONAKO Lauga gelan daude ikusgai Baionako Artista Kolektiboa osatzen duten 22 artisten lanak. Erakusketa hau duela bi urte sortu zen artista taldeak egiten duen bigarrena da. Eskulturak, margo lanak eta beste zenbait estiloko lanak ikus daitezke bertan abenduaren 18a arte.

EUSKADIKO ORKESTRA LAN ETA LAN

EUSKADIKO Orkestra Sinfonikoak Carlos Alvarez baritono malagarrarekin batera disko konpaktua grabatu du. Mario Venzago maisuaren zuzendaritzapean aritu dira lanean eta Ricardo Muñiz tenoreak ere parte hartu du. Carlos Alvarezek eta EOSek hainbat emanaldi eskaini dituzte batera azken urteotan. CD hau baritonoak egin duen lehen bakarkako lana da. Bertan, Verdi, Bizet eta Donizettiren lanak bildu dituzte besteak beste. Disko konpaktuaren aurkezpen ekitaldia hil honen 2an egin zen. Hilabete honetan bertan Jesus Aranbarriri eskainitako lana aurkeztuko dute, Maria Bayo soprano nafarrarekin elkarlanean. Guztira EOSek 15 disko inguru argitaratu ditu 1983tik gaurdaino.

EUSKALDUNON EGUNKARIA

■ EOSek lan berria egin du Carlos Alvarezekin.

■ Itxaro Borda

IZENAK

Itxaro Borda izango da aurrerantzean Seaskako lehendakaria. Bere lehen agerraldian, Seaskak aurten ospatzen duen 30. urtebetetzearen inguruko ekitaldiak jakitera eman zituen. Apirilean Donibane-Lohizunen inauteri bereziak egingo dituzte, ondoren Herri Urrats, eta bukaerako eguna ekainaren 17an izango da Miarritzen.

Edurne Gartziak eta **Oroitz Maizek** irabazi zuten senior eta gazteen artean, hurrenez hurren, Gipuzkoako XX. Akordeoi Txapelketa.

Jon Lopategiri omenaldia egin zioten Durangoko Euskal Liburu eta Diskoen 34. Azokan Bizkaiko ikastoletan bertsolaritzaren alde egindako lanagatik. Lopategik 60ko hamarkadan Bizkaiko hiru txapelketa irabazi zituen jarraian, eta 89an Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa.

ALBERTO ELOSEGI

■ Jon Lopategi

● «Euskonews & Media»n Andoni Egaña bertsolaritzaz eta arteaz mintzatu zen: «Artearen inguruan bertsolariek izan duten jarrera, bestalde, herritar askoren berbera izan da: ulertzen ez denarekin mespretxu isekazkoa (...). Badirudi bertsolarien ezaugarriak aldatzearekin arteak ematen dituen aukerei eusteko premia sentitu duela bapatean ari denak ere».

● Erramun Osak esanak dira hauek «Deia»n: «Hizkuntzak ez dira komunikazio tresnak bakarrik, munduarekiko ikuspegi propio eta errepikaezinak baizik. Euskaldunok geuretik aportatu behar dugu, Euskal Herriak bere kultura eta izaera erakutsi behar du» ●

Arteaz eta amarruaz

Interes handikoa izan da niretzat aurtengo Gipuzkoako Artista Berrien deialdiaren emaitza. Eskandalua piztu zen milioi erdi pezetako hirugarren saria Jon Mantzisidor izeneko artista gazte zumaiarrari eman ziotenean. Erakusketako azafatetako bati, ondoko dendan erositako zapatila edo tennis pare bat jantzi zion eta ausardiaz izenburua jarri bere artelanari: «Azafataren zapatilak».

Bat baino gehiago ikusi dut asaldatuta eta txilioka gertaera honen kontra, hori inondik inora ez dela artea esanez. Diru publikoak horretan erabiltzea kritikatu duenik ere ez da falta izan bazterretan. Ederki ulertzen dut esaten dutena baina arras kontra nago: lehiaketa horretako lanak ikusita, eta inorenik baztertu nahi gabe, nik lehenengo saria emanen niokeen Mantzisidorren lanari.

Ez dut bera ezagutzen eta lehenagotik ere ez neukan entzuterik batere, baina eskerrak eman nahi dizkiot ARGIAk eskaintzen didan aukera hau profitatuz. Erakusketara sartu nintzenean bere proposamena ez nuen ikusi ahal izan, goiztxo ibilia bainintzen. Egia esan, epai-mahaiak oraindik erabaki gabe zituen sariak eta azafatarik ere ez zebilen Koldo Mitxelenako areto hartara agertu nintzenean. Gerora ezagutu dut aipatu artelana katalogoan eta beste argazki batzutan.

Gure artista gazteenen lan haiek ikusi nituenean, lehenengo sentimendua tristeziarena izan zen. Pena eman zidan artista gazteen patuak. Egiten dutena egin, ezer berririk proposatzeko zailtasun handiak daude gaur egun. Bide gehienak ibilita daude eta *déjà vu* zantzu bat hartu nien erakusten ziren lan gehienei. Orijinaltasuna zaila dute Duchamp, Beuys eta gainerakoen lanen ostetik.

ALABAINA, han ordezkatuta zeuden guztien kemena miretsi egin nuen. Inork ez zuen lan ederzale eta hornidurazko soiletan geratu nahi izan. Guztiek erakusten zuten arrisku eta ausardiarako kemena, artelan polit eta huts-hutsetatik haratagoko saioan amiltzen ziren guztiguztiak. Lehen eta bigarren saridunak ere horietakoak izan ziren (Mendizabal eta López). Baina egia, ezin izan nuen, hala ere, tristura gainetik kendu gazte haien ahalegin antzua hain nabarmen ikusi nuenean.

Oteizak dioenez, eta ez da bakarra, bi bide ditu artegintzak. Bata, artearen beraren bilakaera izan dena (Cezanne, Picasso, Malevitx... Oteiza bera), finitua da. Bestea, surrealisten eta Duchampen bidekoa, ez da sekula agortuko. Beti izanen da aukera ikuslea harritzeko, kitzikatzeko, eragiteko... Hauen artekoa da Mantzisidorren lana, artearen beraren izaera kolokan jartzen duena. Ikusleari artea zer ote den eta zer ez, galdekatzen diona.

Eta orain dator idazlan honen bigarren gai nagusia, hain zuzen ere, Bilbao Guggenheim Museoan egun hauetan daukagun moto erakusketarena. Baten batek esan du (Txomin Badiolak, esaterako) Thomas Krensek egindako muntaia arte erakusketatzat izan daitekeela hartua. Ni ezezkotan nago.

Ez nuke hemen hitz egin nahi ikuspegi politiko aspergarri batetik. Ez dut gure kultur ordezkari gorenak eta hedabide gehienetako konplizeak zenbaterainoko zimaur-jaleak diren agertu nahi. Era berean, orain eta hemen, ez nuke sakondu nahi zein garesti gertatzen zaigun diru publikoz ordaindutako arte garaikiderako museo honen noraezean. Aipatu baizik ez dut egin nahi eredu yankeea popatik nola sartzen diguten gurin mediatikoaren laguntza ordaingaitzaz. Ez dut mintzatu nahi aurrez iragarrita zegoen zorigaitzaz. Ez da hori idatzi honetako kontua.

AITOR BAYO / EUSKAL KULTURA GAUR

Hasier Etxeberria
Idazlea

"Mantzisidorrena ezberdina da oso. Bere gaztetasunean, bere apaltasunean, bere artista izateko erabaki irmoan, bere ausardia mugagabean, gauza izan da ni bezalako diplodokus artritiko bat dardarka eta kolokan jartzeko (...) Ukitu egin nau, eragin eta astindu Duchampen bidetik"

MANTZISIDOR gaztearen «Azafataren zapatilak» eta Krensen motoak alderatu nahi ditut nik eta ez, gainera, bataren milioi erdi pezetaren ordainetik eta bestearen auskalo zenbatetik begiratuta. Hori ere ez.

Mantzisidorren zapatilen alde eta Krensen motoen kontra agertu nahi dut garbiki. Mantzisidor artista baita eta Krens, ez (puta handi bat eta seduktore handi bat zela aitortu zion Zulaika adiskideari). Krensenak ez du ezer funtsezkorik zalantzan jartzen arteari dagokionean. Motoak artelanak direla diotenek, gauza bera esan zezaketen guardasola, txapela edo odolkiei buruz. Ondo egindako zernahik du derrigorrezko artisautza eta diseinua: txalupek, leihoek, zesta puntek, Conchako barandilek... Garai hauetako ikono ere, zernahi izan daiteke: lokomotorak, lentzeria, Coca Cola iragarkiak... Kontua ez da hori. Krensek ez du deus jarri kolokan bere BMV eta Harleyekin. Bera da nagusia eta motoak ditu gogoko eta kitto. Pamela Andersonen irudia, moto gainean noski, arte garaikidearentzat ordaindu dugun museoan zintzilik. Garmendia andreak beharko luke esan bi hitz eta behingoagatik mahaiaren gaina ukabilez astindu.

Mantzisidorrena ezberdina da oso. Bere gaztetasunean, bere apaltasunean, bere artista izateko erabaki irmoan, bere ausardia mugagabean, gauza izan da ni bezalako diplodokus artritiko bat dardarka eta kolokan jartzeko. Artelanaren mugetan eta berezitasunetan pentsatzen jarri nau. Ukitu egin nau, eragin eta astindu Duchampen bidetik. Merito izugarria du horrek, batez ere lortzen baldin bada azafata bati zapatilak edo tennisak jazteko proposamen xingle eta zuzen bezain lotsagabeaz ●

IKUSKIZUNAK

Ez da bertso saio bat, dantza emanaldi bat ere ez, eta ezta trikitixaz alaituriko erromeria edo jaialdia ere. Hiru elementuak uztartu eta nahastu ditu Laxok taldeak, eta horrela sortu da «Upeletan erronka», Euskal Herri osotik biran arituko den sagardotegi ibiltaria.

ERRONKA ARTISTIKOA UPEL ARTEAN

MONIKA DEL VALLE

■ Dantzari eta bertsolariak lehian arituko dira sagardotegi bilakatu den eszenatokian.

Partehartzaileak Laxok taldea osatzen duten lau dantzariak —Iban Agote, Oier Imaz, Kimetz Larrañaga eta Jon Maya— Peñagarikano eta Egaña bertsolariak eta Ansorregi eta Larrañaga trikitilariak dira. Eszenatokia sagardotegi bat da; upelak, mahaiak, sagardoa eta guzti —txotx ere egiten dute partehartzaileek bertan—. Oholtza gainean oso ondo banatutako bi talde ageri dira (bertsolari bat eta bi dantzari talde bakoitzean), eta trikitilariak erdi-erdian. Hor hasten da ikuskizuna; Euskal Herriko edozein txokotako sagardotegi batean gerta litekeen istorio bat kontatuz.

Sagardotegian topo egiten duten bi koadrilak berehala hasten dira lehian. Bertsolariak lehenengo eta, trikiti zein bertso doinuen laguntzaz, dantzariak beranduago. Bertsolariek gidari edo narratzaile lana betetzen dute erronka gauzatu eta azaltzeko, eta Peña eta Egañak giroa berotu bezain laster dantzariak sartzen dira lehian. Bizkaia eta Gipuzkoako aurreskua, banangoa, baso dantzak... tankera horretan gauzatzen da erronka; bakoitzak dantzan bestea baino gehiago dela erakutsi nahian. Lehia horretan une ikusgarriak gertatzen dira; esate baterako, bertso doinuekin dantzatutako banangoa, *tubo* basoaren gainean jauziak egitea... «Upeletan erronka» lehia artistikoa da, azken finean; sagardotegi giroan gertatzen den ordu eta laurden edo ordu eta erdiko ikuskizuna, hasiera-hasieratik Laxok taldeak prestatu eta zuzendutakoa.

MONIKA DEL VALLE

Andoni Egaña
Bertsolaria

Dantzarien ekimena izan zen eta dantzarien ideia. Bertsolariak endredatzen utzi ginen, ez besterik, «Upeletan erronka» izeneko ikuskizun honetan. Dantzariak dira ikuskizunaren mami eta ardatz. Bertsolariok, Peñak eta biok, ahotsa jartzen diogu haien norgehiagokari.

Egitura finkoa du saioak, baina bertsolarien presentziak bat-batekotasuna bermatzen du, non ari garen eta zer gertatzen den oso garrantzitsuak baitira erronka era batera edo bestera burutzerakoan.

Jendaurreko pare bat saio egin ditugun honetan konturatu naiz, ikuskizun honek balio dezakeela bertsozaleak dantzazaletzeko eta dantzazaleak bertsoari arreta eskein diezaioten. Folkloreari lotuagoa seguru aski dantza. Bide berrien egarri bertsolaritza.

Bata eta bestea uztartzen ahalegindu gara. Eta aitortu beharrean nago, dantzazaletik oso gutxi zuen honek gozatu egin duela entsaioetan Iban, Jon, Kimetz eta Oierri begira. Uste dut beraiek ere une politak pasa dituztela gurekin. Ikusentzuleei ere holatsu opa diegu ●

Ansorregi eta Larrañaga

Bata Eibarkoa eta bestea Azpeitikoa; bikote hau ezaguna da oso Euskal Herriko plaza zein erromeria guztietan. Bata luzea eta besteak ahotsa berezia; ez dira nolanahiko bikotea, baina oholtza gainean bizitzen eta egoera berrietara ondo egokitzen badakitela erakusten ari dira «Upeletan erronka» ikuskizunean. Esperientzia berria da oso beraientzat, euren melodiarekin ikuskizunaren ardatz baitira.

Jon eta Andoni (Ansorregi eta Larrañaga) gustura daude; hori dirudi behintzat, eta euren betiko jardunari bide berri eta arrakastatsua aurkitu diote. «*Orain arte soinua beti egon da dantzari oso lotua. Dantzari bai, baina plazakoari, eta orain bi elementuok bertsolaritzarekin batera ikuskizun batean uztartzea interesgarria da. Dantzariak eta gu beti egon gara elkarrekin baina aldi berean bananduta ere*».

Noiz edo noiz Larrañagak bere bertsolari sena ateratzen du emanaldietan, nahiz eta bere lan nagusia panderojolearena den. Ansorregi, berriz, gidari bihurtzen da soinua eskuetan duela, eta biak elkarrekin «Upeletan erronka»ri melodia jarri eta banandutako bi koadrilen bideratzaile bihurtzen dira. Esperientzia «*interesgarria*» gertatu zaie, eta seguruaski euren musikarako aberasgarria ere. Ikuskizunaren filosofia ezinhobeto ulertu du bikote honek, eta dantzariekiko lotuta zein oholtza gaineko ofizioa igartzen zaie saioa hasi bezain pronto ●

MONIKA DEL VALLE

■ Larrañaga eta Ansorregiren doinuek blaitzen dute ikuskizuna.

BAT-BATEKOTASUNA. Ikuskizunaren ildoa edo eskema berdina da beti, oso antzekoa behintzat, baina horrek ez du esan nahi herri guztietan saio berdina eskaintzen denik. «Upeletan erronka»k duen ezaugarri nagusienetakoa lekukotasuna da. Ikuskizuna lekuan lekuko egoera, istorio, pertsonaia ezagun edota *pikeetara* egokitzen da. Hau da, saioa ematen den herriko jendea inplikatuko duen gai bat aukeratzen da beti. Esate baterako, Zaldibin Peña eta Egañak gazte denborak gogoratu zituzten lehen saioan, baina Bilbon euskaldun zahar eta berrien rolak jokatu zituzten. Beti aldakorra da gaia; Azpeitia Azkoitiren aurka, Donibanekoak San Pedrokoen aurka... gisa horretakoak beti. Hala ere, hasierako gai horrez gain, oholtzan gertatzen denari buruz kantatzen dute bertsolariek, etengabekoak baitira inprobisazioa, naturaltasuna eta ezustekoak.

Orain arte ikusleen artean ezuste handiena sortu duen elementua eszenografia bera izan da. Sagardotegi itxura du bete-betean, eta oholtza baten gainean txotx egiten jardutea harrigarria gertatzen zaie askori. Hala ere, zalantzarik gabe euskal kultura eta folklorean hain oinarrizkoak diren aipatu hiru elementuak aldi berean eta zehaztasun osoz uztartuta ikustea da aipagarriena. Trikitilariak hain ohikoak ez dituzten doinuak jotzen, bertsolariak esperimentu berri baten aurrean eta dantzariak erabat berria zaien mundu bati aurre eginez...

Apustu indartsua egin dute guztiek, baina badirudi ez dela alferrikakoa izan. Urriaren 8an Zaldibin aproba egin zuten, azaroaren 11n Bilboko Kafe Antzokian aurkezpen ofiziala eta abenduan jada eginak dituzte laupabost saio. Jendearengan



■ Peñagarikanok eta Egañak elkar zirikatuko dute, beti ere toki

harrera ona izan du proiektu berriak, eta Laxoken hasierako asmoak gainezka egiten ari dira. «*Ondo ateraz gero arrakasta izan zezakeela espero genuen, eta hasieratik dena primeran doa*» diote Laxokeko lau dantzariek. Datozen egunetan Zumaia, Hernani, Astigarraga, Donibane-Garazi, Mendaro, Errenteria eta Usurbilera helduko da «Upeletan erronka», eta 2000 urteko agenda ere betetzen hasiak dira partehartzaileak.

Proiektu honetan, lehenengoz, arreta pizten duena partehartzaileen izenak dira. Dantzarien artean dantza soltu zein aurreskuan azken hiru urtetan egon diren txapeldun guztiak batzen dira, bertsolarien maila zalantzan jarriko duenik ere ez dago eta trikitilari hauek plaza giroan dauden puntakoenetakoak dira. Baina ikuskizuna ikusi eta gero, ikusleak partehartzaileez gain beste elementu batzuk azpimarratzen ditu, batez ere. Hiru elementuen uztartze egokia, historiaren arintasuna, eszenografia eta kolorearen balioa, sormen lana, umorea eta, zergatik ez, oholtza gaineko ausardia eta naturaltasuna. Hitz bitan esateko, hori da «Upeletan erronka» ●

◆ A.M.S.

LAXOK: DANTZARI BIDE BERRIAK IREKIZ

Noiz edo noiz norbaitek galdetu izan du ea Laxok dantzari txapeldunak biltzeko taldea den. Baina, egia esan, Laxoken zentzua askoz ere urrutirago doa. Jon, Iban, Oier eta Kimetzek adiskidetasunak eta lanerako gogoak bultzatuta egin dute topo; bestela, ezinezkoa litzateke horrenbeste lan egitea eta ikuskizuna aurrera ateratzeko horrelako ilusioa izatea.

Laurak oso ohituta daude txapelketa edo ohiko dantza taldeetan parte hartzera, eta gustura daude guztiak bertan egiten duten lanarekin, baina euskal dantzari eta euren dantzari jardunari bide berriak ireki nahi izan dizkiote. Saiakera lotsatiekin hasi ziren lanean; Alaitz eta Maider bikotearen «Inshala» diskoaren aurkezpenean eta Alboka folk taldearekin kolaborazio batzuk egiten, baina segituan ohartu ziren eurak laurak elkartuta ikuskizun bat sortzeko gai zirela. Ideia bururatu, gauzatzeko baliabideak bilatu, gainontzeko partehartzaileekin hitz egin, eskulana, promozioa, koreografia, eszenografia... Ez dira ez lan gutxi laukote honek hartu dituenak, baina gogoa dagoenean, ezer gutxi geratzen da saiakerarik gabe. Laxoken proiektua hasi da pixkanaka-pixkanaka oinez, nahiz eta euren sortzaile eta laguntzaileen gertuko jarraipena behar duen oraindik. Jon, Iban, Oier eta Kimetz gehien alaitzen dituena ikuskizunak jendearengan sortzen duen harrera ona eta entzuten ari diren kritika atsegin guztiak dira: «*Onena dantza, trikiti edo bertso munduko jendeari gustatzen ari zaiola da, eta herriko jende arruntarengana ere oso ondo heltzen da ikuskizuna, sortzen den giro eta inplikazioagatik*».

Euskal dantzari bultzada bat ematea eta testuinguru berrietara egokitzea bilatu du Laxokek hasieratik. Urte beteko jardun laburra du taldeak, baina jada hasia da helburu horien funtsa eskuratzen: dantza publiko berri batera helduarazten ari da «Upeletan erronka»rekin, eta bertsolaritza eta trikitixarekin uztartuta testuinguru berri bat sortu du dantzarentzat. Euskal dantzaren sustraiak eta urratsak beti oinarri izanda, sormen lan berria ere bilatzen du Laxokek. Batzuetan musika jakin baten gainean dantza berriak sortu, eta beste batzuetan ohiko dantzak pixka bat eraldatu. Horretan saiatu dira dantzariak. Ez tradizioarekin hausteagatik, bere taldean lantzen baitu alor hori, baina bai «*zerbait berria*» egiteko gogoak bultzatuta.

Partehartzaile bikain hauen laguntzaz, lau dantzariak ohikoa ez duten lekuan ikusten ari dira euren burua: aurkezpen ekitaldiak, prentsa, saioak barra-barra... Hori zen bilatzen zutena eta topatzen ari direna. Inoiz, beste dantzari batzuk eta oro har euskal dantzak, lau gazte hauek irekitako bidea erabili eta eskertuko dutela espero dute ●



MONIKA DEL VALLE

...okiko bitxikeria xelebreei erreparatuz.

MONIKA DEL VALLE

■ Laxokeko dantzarien egitasmoa da hau.

Euskal kulturaren ehun urteko kronika

LASARTE-ORIA 1990: LIZARDIREN AMETSA, BIGARRENEZ

Uztailaren 15ean Donostiako Belodromoan Egunkariaren Festa egin zen egun berean jarri zuen Egunkaria Sortzen taldeak «Euskaldunon Egunkaria»ren 0. zenbakia kalean. Egun historikoa zinez. Alde batetik, «Eguna»k gerra garaian izaniko esperientzia behartu eta laburraz salbu, lehen aldia delako euskal egunkari bat kalean dena. Bestetik, eta Larramendiren «El Imposible Vencido» hura gogoan, hogeigarren mendearen hondarretan eta tentsioz beteriko giro politiko batean, gutxieneko indarrak bildu eta ametsak betetzea posible dela sinestarazi delako.

Hesi askoren gainetik pasatu behar izan da proiektua gauzatua ikusteko. Behar izan da hazi indartsu bat, ARGIA aldizkariaren inguruan bildutako kazetarien gogoak eta esperientziak eman diotena. Behar izan da urteetan luzatu den kontzientziazio kanpaina bat, euskalduna euskal prentsara hurbiltzea ahalbideratu duena, baina batez ere gerri malgua izan da beharrezko. Behin sektore euskaltzale askoren indarrak eta sentsibilitate diferenteak batuta, Eusko Jaurlaritzarekin negoziatu ahal izan dena negoziatu eta txakur gosez betetako merkatu basara ateratzeko.

Bidea ez da gozoa izan. Mao Zedong politiko eta poetaren olerki hartan bezalaxe, «bat bitan zatitzen da / dena Euskal

Egunkaria

Euskal futbolariek Euskadirekin jokatuko dute Italiako Mundukoan

FIFAk gure selezioari azken orduan egindako eskaintza aho batez onartu zuen atzo Iruñean Euskadiko Federazioak

Prezioen indizeak 1,7% gora apirilean

Tiksiak zorarik Marinoren azken etapetako exibizioarekin

Irakasleak grebak iraxoletako komenio berriaren atarian

Hauteskunde autonomikoen aurrerazteak harrotu egin ditu politikoak

■ 1990

✔ Xalbador ikastegia zabaldu zuten Kanbon.

✔ «Hemen» eta «Eguna» astekariek, dirulaguntzarik gabe, azken zenbakiak plazaratu zituzten irailean.

✔ AEKtik kaleratutako nafarrek Ikas eta Ari koordinakundea sortu zuten.

✔ Euskal Kazetarien Elkartea sortu zen.

✔ Euskal Kultur Erakundea sortu zen.

✔ Bizkaia Irratia sortu zen.

✔ Xorroxin eta Euskalerria Nafarroako euskarazko bi irratiak lizentziarik gabe utzi zituen Nafarroako Gobernuak.

✔ Negu Gorriak taldea sortu zen.

✔ Eusko Jaurlaritzak Euskofilm erakunde publikoa aurkeztu zuen.

✔ Pierre Betelu, Martzelino Garde Remigio Mendiburu, Jean Hiriart-Urruti, Justo Mokoroa, Sabin Muniategi, Jean Louis Caussade, Leon Bilbao eta Joseba Elosegi hil ziren

«Hobe bi egunkari bat zapuztea baino»

Egun «Euskaldunon Egunkaria»ko lehendakari Iñaki Uriak euskarazko egunkarien gaia jorratu zuen 1990eko ekainaren 7an ARGIAn, «Hobe bi egunkari bat zapuztea baino» izenburupean, kaleratutako artikuluan. Hona hemen artikulu horretako pasarte batzuk:

«Euskaldunon Egunkaria kalean jartzeko herriz herri gero eta indar handiagoz aurrera doan ekimenaren barruan bati baino gehiagori entzun diot egunkari 'bakarra' behar dugula euskaldunok. Bat ezinbestekotzat jotzen dudalarik, neronek nahiago nituzke bi egunkari bakar bat baino. Joseba Arregik esana duen moduan diru arazorik ez badago —eta biak maila berean laguntzen baldin badira— irakurle gehiagorengana iritsiko lirateke bi egunkari bakar bat baino. (...) Nork esango luke 'Egunkari bakarra' behar dela erdaraz? Nork esango luke 'egunkari publikoa' behar duela erdarak? (...) Gizarte aske bat egituratzeko orduan ez da batere osasuntsua komunikabideak gobernuaren kontrolpean izatea. (...) Ez dezagun esan aurrena 'bi proiektu daude' eta ondoren 'egunkari bakarra behar dugu' egunkari gubernamentala justifikatzeko eta bestea zapuzteko. (...) Jaurlaritzak ezin du irakurlegoaren kontrako egunkari 'bakarra' argitaratu. Egin dezake, baina horixe genuke egunkaria porrotean amiltzeko biderik zuzenena»

■ Martin Ugalde, Joxemi Zumalabe, Imanol Murua eta Josu Landa (atzean) «Euskaldunon Egunkaria»ren lehen erredakzioan, Lasarte-Orian.

Herrian». Bi proiektu egon dira iragarrita azken unera arte. Bata, Egunkaria Sortzen taldearena. Bestea, Eusko Jaurlaritzarena. Bien arteko diferentzia, egunkariari eman beharreko erabileran dago. Joseba Arregi Kultur sailburua eta Jose Ramon Beloki kazetaria buru dituen proiektua astiroago dabil, itzal da, urrun dago euskararen inguruko indar dinamikoengandik. Horregatik hartzen du beste eite bat. Irakurle berrien bila abiatu nahi du, irakurterraza izanen da, familiako edo etxeko egunkaria segmentazioa ondo taxutuz eskaintza aldetik, lehen egunkari baten osagai eta enpresa firma batean finkatua. Gainera, ofizial izaerak Ajuria-Eneako Itunaren agerkari izatera behartzen du.

Joxemi Zumalaberen beteraniak, Martin Ugalderen gaztetasunak bestelako irudia eman dio Egunkaria Sortzenen xedeari. Euskaltzaleen artean esperantza handiagoa piztu duen ezaugarriak erantsi dizkio zernahi euskaldunen artean aspalditik mamitu nahian dabilen amets bati: «euskaltzalea, nazionala, baterakoia, zabala, independentea (erakunde politikoetatik eta beste medioetatik), ez instituzionala (ez, hala ere, kontrakoa), subentzionatua, militantea, profesionala, berria, osoa, konbentzionala, konpetitiboa».

CIES ikerketa soziologikoetarako enpresak egindako ikerketak ez du birentzako tokirik ikusten, eta hala dio ikerketari erremate moduan ematen dion azken aholkuan: «...eta irakurlearen egunkari bakarra izango ez bada ere, horixe da apustua, identifikazioz lehenengo izatea eta horretara jotzea egunkari osoa, duintasunezkoa, normala eta konpetitiboa izatera heltzea».

Hala jarri da zero zenbakia kalean, amets bat egunkari mehe batera bildua. Uda eta udazkena izan dira trebatzeko. Negua gainean delarik, eta Durangoko liburu eta disko azokara bildutako jende oldea profitatuz atera da lehen zenbakia. Errotatiba propiorik gabetan, langileen lan baldintza sinestezinei esker dago Maulen eta Bianan, Karrantzan eta Ataunen «Euskaldunon Egunkaria». Hamaika mila ale saltzen ditu egunero. Ez da asko mende hasieran Iparraldean soilik nekazal giro batean «Eskualduna» astekariak saltzen zituen zazpi mila aleen aldean. Ez da asko 750.000 euskal herritarrek aitortzen dutelarik erroldetan euskaldun direla. Lizardik 1929an «Bai»-rentzat kalkulatzen zituen berberak ditu irakurle.

«Egunkaria» kalean denetik mundu oso bat du egiteko euskaldunak. Terminologia bat du finkatzeko, geografia bat osatzeko, hizkuntza komunitate bateko partaide izateak ematen dion ideologia bat egiteko. Eta ez da erraza. «Euskaldunon Egunkaria» egunero ezartzen ari den dinamikarekin, azukrea uretan bezala doa urtzen euskaldun askoren inpunitatea

◆ IÑIGO ARANBARRI

EUSKARAREN AURREKONTUAK (2)

Asteotan eztabaidatuko dira Gasteizko Legebiltzarrean 2000. urteko aurrekontuak, eta baita diputazioetakoak ere. Horiei buruz Kontseiluaren zuzendaritzak egin dituen gestioez galdetu diogu Idazkari Nagusia den Xabier Mendiguren Bereziarturi.

KONTSEILUKO ZUZENDARITZA ETA 2000.EKO AURREKONTUAK

Ordubeteko elkarrizketa bat izan genuen estraina Kontseiluaren Idazkari Nagusiak eta biok. Solasaren apunteak hartu ahala, zenbait gai nahiko arantzatsuak zirela eta, hurrengo baterako berriro geratzea proposatu nion, erantzunak lasaiago pentsatu eta zifrak kontrastatu ahal izateko posta elektronikoz galderak berriz pasata. Ondorengo elkarrizketak, kuestionarioari Xabier Mendigurenek idatziz erantzundakoa biltzen du).

■ Euskararentzako diru kontu publikoei buruzko zuen gestioen iturburutzat, duela urte bete, abenduaren 21an, zenbait alderdirekin sinatutako «Bai Euskarari» akordioa aipatu izan du Kontseiluak. Zein izan da gestio horien nondik norakoa urte bete honetan, nork hartu du parte eta norekin, zein izan da kronologia...?

Abenduaren 21ean sinatu zen Konpromiso Politikoaren puntuetako bat zen, dakizunez, kontu publikoei dagokiena. Bertan esaten zenez, alderdiak konprometitu egin ziren diru-laguntzen kopuruak nabarmen handiagotzera, batetik, eta dirulaguntza lerro berriak aztertzera, bestetik. Oro har, esan dezaket Konpromiso horrek abiapuntua besterik ez duela jarri eta ondoko lanetan mamituko dela orduan jasotakoa. Konpromisoa sinatu zuten alderdiek zuk aipatu duzun puntu horri heldu diote agiri hori garatzen hasteko eta une honetan Kontseiluak egindako proposamena dute mahai gainean.

Ulertu behar da oso urte berezia izan dela euskal politikagintzan eta maila orokorrean alderdiek elkarrekin lan egiteko izan dituzten zailtasun eta oztopoak euskalgintzak aurkeztutako planteamenduan ere ikusi dira. Eusko Jaurlaritzako legealdiko ituna sinatu duten hiru alderdi abertzaleekin egindako gestioak dira arlo honetan aipagarrienak.

■ Xabier Mendiguren Bereziartu, Kontseiluko Idazkari Nagusia.

Hiruei bakarka eta elkarrekin aurkeztu zaie gure proposamena eta oraindik azterketa fasean dagoela jakinarazi digute. Iazko aurrekontu luzapenaren inguruan gestio mota bera izan genuen.

■ 1998ko aurrekontuak prorrogatu egin ziren Jaurlaritzan 1999rako, neurri osagarri batzuekin. 1999ko dirukontuetan islatu al dira Kontseiluak ezarri nahi zituen irizpideak?

Kontseiluak orduan eta gaur egun ere, diru partida zehatzei baino ikuspegi globalari areago heldu nahi dio gai honetan. Izan ere, euskararen normalizazioak unean uneko diru kopuru zehatz batzuk baino askoz gehiago behar du, besteak beste, laguntza politika jakin eta eraginkor bat, hizkuntza politika ulertzeko modu berri bat eta kopuruak finkatzeko elkarrizketa marko zabalagoak. Planteamentu honetatik elementu batzuk ikusi ditugu jadanik, besteak beste, solaskidetzari dagokiona. Hortik aurrerakoa datozen egunotan ikusi ahal izango dela uste dut.

■ Administrazioei euskarak behar duen konpromiso handiago baten alderako keinuak eta metodologia berri bat lantzen hastea aipatu da Kontseilutik. Zertan mamitu da hori urte honetan?

Harreman nahikoa gora-beheratsuak izan dira, aurrez esan dizudan bezala, egoera soziopolitiko nahasi honek erabat baldintzatu duelako guk askoz arautuagoa nahiko genukeen harreman markoa. Konpromiso handiagoa behar-beharrezkoa dela garbi ikusarazi diegu eta zeinbait esparrutan igerri dugu mezu honek ondorioak izan dituela. Zuzeneko komunikazioa bermatzea, adibidez, aurrerapauso handia izan da euskalgintzarentzat, orain arte zeharka baino ez baikenuen jasotzen arlo politikoan gertatzen ari zenaren berri. Horrek lan egiteko modu bat ekarri du eta hortik etorriko dira, nire ustez, behin eta berriro eskatu diren konpromisozko jarrera sendoagoak.

> **"Euskararen normalizazioak unean uneko kopuru zehatz batzuk baino askoz gehiago behar du"**

■ Dirudienez, hezkuntza alorra alde batera geratu da gestioetatik. Kontseiluaren gestioa «euskalgintza» deitzen den alorrean (kultur produkzioa, editoriala, komunikabideak, lan mundua...) zentratu dela esan al daiteke, alegia Jaurlaritzan HPSk hartuko lukeen eremuan? Zein eremutan zentratu dira Kontseiluaren gestioak?

Kontseiluak euskararen aldeko politika eraginkor eta zentzuzkoa bultzatzea du helburu. Arlo guztietan ari gara lanean, berdin kulturan zein hezkuntzan edota industrian, zerbait aipatzeagatik. Euskalgintzako alo-

Kontseiluak partiduekin erabilitako paperak eta zifrak

Udaberrian etorri zen Kontseiluko zuzendaritzako kidea eta Elhuyarreko burua den Iñaki Irazabalbeitia ARGIAra. «Bai Euskarari» konpromisoari jarraituz, alderdi politikoek (EAJk, EAk eta EHk) hori mamitzeko Kontseiluak zein diru kopuru beharrezko ikusten zituen azkar zehazteko eskatzen omen zuten. Eta Irazabalbeitiak esan zigunez, urgentziazko datu bilketa egiten ari zen Kontseilua. 1999ko aurrekontuak egiteko garaia zen.

ARGIAri zenbat diru behar zuen galdetzen zitzaionez, elkarrizketan geunden Joxemari Irazusta lehendakariak —ni neu ere bileran nintzen— kopuruetan hotz-hotzean sartzea desegoki ikusten genuela adierazi zion, euskal kultur mundua sektore, erakunde, enpresa eta jarduera oso ezberdinez osatuta dagoela eta lehenago irizpideak finkatzeko lan bat egiten ez bazen, politikariekiko harremana bazar bat bilakatzeko arriskua zegoela. Era berean, dirulaguntzen gestioa ez dagokiola Kontseiluari ere gogorarazi zitzaion.

Gero, 1999rako Eusko Jaurlaritzak 98ko aurrekontuan prorrogatu zituen, EAJ, EA eta EHren babesarekin. Pasa zen uda, eta irailaren 25ean Kontseiluak egin zuen batzar nagusian dirulaguntzen inguruan tentsioa zegoela sumatu zuen ARGIAko ordezkaritzak: Kontseiluaren zuzendaritzan dagoen AEK-k subentzioak erakunde bakoitzak bere gain negoziatzea eta Kontseiluak dirulaguntzen negoziatzeari espreski uko egitea proposatu eta bozketan aurrera atera zenean.

Aurrekontu berriak egiterakoan, hiru alderdi abertzaleek ere euskalgintzako enpresa eta erakunde bakoitzak aurrera begira zer asmo zuen jakitekotan, bakoitzarekin harremanetan jarriko zirela ondoriozta zitekeen guzti horretatik.

Geroztik Kontseiluaren zuzendaritzako inork ez dio eskatu ARGIAri ez dirulaguntza publikoen irizpideak nola ikusten dituen adierazterik, ez bere edo berekin sektore berean daudenen jardueraren finantziazioa nola baloratzen duen, ezta hurrengo urteetarako ze nolako planak dituen aurkezteko ere.

Orain berriz, EAJ, EA eta EHrekin Kontseiluaren zuzendaritzako kideek 2000. urteko aurrekontuei begira egindako gestioetan erabili duten dokumentu bat ezagutu dugu, ARGIAk bere iturrietatik eskuratuta. Dokumentu laburra da, kazetari honen ustez berezia: Kontseiluak elaboratzen dituen beste material askoren aldean argumentazioetan orri gutxi erabiltzen ditu, eta aldiz diru kopuruen erabilera modu erabat arbitrario batean burutu duela dirudi, ez dago proportziorik enpresa edo atal batzuek dituzten kopuru eta xehetasunen eta beste batzuen artean...

Xabier Mendiguren idazkari nagusiari galdetu diogu kopuru horiez eta dokumentuaz. Aurrez aurreko lehen solasaldian Mendigurenek erantzun zigun Kontseiluaren zuzendaritzak zifren dantzan ez zuela sartu nahi, baina alderdi politikoek arren eta arren eskatuta kopuruetan hurbilketa bat egin behar izan zutela. Aldiz, hori ukatu gabe, orriotan aurkezten ditugun idatzizko erantzunetan arazoa euskalgintzako elkarteotan dagoela eman digu aditzera: Kontseiluko zuzendaritzak lan batzuk eskatu euskal munduko erakundeei eta horietatik «etxeko lanak» erakunde batzuek bakarrik egin baliztuzte bezala. Kazetari honek zertifika dezake ARGIAren kasuan behintzat hori ez dela horrela izan.

Une honetan Mendiguren idazkari nagusia eta Joxe Jabier Iñigo idazkari teknikoarekin batera, Kontseiluan zuzendaritza horrela dago osatua: lehendakari Iñaki Uria Egunkariako kontseilari ordezkaria da, eta beste kideak UEUtik Iñaki Marko, EHEtik Gabi Basañez, Jakineko zuzendaria eta Egunkariako lehendakaria den Joan Mari Torrealdai, Elkarlanean-Zabaltzeneko Mikel Arrizabalaga, Elhuyarko Inaki Irazabalbeitia, IKAko Asis Arbide, Topaguneko Fernando Muniozguren, Ikastolen Elkarteko Paulo Agirre eta AEKko Erramun Osa. Honek hartu zuen iraileko batzarrean geroztik Andoaingo Kultur Parkeko arduradun izendatu duten Joan Mari Larrarteren lekua.

EAJ, EA eta EHrekiko bilkura eta negoziaketetan (Jaurlaritzako eta diputazioetako dirukontuei buruzkoetan) zuzendaritzako zein kidek hartu duen parte galdetu genion Kontseiluaren idazkari nagusiari, eta ez digu erantzun ●

■ Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluko egungo zuzendaritzako kideak.

rra, hala ere, lehentasunezkoa da guretzat, bertan jatorria baitute gure bazkide ia guztiek eta, gainera, interlokuzio arautu eta egonkorrik eskaini ez duen esparrua delako. Jaurlaritzan ez ezik, gainerako erakunde publiko guztietan ere ikuspegi hori bera dugu, ez baitugu ahaztu behar, kopuruz eta erantzukizunez garrantzitsuena izanik ere, Euskal Herrian eta beraz, euskararen lurraldean, erakunde publiko gehiago ditugula.

■ Kontseiluko zuzendaritzaren partaide den AEKk irailaren 25eko batzarrean proposamen bat atera zuen bozkatzera, Kontseiluaren zeregina erakunde edo elkarte bakoitzaren dirulaguntza gestionatzea ez zela espreski adierazia gera zedin. Zein interpretazio egin zenuen proposamen horrena, zuk edo Kontseiluko zuzendaritzak?

Batzarrera eramandako proposamen horixe Zuzendaritzak aurkeztutako Kudeaketa Planean bertan jasota zetorren. AEKko ordezkariak esplizituki horrela jasotzeko eskatu zuen eta, nahiz eta guri jatorrizko proposamenak horixe bera adierazten zuela iruditu, jakina, horrelaxe jasotzea egoki iruditu zitzaigun, argitasunaren mesedetan egindako ekarpen oro oso aintzat hartzekoa da eta.

■ Kontseiluak aipatu izan du Jaurlaritzan Hizkuntza Politikarako lehendakariorde baten beharra, gainerako instituzioen koordinazioa ere egingo lukeena. Baina aurrekontu guztien % 2a euskarari destinatzea ere. Bideragarri ikusten da? Zein epetan?

Gure ustez, bideragarria ez ezik, beharbeharrezkoa ere bada. Euskararen normalizazioak ikuspegi global baten behar gorria du eta, gure ustez, koordinazio eta ekimen berrietarako sustatzaile izango den egituratze berriak aztertu behar dira. Tamalez, euskara ia beti egon izan da kultur jardunarekin lotuta, administrazio-alorrean batez ere. Dena den, euskararen adierazpen batzuk kultura badira ere, bertsolaritza esaterako, gure gizarteak eskuartean duena hizkuntzaren normalizazio-prozesua da eta horrek kulturaren esparruaren mugak gainditzen ditu.

Esan nahi baita, euskararen normalizazioa edozein erabaki politiko-administratibo hartzeko unean kontuan eduki behar dela, alegia, zentralitatea zor zaiola herri honen egituratze-prozesuan. Euskara, nolabait esateko, erakunde publikoen jarduerarako zehar lerro gisa ulertzea eskatzen dugu; gune jakin batetik atera eta zernahirako kontua izango duen dimentsioa ematea, hain zuzen ere. Epeei dagokienez, bestalde, guk berehalako egituratzea eskatu badugu ere, ulertzen dugu zail dela egituratzako aldaketak egun batetik bestera egin ahal izatea.

■ Azken denboretan euskararen biziberritzeko egiten diren proposamen, plangintza eta asmoetan nabarmena da, niri hala iruditzen zait, ez dela gehiegi aipatzen berreuskalduntze erakundeek beren eguneroko funtzionamendua normaltzeko oraindik duten behar larria. Nola ikusi duzu zuk Kontseiluaren buruzagitzatik?

Nire ustez arlo horren garapena funtsezkoa da euskararen beraren normalizaziora iristeko. Egia da azken bolada honetan bestelako esparruetan egin beharreko lana azpimarratu izan dela, baina horrek ez gaitu ahalegin koordinatutik desbideratu behar. Nire ustez heldutasun seinalea da esparru berrietarako aztertu behar diren estrategiak detektaturik edukitzea eta zentzu horretan, lanaren munduan edota teknologia berrien esparruetarako egin diren proposamenak oso interesgarriak iruditzen zaizkit. Ez dut uste eskluienteak direnik planteamendu horiek eta ahalegin hori guztia era koordinatu batez eramatearen garrantziaz ohartu behar dugu. Konplexutasunaren paradigma oso bat kudeatzen ikasi beharra daukagu.

■ Kontseiluak alderdiekiko negoziaketa edo gestio horietan euskalgintzako hainbat sektore eta erakunderen behar ekonomikoak biltzen dituen agiri bat erabili du. Nondik eta nola bildu eta sailkatu dira kopuru horiek?

Aurrekontuen inguruan gure iritzia emateko orduan, arestian aipatu dizudan filosofia hori guztia transmititu genien alderdiei. Haiek kopuru zehatzak nahi zituzten, baina gu ez geunden hori egiteko moduan. Hurbilpen gisa edo, guk erabiltzen ditugun datuak aipatu genizkien eta horretarako Kontseiluko bazkideekin hitz egin genuen. Beraz, bakoitzari galdetuz jasotako datuak dira eta keinu gisa finkatu nahi zen kopuru orokor baterako hurbilpen soil bat besterik ez da, etorkizunean zorrotz landu behar den metodologia bati kalterik egin behar ez diona.

"Egoera soziopolitikoak erabat baldintzatu du askoz arautuago nahiko genukeen harreman markoa"

■ Kontseiluak udaberrian bisitatutako zenbait erakundek adierazi zuen, ARGIAk esate baterako, irizpide nagusiak aztertu eta finkatu gabe kopuruak markatzea desegokia zela. Egia al da udazken honetan udaberriko bisitaldi haietan bildutako kopuruez osatutako agiria ari dela erabiltzen Kontseilua bere gestiotan?

Agiri hori gure barne erabilerako osatu genuen, beharrezkoa baikenuen lehen pausoa eman ahal izateko. Udazken honetan egindako gestioetan berriro eskatu zaizkigu kopuru zehatzak, eta orduan esandako gauza bera esan zaie: kopuru zehatzak finkatzea gobernu ardura duten alderdiei dagokiela eta guk irizpideak ezartzen laguntzeko gure iradokizun eta eskariak baino ez ditugula.

■ Aipatzen dugun agiri horretako kopuruen artean begiratzen hasita, nabarmena egiten da urte beteko aurrekontuetarako «Euskaldunon Egunkaria»k gaurko 156 milioitatik 1.050tara pasatzea aipatzen dela, gainera inpresio zentro baterako 1.200 miolioi beharko lituzkeela aipatuz, ondorengo lerroan astekariak 19,5 milioitatik 30era igotzea, haur eta gazte aldizkariak 15,2 milioitatik 20ra eta abar datozenean... Nola esplikatzen dira horrelako diferentziak?

"Euskararen zentralitatea ezinbesteko baldintza iruditzen zaigu irizpideak finkatzeko orduan"

Zirriborrotzat jo genuen barne agiri horretan, «Euskaldunon Egunkaria»k, beste askok bezala, hurrengo urteetarako begiz jotako proiektu eta inbertsio berrien aurreikuspena egiteko lana hartu zuen, jakinik horrek ez duela esan nahi guztiz diruz-lagunduak izango direnik.

Halaz ere, pentsatzekoa da aukera izanez gero funtsezko eran hobe daitekeela euskarazko komunikabideen egoera larria, egun dauden laguntzak baino egokiago batzuen bidez, eta horretarako ona dela sektoreak berak eskatzen duenari kasu egitea. Diferentzien esplikazioa? Hortxe duzu: batzuk erantzun egin zioten barne-zirriborroaren galdetegiari eta beste batzuk ez.

■ Kontseiluaren partaide diren erakundeak eta euskaltzaleak lasai egon al daitezke erakunde horretatik egiten ari diren gestioen gardentasunaz? Euskararen aurrekontuetan egon daitezkeen hobekuntzak denei hein berean edo irizpide garbien arabera iritsiko al zaizkie?

Arlo honetan zein Kontseiluak dituen gainerako ildoetan erabateko gardentasunaz funtzionatzen ari gara. Etengabeko kontraste eta informazio igorpenak izaten ditugu bazkide guztiekin eta guztien behar eta aurreikuspenak kontuan izaten ahalegintzen gara. Hala eta guztiz ere, ez da ahaztu behar Kontseiluak ez dituela aurrekontu horiek erabakitzen eta, beraz, banaketaren ardura osoa erakunde publikoena da. Guk egin dezakegun gauza bakarra irizpide garbi horiek behingoz ezar daitezen ahalegintzea da. Kontseilua existitzen ez zenean ere, irizpide horiek erabat garbiak ote ziren era berean jar genezake zalantzan.

■ Gaur administrazio publikoek, Jaurlaritzatik hasita, irizpide batzuk dituzte dirulaguntzak banatzerakoan, edo euskal munduko enpresa eta erakundeen finantzazioan laguntzeko. Kontseilutik irizpide horiek aldatzea planteatu da? Beste irizpide berririk?

Gure planteamendua, esan dizudan bezala, orokorragoa da. Zalantzarik gabe, arrazoizko antolaketa eta irizpideak eskatu edo exijitu behar zaizkie erakunde publikoei eta horrek orain arteko dinamika goitik behera aztertzea eskatzen du. Irizpide berriak, beraz, azterketa hori elkarrekin egin eta gero etorriko dira, etorri behar badute behintzat.

Nolanahi ere, garbi adierazi diegu alderdi politikoei euskararen normalizaziora zuzendutako ekimen guztiak zentzuz eta tentuz aztertu behar direla marko programatiko orokor baten barruan. Lehen aipatu dizudan euskararen zentralitatea, adibidez, ezinbesteko baldintza iruditzen zaigu irizpideak finkatzeko orduan ●

◆ PELLO ZUBIRIA

















Durangoko azokan zain gaituzue!!!!

GAIAK ARGITALDARIA

Astia Hartuta

LIBURUAK

EUSKAL POEMA EDERRENAK

Care Santos

Hiria
150 orrialde

Hiria argitaletxe berriak kaleratu berri dituen antologietako bat dugu hau, euskal poemagintzaren antologia, hain zuzen. Ia ehun poema bildu ditu Xabier Hiriart bildumaren egileak antologia honetara. Ahozko lirika tradizionaletik hasi eta azken urteotako olerkarietara bitarte, denetarik irakur daiteke liburu honetan: «Beotibarko gudua», Etxepareren «Kontrapas», «Bereterretxeren kantorea», Oihenarten «Nik ez dut ehor maite», Lauaxetaren «Neguko gaba», Lizardiren «Arrats gorri», Arestiren «Nire aitaren etxea», Leteren «Ezaren semeak», Sarrionandiaren «Hau da ene hondasun guzia»... Euskal poemagintza ezagutzen lehen urratsak eman nahi dituenarentzat aproposa ●

OSTIRALAK

Jon Arretxe

Elkarlanean
135 orrialde
1.450 pta.

Jon Arretxe basauriarrak badu lehenago «Ostegunak» izenburuko liburu bat non ikasleen bizitza eta hauen osteguneko parrandak deskribatzen dituen ipuinen bitartez. Oraingoan «Ostiralak» honekin dator, hain zuzen, ikasle garaiaren amaiera gaitzat hartuta. Sei istorio biltzen ditu liburuak —«Estalkia», «E.S.M.K.», «Aitorren erabakia», «Kolakaoa», «Bekadunak» eta «Valeriren azken ostiralak»— eta sei kasuetan protagonistek zalantza bat izango dute: patuari amore eman eta lanmundu zailean sartu ala ikasle bizimoduari nolabait eutsi. Ironia, xelebrekeriak, sexu-kontuak... agertuko dira sei kontakizun horietan, beti ere, kaleko kutsua duen hizkuntza bizi eta atseginez emanak ●

BI ARGAZKI ETA HAINBAT POLAROID

Felipe Rius

Pamiela
205 orrialde
1.800 pta.



Felipe Rius kazetari iruindarraren lana argitaratu berri du Pamiela etxeak bere Ilargia bilduman. Liburua osatzen duten ipuin eta apunteek oroimenean dute lotura, oroimena dute guztiek hizpide. Kontakizunetako pertsonaia batzuk ahaleginak egingo dituzte oroitzapenak ezabatu ez daitezen, horiek gordetzen. Beste batzuk, ostera, iraganaren arrastoak desagertarazten saiatuko dira. Egileak, kronista baten modura, jendearen memoriaren gorabeherak harrapatzeko ahalegina egingo du, horretarako argazki kamera erabiliz. Batzuk Reflexarekin egindako zuribeltzezko irudiak izango dira eta beste batzuk polaroidaren kolorez betetako argazkiak ●

MARIMUKI

Antton Dueso

Ibaizabal
79 orrialde
1.000 pta.

Marimuki ez da Antton Duesok landu duen lehen pertsonaia. Orain arte Punki bihurriaren pasadizo xelebreak jorratu ditu Duesok hainbat liburutan eta orain Punkiren antza ere baduen neskato batekin dator: sudurretik zintzilik beti muki bat duen Marimuki. Bi ipuin jaso dituzte Ibaizabal etxeko Matxinsalto bildumako liburu honetan: «Marimukik ez du maskotarik» eta «Marimukik ezin du lo egin». Lehenengoan protagonista maskota baten bila hasiko da eta arazoak besterik ez ditu topatuko. Bigarren kontakizunean, berriz, lo egiteko arazoak izango ditu Marimukik, ohean jira eta buelta, harik eta bere buruari ipuin bat kontatzea bururatzen zaion arte ●

BIDEKO PROSAK: NAFARROA

Luis Mari Mujika

Hiria
143 orrialde



Idazmolde berri batean, prosazko poesia eginez, Nafarroaren berri ematen digu Lizartzako euskaltzainak. Narratzaile eta poeta lanez gain, lexikografia eta toponimia arloak asko jorratu izan ditu Luis Mari Mujikak, eta elkarrizketak jasotzerakoan darabilen hizkera aberatsean nabari du. Izan ere, tokian tokiko euskalkia eta hizlari bakoitzaren ñabardura darabil. Nafarroako paisaiak, pertsonaiak eta gertakizunak biltzen ditu memoria poetiko honek: «Paisaje okre mistikoa», «Mahastiak eta garia», «Berdearen itsasoan»... eta autorearen kezka diren «Mugako lurretan» edo «Euskararen heriotza-mugan» ere bai. Luis Mari Mujikak saiakera, poesia eta narratiba arloak landu ditu eta «Egan» literatur aldizkariko zuzendaria da ●

■ *Luis Mari Mujika «Bideko Prosak: Nafarroa» liburuaren egilea.*

«Prosak azkarregi egin du jauzi prosaismora»

Prosa eta poesiaren arteko estiloa darabilzu liburu honetan. Nola definituko zenuke?

Estilo intimista da, nahiz eta elkarrizketa asko dagoen. Paisajeen deskribapen asko egiten dut, batez ere Nafarroa erdialdekoa, bere kolore okre biziak asko gustatzen baizaizkit. Eta elkarrizketetan tokian tokiko euskara eta gaztelera erabili dut. Izan ere, garai batean euskaraz mintzatu baziren ere, herri batzuetan erdaraz bizi izan ditut gertakizun asko, eta hizkuntza hori erabili dut kontakizunari errealismoa emateko.

Idazterakoan iturri izan ditut Camilo Jose Celaren «Viaje a la Alcarria» eta Gabriel Miroren literatura intimista. Uste dut, euskal prosak askotan azkarregi egin duela jauzi prosaismora, bere zentzu txarrean esanda. Eta alde intimista sartzea beharrezkoa da, intimismo horren barruan dagoelarik biografia ere.

■ **Zergatik Nafarroa?**

Nire baitan kuttunenetakoa delako. Ni Lizartzakoa naiz, Nafarroarekin muga-mugan dagoena, eta horrek nigan halako ukitu bat izan du.

■ **Nondik dator liburua?**

Lan honek 86an Irun Hiria saria irabazi zuen entsegu saioen atalean, eta orain berreginda kaleratu dut. Gerora begira beste herrialde batzuei buruz bertako hizkeran idazteko gogoa dut: Gipuzkoa, Iparraldea, Araba...

■ **Laster argitaratuko omen duzu poemario nagusia. Zertan da lan hori?**

Azken 12 urteotan argitaratu gabeko poemek osatuko dute, eta poema hauen azterketa semiotiko eta guzti kaleratuko da.

■ **Hiria argitaletxean kaleratu duzu zure liburua. Zein dira argitaletxe berri honen jatorri eta helburuak?**

Kriseilu argitaletxeak ildo berri bat hartu du eta pentsatu dugu izen berri bat ematea. Saiakera lanak argitaratu nahi ditugu, hauen artean baita erdarazko zenbait ere. Bestalde, narratiba moderno eta zaharra berreskuratu nahi ditugu eta poetikako lanak kaleratu, hauen artean azterketa semiotikoak sartuz. Helburutzat daukagu urtean 20 lan argitaratzea ●

LENTE PROGRESIBOAK
3 punturen arteko distantziarik erosoena

urruti

tarteko distantzia

hurbil

Edozein distantziatara ongi ikus dezazun, MULTIOPTICASen irtenbiderik onena dugu. INDO betaurreko progresiboak. Erosoak eta eraginkorrak. Ikusmen nekatua ahantz dezazun. Gainera, gure MULTIOPTICAS txartelarekin ordainketa hiru hilabete erosotan egin ahal izango duzu inolako gainkargurik gabe. Eta Travel Club puntuak lortu ahal izango dituzu. Dei ezazu 900 34 35 36 telefonora eta informazio gehiago emango dizugu. INDO DISTANTZIA GUZTIAK BETAURREKO BAKARREAN

ZINKUNEGI
MULTIOPTICAS
ZERBITZU OPTIKOETAN 1a
Hernani, 4 - DONOSTIA

K.X.K.X. EGITEKO ISPILUA

Mercè Company

Giltza
212 orrialde

Mercè Company bartzelonarrak sortutako pertsonaia dugu liburu honetako protagonista, Axel izeneko aztia. Axelek, aztia izaki, nahi duen guztia lortzeko ohitura du, hatz-kriskitin sinple bati esker. Baina bere magiak badu bere alde txarra eta noizean behin arazoren bat ekartzen dio. Horregatik, oraingoan zibilizaziotik ihes egitea erabakiko du. Ozeano Bareko irla urrun eta huts batean geratuko da bizitzen. Han konturatuko da bere ahalmen magikoek benetan zentzua dutela. Euskararako itzulpena Gabriel Piedrak egin du eta azaleko zein barruko irudiak Arnal Ballesterrenak dira ●

DISKOAK

HESIAK

Kashbad

Esan Ozenki

Txiki —bateria—, Gorka —gitarra—, Karlos —gitarra apala—, Sorkun —ahotsa— eta Gorkitak —baxua—, hots, Kashbad taldeak bere disko berria, bigarren lan luzea, jarri du berriki kalean Esan Ozenki disketxearen eskutik.

Aurreko diskoko rock doinuei segida eman die boskoteak «Hesiak» izenburu duen lan honetan, baina nabari da ideia berriak jorratu eta frogatu dituztela lan hau osatzeko orduan. Emaitza borobilagoa lortu dute, horrela, euren bigarren diskoa den honetan. Udazken honetan, urrian, hain zuzen, grabatu zuen taldeak disko hau Urdulizeko Tio Pete estudioan, Jose Lastra teknikari lanetan zela.

Bederatzi abestik osatzen du orotara lan hau. «Emaitzak» kantuak ematen dio hasiera, Saioa Muguruzaren hitzez eta taldeak konposatutako doinuaz. Ondoren, diskoari izena ematen dion eta hesiak apurtu eta askatasunaren bidea hartzeko gonbidapena luzatzen duen «Hesiak» dator. Maiatasuna du hizpide «Bi» abestiak. Ondoren datoz «Burmuinak», «Zin egin gabe», «Ilargipean», «Orain» eta «Bitartean».

Diskoa ixten duen «Mattin» nolabaiteko premonizioa izan da taldearentzat. Izan ere, preso bat du abesti horrek protagonista eta diskoa kaleratu baino lehen, duela aste batzuk, talde baxularia den Gorka Lazkano atxilotu eta kartzelara eraman zuten ●

Argitalpenak: NAGORE IRAZUSTABARRENA - Agenda: ERIZ ZAPIRAIN

BILBO abenduaren 13tik aurrera
Hitzaldi zikloa
Bodegoiari buruzko 14 hitzaldi egingo dira martxorarte. Bertan izango dira estatuko nahiz nazioarteko aditurik garrantzitsuenak.
Bilboko Arte Eder Museoa

ONDARROA abenduak 17
Antzerki emanaldia
Maskarada antzerki taldeak "Izarren Bitakora" bere lan berria eskainiko du ostiral honetan.

USURBIL abenduak 19
Takolo, Pirritx eta Porrotx
"Plisti Plasta" lan berriaren aurkezpen emanaldia eskainiko dute pailazoek.
Oiardo Kiroldegia
17:00

DONOSTIA abenduak 20
Zine kluba
Kresala zine klubaren barruan, Luis Guerinen "Tren de sombras" filma ikusteko aukera izango da.

BILBO abenduak 17
Kontzertua
Benito Lertxundiren kantaldia izango da. Sarrerek takilan 1.500 pezeta balioko dute zutik egotekotan eta 2.000 jesarrita egoteko. Aurresalmentan berriz, 1.300 zutik eta 1.800 jesarrita.
Kafe Antzokia
22:00

LASARTE-ORIA abenduak 18
Kontzertua
Bide Ertzean taldeak, Kultur Errotaren eskutik, kontzertua eskainiko du.
Jalgi Kafe Antzokia
23:00

ATARRATZE abenduak 18
Kulturaldia
"Mustraka" eta "Mintza" ekitaldiak eskainiko dira. Lehena, pastoraletik gertatzen dagoen kantari eta dantzarien ikuskizuna. Bigarrena, hitz jokoz josita emanaldia.
CEG aretoa
21:00

BASAURI abenduak 18
Antzerkia
Compañía Clownic-ek Tricicleren "Manicomic" ikuskizuna eskainiko du. Sarrerak 1.200 eta 800 pezeta artekoak izango dira.
Social Antzokia
20:30

SEGURA abenduak 19
Txapelketa
Gabon kantu eta Jaiotzen lehiaketa egingo da, gabonak gertu direla eta.
Kultur Etxea
12:00

ETXARRI abenduak 16
"Euskal Herriko Historia" zikloa
"Zazpigarren Merindadea eta Frantziako Iraultza"ren inguruan mintzatuko da Jakes Serrailet. 500 pezetakoa izango da sarreraren prezioa.
Etxarriko Udaletxeko Artxibategia
20:30

Agendarako deialdiak hogei egun lehenago bidali 37 34 03 faxera

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora:

kutxa fundazioa fundación

KTM GAZTE SAIOA

Isilka-misilka eta promozio gutxi eginda ere, gazteen ahotan dugu «Kate mundiala» magazina. Nerea Garmendia eta Xabier Aldanondok zuzenean gidaturik, 14 eta 20 urte bitarteko gazteen kezken topaleku eta erakusleiho bihurtu da, tribu guztiei nahiz beren kasa doazenei leku eginez.

GAZTE TRIBUEN TIPI HANDIA

Parker Lewisek ez du «sekula galtzen» telesail haren izpiritutik edaten du «KTM»k. Gazteen mundua islatu erritmo biziko hari narratiboa jarraiki, tarte luzeena ez da 6 minututik pasatzen. *«Harrigarria da 'KTM' bezalako saio bat ETBn egotea»* estaen die jendeak, betiko moldetik ateratzen baita, irudiaren tratamenduan, argiztaketan (gorri eta urdinarekin jokatuz), nahiz mamian; egin kontu: eztabaidak, kale inkestak, zinea, Internet, musika, maitasun arazoen txokoa, apain egoteko trikimailuak, eta abar. Potentzial handiko formatoa da, erreferentzitzat har litekeena, ETBn gazte saioen hutsunerik luzaroan (8 urte) egon izan ez balitz. Eta orain ohitura falta hori nabari da, bereziki gazteen parte hartzeari dagokionez. Hain zuzen, irratira aise hots egiten duten gisan, telebistara nekezago. Horren haritik, lanak izaten dituzte «Txuri beltz» solasaldian parte hartuko duten gazteak institutu eta ikastoletan atzemateko. Saiora joatekoak diren gazteak euskaraz ongi mintzatu behar dutenez, gazteen %70 Gipuzkoatik etortzen da, Bizkaitik berriz, ia %30. Nafar eta arabarrak ostera, oso gutxi. Aurretik telefonoz elkarrizketatzen dituzte, eta horrekin aurkezleak egingo dizkien galderak osatu.



■ Elkarren osagarri dira bi gidariak, bakoitzak bere izaera duela. Xabi zirikatzaileagoa da eta Nerea berriz, maitekor eta berritsuagoa.

RGU ekoiztetxeak 1.000 saiotik gorako eskarmentua du, hala nola, «Tele txip», «Galaktika» edota 120.000 bazkide lortu zituen «Superbat» saioa. Nerabezaroan hain ohikoa den «artalde» giro inozotik aldentzen saiatzen dira. Saioko 7 erredaktorek bazterrak harrotzen dituzte zer kontatua duten gazte ezezagunak aurkitzeko; okupak, abenturazaleak, musikariak... *«Magazinaren lehen zatia zuriagoa izaten da, 16 urte artekoei zuzendua gehiago; gero, hortik aurrerakoei begira bideratzen dugu. Izan ere, marrazki bizidunen ondotik etorrita, jakina, ezin dituzu gai batzuk segidan plazaratu»* diosku Juan Luis Goitiandia «KTM»ko zuzendariak. Halaxe, 300 inkesta inguru egin dituzte, gazteek «KTM»ko zati ezberdinen balorazioa egin dezaten. Gisa horretan jakin ahal izan dute zerk funtzionatzen duen eta zerk ez. Esaterako, psikologoaren kontsultak oso harrera ona du: gazteek beren kezkak azaleratzen dizkiote psikologoari eta gaztetxoei profil psikologikoa egiten zaie. *«Piercing-ak baino ez direla ikusten eta beti sexuaz ari garela leporatzen digute. Ea lehenengo aldian minik egiten ote duen edo nire neskalaguna nola masturbatu behar ote dudan; lehengoan ere, psikologoak kondoi bat nola jarri behar den azaldu zuen, kondoian behera bi hatzak erabiliz. Ba, horiek dira hain zuzen, gazteen kezkak. Zer nahi dute galdetzea ba, gazte batek aitarekin duen hartuemana txarra dela eta horren inguruan aritu? Gehienek bere gurasoez paso egiten dute-eta».*

BITARTEKARIRIK EZ. «KTM»n ez dute inoiz anorexia eta bulimiari buruz hitz egingo duen medikurik ekarriko; etortzekotan, sendatu nahian dabilen neska edo mutilarekin etorri beharko luke. Itxurake-

riatik ere aldentzen dira, *«nahiago dugu, kanpotik hain ederra ez den arren, ongi hitz egiten duen jendea ekarri, planta besterik ez duten lorontziak baino. Horoskopoaren neska adibidez, lodia da, eta horrela gustatzen zaigu. Era berean, ez zaigu axola galdetzen duena kazetari ez izatea, freskura irabazten duelako. Lagunarteko giro erosoa sortzea dugu helburu»*. Ildo horretan, Xabi eta Nerea ez dira aurkezle arruntak, gidariak baizik, platoan gertatzen dena lotzen joan behar dutenak. Gazte tribu guztiak aintzat hartu dituzte aurkezleak ere haien gertukoak izan zitezen, gaztetxe, okupak, heavyak, hirikume petoak, kontsumoan buru belarri murgilduta daudenak, skate, snow, eta bestelakoak. Guztiz kontrakoak izan arren, elkarren osagarri eta aberasgarri dira bi gidariak. *«Xabi xaxatzaileagoa da, harroagoa hitz egiteko eran, ez da hain maitekorra. Nerea aldiz, berritsua, freskura dario, eta azalekoagoa bada ere, pantaila betetzen du. Ez dago bien artean konplizitate berezirik, eta ez genuen gozoegiak izaterik nahi; azken batean aurkezleak baino gidariak dira»* argitzen digu Juan Luisek. Donostiako jatetxe batean zerbitzari lanetan aritu den 23 urteko Xabiren ustez *«gazteria gero eta gehiago ausartzen da pentsatzen duena esatera. Orain irekiagoak dira, ulerkoiagoak. Gaur egun, esaterako, ikastetxe batean hezkuntza bereziko jendea besteekin batera topa dezakezu»*. Bestalde, Nerea 20 urteko beasaindarrak UBI bukatzen eta ingelesa ikasten dihardu, baita publizitate modelo gisa ere. Bere esanetan *«zuzenean izanik, hasieran akats pila egiten dituzu, baina umore onez hartuz gero, ez dio axolarik. Elkarrizketak moldatzea ere zaila egin zait. Normala da beraz, gazteei kamera aurrean bat-batean aritzea kostatzea»*.

■ K2000 estudioetan egiten da saioa, 25 bat laguneko publikoa inguruan dutela.

Aurrera begira, litekeena da igandetan asteko saioen laburpena egitea. Halaber, saioari erritmo are arinagoa emateko asmoz, gertalekua «multi set» bihurtu nahi dute aldi berean zenbait gauza jasotzeko; *«demagun ile apaintzailea lanean dela, hortik Julius DJra aldatu, gero «Txuri beltz» eztabaidara joan, musika taldea ondoren, dena jarraian»*. Nahiz ETBk kontratua ekain arte luzatu dien, itxura batean audientziaren borreroaren menpe daude. *«Guregatik balitz, 20:30etatik 21:45ak arte ipiniko genuke magazina, gure orduan gazte asko kirola egiten edo akademian baitago. Zoritxarrez, 'Gaur egun' eta 'Bertatik Bertara' hor egonda, beranduago hastea oso zaila litzateke»* ●

◆ BEÑAT DOXANDABARATZ

Txori Batek Esan Digu

■ URTEKO AZKEN IRAGARKIA ENKANTEAN

2.000. efektua nabaritzen hasia da ETBn. Zoroen pare lehian ibili dira iragarleak bi katetan emango diren azken iragarkiak nork eskuratuko. Baita urteko lehenengoarekin ere. Nahiz eta prezioak igotzeko parada eman, bere horretan atxiki dituzte. Jokamolde hori ikas bezatela Urtezaharrean edarien prezioak igoaraziko dituzten tabernariek! ●

■ «SORGINEN LARATZA»K IKUSLE FIDELA DU

Euskitze plazagizon bilakaturik, batez beste, gauero 168.000 lagun biltzen ditu EAEn. Saioaren bigarren zatiak audientzia gazteagoa omen du. Gure irudiko, «Cronicas marcianas»en estilotik aldentzen denean, askoz freskoagoa gertatzen da. Pena da «Ez gaude konforme»ko gazteen euskara hain «donostiarra» izatea ere ●

■ GABON KANTAREN BERTSIO BERRIA

Kantatzeari ekingo diote ETBko aurpegi ezagunek. Iaz, zozolapikoena ere kanta itsaskor hura burutik ezin kenduz eta konturatu gabe abestuz ibili baitzen. Arrakasta ikusita, hilaren erdialdean grabatuko dute Xabier Euskitzeren letra eta Joxean Goikotxearen doinuak dituen Gabon kantaren bertsio berritua ●

EUSKALERRIA IRRATIA

Moldeetatik ateratzen da «Metropoli forala» magazina. Aktualitatearen arrastoa jarraiki, gaien muinera iritsi nahi du eta umore surrealista erabili. Entzuteko parada: 18:00etatik 20:00ak arte.

MATAZATIK TIRAKA HASIZ GERO

Apar harroen azpian mamia azaleratzea. Hori da «Metropoli forala»ren xede nagusia. Aktualitatearen haritik tiratu gure gizartearen mataza nahaspilatu hori askatu ahal izateko. Hain zuzen, gertaeren gibelean eta azpian dagoena etengabe miatuz gero, borborka ateratzen baitira kontuak. Pello Argiñarena eta Juan Kruz Lakastak emankizun modernoa, mardula bezain entzunerraza dakarkigute arratsaldero, begiek ikusi ez dutena eta belarriek entzun ez dutena umorez eta patxadaz aztertuz. *«Saioan zehar, kazetarien hitzak, iritziak eta pil-pileko gaien inguruko tertuliak eta elkarrizketa bereziak jasotzen ditugu, aldi berean errealitatetik abiatzen den surrealismo umoretsua landuz»* diosku Argiñarenak.

JOXE LACALLE

■ Argazkian, Pello Argiñarena eta Juan Kruz Lakasta, saioa astegunero FMko 91.4an uhineratzearen erantzuleak.

Izen handiko kolaboratzaile sarea apailatu dute, hala nola, Jasone Osoro, Harkaitz Cano, Andoni Egaña, Xabier Silveira, Kirmen Uribe... Gainontzean, atal ezberdinez osatzen da magazina, besteak beste: Asisko Urmenetak egin «Asteoroko irudia», «Asteoroko tokia» Mikel Reparazen eskutik. Patxi Zabaletak ere esku hartzen du Nafarroako historiaren berrirakurketaren bidez, zinema kontuak Iñaki Lazkanok dakarzki, politikaz, Mikel Aramendi eta Gaizka Aranguren mintzo dira. Astero bidaiari ezberdin bat solastatzen da. Egunero halaber, beste metropoli batera jotzen dute han dagoen euskaldun batek hiri horri buruzko bere ikuspegia eman diezaien. Madril, Bartzelona, Gasteiz, Baiona, Donostia, Bilbo, New York eta Lisboa. *«Gabonen ondoren, Dublin, Brusela eta Amsterdam ere sartzeko asmoa dugu».*

Zein entzule mota duten zehazki ez badakite ere, irudikatzen ahal dute: 20 eta 35 urte bitartekoa eta euskaldunberria. Aurrera begira, *«surrealismoaren bidea gehiago jorratu nahiko genuke, esketx eta erreportajeen bidez. Tamalez, bi baino ez gara horri heltzeko»* ●

◆ BEÑAT DOXANDABARATZ

Aurpegia

■ *Asier Orbea*

«Ezustea hartu dut kirolariekin berban»

Pilota maite duen kirol arduraduna da Arrate Irratian.

Telefonoz hasi zen kirol kronika egiten. Egun, 18:30etatik aurrera kirol saioa egiten du; larunbatetan berriz 12:30etan. Gehienbat pilota eta futbola jorratzen ditu eibartarrak. Asier gehien harritu duena kirolarien harrera ona izan da elkarrizketak egiterakoan, *«mesede bat eskatzea izango zela uste nuen, baina juxtu kontrakoa da; hartu-eman politak sortzen dira gainera»*. Gaztea izanik ere, asteburuetan sakrifizio txiki hori egin beharrak ez dio axolarik, pilota emanaldiak oso gustura egiten baititu zuzenean. Hasieran, Arrate Irratiak sekulako tramankulua zeraman frontoira, *«antena garai eta lodi hura ikustean jendeak berehala igartzen zuen zeintzuk ginen»*. Aurrera begira, *«emanaldietan beste norbait ondoan eduki nahiko nuke, bakoitzaren ikuspuntua eskaini ahal izateko»* ●

Bagak

■ RADIO FRANCE EUSKARAREN ALDE?

Zinez harrigarria Radio Franceko buruak berriki adierazi duena. Jean Marie Cavadaren irudiko, ideia ona litzateke Radio France Pays Basque-n euskarazko emankizunak egitea; azkenaldian belaunaldi gazteak euskara bereganatzen hasiak direla, ez baita jada zaharrei esker bizirik dirauen hizkuntza. Guztiz zentzuduna litzateke beraz, Radio Francek entzuleen kezka horri erantzutea euskarazko irratsaioak abiaraziz. Adierazpenak frantsesezko irrati publikoen jardunaldien kariaz egin dituelarik, haizeak eramanen duen apar hutsa ote bere burua zuritzearren? Edo egiazko asmoa ote? ●

L A N D A R E A K

Egun konfesatzeko ez baina urtean behin burutzen den luju antza, angula gisa ordaintzen diren arbi-garak jateko ohiturari eusteko behinik behin ereiten jarraitu beharko da.

NEGUAN EZ ARBINTZEKO

Etekinen erlijioa medio baserrietako ukuiluak hustutzen ari dira. Baserritarren langintzak eta hauei lotutako ohiturak, hizkuntza... aldatzea dakar honek. Aurreagoko batean lehen izozteak zirela eta arbi-kontua atera genuen taberna zuloan. Hemengoa eta frantzesa; baten formak, besteak hobeto irauten ote zuen... Gaur egun, ganadua urritzearen ondorioz, bertako arbi-hazia lortzeko zailtasuna aipatu zen. Baserriz baserri eskean ibili eta ezin topatu. Azkenean, honelako lanetan aritzen den gehienak bezala, ez-dakit nongo ezagunen baten bidez behintzat eskuratua zuen... Lehen neguko erreserba ederra zen arbi soroa, haziendarentzako jaki gozo eta freskoa.

Udako uztaren ondoren zetorren eta soroa garbi mantentzeaz gain lurra harrotu eta aireatzen zuen. Gero udaberrira begira ale batzuk zehar-aldatu eta leka hartzen zuten garaian mokodun gogaikagarrietatik sare edo ohial batez ondo babesturik hazitarako uzten ziren. Tarteka, urte batzuz behin, hazia berritzea komeni eta trukatzeko ez izanez gero arbi-hazia litroka erosten zen.

Gero eta kaskarinago bizi garen garai hauetan, «arbiloreko ahal bada geroko» esaera ez al genuke usuago erabili beharko? Baita «arbi-lore, zekorra saltzeko (Pazkoako konfesioa egiteko, alegia) garai egokia». Egun konfesatzeko ez baina urtean behin burutzen den luju antza, angula gisa ordaintzen diren arbi-garak jateko ohiturari eusteko behinik behin ereiten jarraitu behar... Arrasate aldean bateren bat arbinduko da bestela... ●

◆ JAKOBA ERREKONDO
mandio@redestb.es

O S A S U N A

Giza genomak 80.000 gene inguru biltzen ditu eta zientzialariek baieztatu dute 2.002. urterako gene guztiak identifikatuko direla. Jada geneen % 90 argitu da.

GIZA GENOMAREN %90 ARGITUTA

Giza Genomaren Maparen —gaixotasunetan parte hartzen duten gene guztiak identifikatuko ditu, gaitz horiek konpontzen lagunduz— % 90 datorren urterako argituko da. 2.002. urterako berriz, osotasunean deszifratuko da. Hala adierazi du bederen, Francis Collins proiektu erraldoiaren arduradunak. Giza Genomari buruzko Ikerketarako Institutu Nazionala zuzentzen duen zientzialariak AEBetako Elkargo Medikoaren aurrean azaldu zuen giza genoma osoak 80.000 gene inguru biltzen dituela, eta horrekin baita azido desoxirribonukleikoa (ADNa) osatzen duten 3.000 milioi base-bikoteak ere.

Duela hamar urte sortua, Giza Genoma Proiektuak itxaropen handiak bildu ditu zientzialari eta ikertzaile guztiengan. Giza arrasto genetikoaren mapa osatu eta erabat argitzeko aurreikusitako epeak pixkanaka murriztuz joan dira. Azken data, 2.007. urtekoa zen hasieran. Orain, berriz, Collinsek esan du lanak 2.002. urtean amaituko direla, ia seguru. Baina hori hasiera besterik ez da izango. Hurrengo fasea, jadanik hasia dena, giza genomak osotasunean nola funtzionatzen duen argitzea izango da.

Giza genomaren ezagutzak mugatuko du, zientzialariek diotenez, zein diren pertsonen bizitza —hor sartzen dira gaixotasunak eta zahartzearen prozesuak— arautu eta gobernatzen duten faktore genetikoak. Minbizia, gaixotasun kardiakoak edo mentalak ere asko argituko dira ●

◆ JABIER AGIRRE

ARGIAren Harpidedunentzat Zozketa Berezia

Nekazalturismoa eta landaturismoa Euskadin

Azaroko sarituak:
- **Nekane Ariz** (Usurbil)
- **Jesus Peñagarikano** (Ibarra)

Zorionak!

Nekazalturismoko baserri-etxe batean naturarekin egonaldi lasaia izateko aukera paregabea

Argia eta Nekazalturismoaren eskutik

Abenduan 2 pertsonentzako 2 astebukaera zozketatuko ditugu.

BIZKAIA
Durangaldea
Arratia-Nerbioi
Urdaibai
Lea-Artibai
Enkarterriak
Uribe-Kosta

GIPUZKOA
Goierri
Deba
Donostialdea
Urola-Kosta
Tolosaldea
Bidasoa Behea

ARABA
Iparraldeko Haranak / Aramaio
Gorbeialdea
Arabako Lautada
Mendebaleko Haranak
Arabako Mendialdea
Arabako Errioxa

Zurriola Hiribidea 1, Kursaal
20002 Donostia

Tel.: 902 13 00 31
Faxa: 943 32 67 00
Posta Elektronikoa: agroturismo@nekatur.net
http://www.nekatur.net

Zozketan parte hartzeko ondorengo datuak bete eta postaz bidaltzea besterik ez duzu:
(Bidaltzen diguzun txartel bakoitzeko zozketarako aukera bat izango duzu)

Harpide-zenbakia: ..... Izen-abizenak: .....
Helbidea: ..... Herria: ..... Posta-Kodea: .....
Tel.: ..... Data: ..... Sinadura:

Bidali txartel hau honako helbidera: **Argia. Harpidetza Saila. Industrialdea 15-20160 Lasarte-Oria**

Erro ibarra: Donejakue bidea eta mugalarien ibilbide ezkutua

Gerendiainetik basoetarako bideak, garai bateko mugalari eta kontrabandisten pasadizoetan barneratzeko prest dauzkagu. Mendi eta sakonetako herri hauexek istorio xelebreen lekuko isilak dira, xarmaz beterikoak. Donejakue bidetik baztertzean, errekatxo estuetatik Zilbeti herri ezkutura iritsiko gara. Bertan, istorio guztien zaindari, karabineroen kuartel zaharra dugu. Bertze errekari helduz pertsonaia xelebre hauen guztien jabarietan murgilduko gara, Sorogaineko harana arte. Bertatik maiz maneiatu dituzte herritarrek abere nahiz zamak, ilunpean, isilean eta beldurrez, bizi baldintzak hobetu nahian.

Gaurkoan Gerendiain herrian dugu ibilbide honen hasiera. Erro ibarreko herri gehientsuenak bezala Erdi Aroan sortu zen edo behintzat garai horretako dokumentuak aurkitu dira. Antza denez, Donejakue bide inguruan eraikitakoen adibide da hau ere. Gaurkoan, aurrenengo kilometroetan, bide ospetsu honen zati labur batean ibiliko gara, Lintzoain herria pasa eta aurreraxeago. Garai batean bideak aldaketa asko izan ez bazituen ere, azken urteotan, erromesen ugaltzearekin batera, bidexka eta mendibideen egokitzapen eta hobekuntzak direla medio, nahikotxo aldatu dute bere diseinua. Esate baterako, Agorretan, Gerendiain aurreko zatian, Erdi Aroko nagusigoa, gaur egun bidetik kanpo geratu da. Bidea, lehenengo lepora iritsi aurretik desbideratu dute

MIKEL OZKOIDI

MIKEL OZKOIDI

■ *Erro ibarreko Gerendiain herrian ibilbidea hasi eta buka egingo dugu. Bidean goikoaren antzeko txondor aztarnak aurkituko ditugu.*

MIKEL OZKOIDI

■ *Kilometro batzuk egin ditugu Sorogaineko bidean goazenerako.*

oraingoan, duela hamar urte edo, goragoko bidegurutze batetik egiten bazen ere.

Hasieran beraz, ikur horiak jarraituta ez genuke inolako arazorik izan beharko Lintzoainera iristeko. Plazatik ezkerrera joan eta herria amaitzerakoan, errepidera irten gabe, ezkerretik jo hilerrira. Handik zuhaitzez inguratutako bide estu batetik zuzen segi, errepidera iristeko. Hau zeharkatuz, pista on batetik Lintzoain herriko frontoi eta iturrira helduko gara. (1,9 km). Egarria asetu eta gero, segi zuzen, ikur horiei jaramonik egin gabe, oinez doazenentzako dira-eta horiek. Aldapatxo bat amaitzean, ezkerrean eliza izango dugu. San Saturnino eliza hau, XIII. mendekoa bada ere, XVI. mendean eraldatu zuten. Gaur antzinakoaren atari erromanikoa dugu ikusgai. Hemendik gora joan behar dugu, lehenengo bidegurutzearekin topo egin arte. (2,7 km). Kontuz hemen, Donejakue bidea ezkerretik doalako, baina guk eskuineko aldapa jarraitu behar dugu. Hurrengo pare bat kilometrotan bidegurutze aunitzekin egingo dugu topo. Erne ibili eta krokisari so egin, norabide zuzenean joateko. (3,5 km). Zuzen jarraitu, ezkerretik lehenengo Donejakue bidera eta eskuinetik Tiratun mendira abiatu nahi ez baduzu. 200 metro aurrerago eskuinera desbideratuko gara eta (4 km) berriz ere eskuineko bidea segiko dugu. Azkenik (4,6 km) ezkerrera, aldapa beherako bidea jarraituko dugu troka eder batean barneratzeko.

Errekatxoak, inongo nekerik jasan gabe, Zilbeti ibairaino eramango gaitu. Bertan errepidea aurkituko dugu eta eskuinetik joz gero, herrira hurbiltzen da. Ezkerrean ikusgai den oin karratuko etxe handia antzinako karabinero eta ondoren Guardia Zibilaren egoitza ohia dugu.

Herriak eliza erromaniko bat izan omen zuen, baina gaur ikusten den eraiketa guztiz berria da. Errepidea jarraituz, eta beti ibaia erreferentzia dugula, eskuin aldetik joko dugu, herria atzean uzteko. (8,3 km). Kontuz ibili, eskuinetik abiatzen den pistari jarraitu behar diogu-eta, hots, zubitik ibaiaren bestaldera zuzen doanetik. Hemendik aurrera datoz aldapa gogorrenak, beraz patxadaz hartu. Gainera basoaren erdian ibiliko gara eta ez zaizkigu faltako gure izerdia murrizten lagunduko diguten itzalak. Kilometro bat inguru aurrerago, bidean kate bat aurkituko dugu; ez kezkatu eta jarraitu aurrera. Baso honetan nonahi ditugu txondorren arrasto zaharrak, garai bateko ikazkin trebe eta ausart aunitzen lekuko. Maldetan eraikitzen bazituzten ere, beti eremu laua osatzen zuen txondorrak. Lan honetan ateratako lurra, behin egur guztiak metatu eta gero, egitura osoa estaltzeko erabiltzen zen. Bere funtzioa, su eman ondoren, airerik sartzen ez uztea zen; bestela, egurra egosi edo ikatz bilakatu ordez, erre egingo zen.

MIKEL OZKOIDI

■ *Basoan aurkitu dugun pinuz inguratutako urmaela basurdeen paradisua da; ez da hezetasunik faltako gure ibilbidean.*



Lepo batera iritsitakoan, gure aldapak amaitu dira, nahiz eta pistak oraindik gora segitzen duen. Gune horretan (12,3 km) erne ibili, eskuinetik desbideratu beharra dago- eta. Pista ona alde batera uzterakoan, bidegurutze bat dago. Hori da gure norabi-

dea, ezkerretik abiatzen den mendi bidea jarraitzen duena.

Hemendik aurrera lurra, hostoa eta lokatza aurkituko dugu nonahi, baina ez kezkatu, dena aldapa behera da-eta. 500 bat metro aurrerago, ezkerretik desbideratzen den pista bat aintzira txiki batera doa, gero basoan murgiltzeko, baina guk behera jarraitu behar dugu. Pare bat kilometrotan zehar bidea ez da oso ona, baina bukaeran errepide bat aurkituko dugu, Sorogain ibaiaren ibarretik doana, (15,4 km). Norbaitek nahi badu, ezkerretik jarraituz, izen bereko aterpera igo daiteke, bertako ingurumen natural ederraz gozatzeko. Hemendik ibilaldi aunitz egiteko aukera dago. Urepelera joan daiteke edo Adi mendia ere igo genezake. Beraz astia baduzue hurbildu zaitezte hara eta norberak erabaki dezala zein txango egingo duen. Gure bidea eskuinetik, beherantz jarraitu, Sorabil izeneko lautadatxo batekin topatu arte. Bertan maiz ospatu izan da Erro bailarako eguna; egia erran, ez da harritzekoa toki horretan antolatzea, belardiak etzanda egotera gonbidatzen baitu. Aurrerago ibaian putzu txiki batzuk ikusiko ditugu eta gure gorputzaren izerdia garbitzeko eta freskatzeko putzu horiek balia ditzakegu. Errepide nagusira iritsi bitartean, eskuinetik zementuz egin berriko Donejakue bideari helduz, azkeneko aldapari aurre egingo diogu. Arnasaren ohiko erritmoa errekuperatu eta Gerendiain herrira iritsiko gara. Ibilbidearen amaierara heldu gara ●

◆ MIKEL OZKOIDI



MIKEL OZKOIDI

■ *Lintzoaingo San Saturnino elizaren atari erromanikoan atsedena hartzen.*

■ Sorogaineko abereen xakituketa

Sorogainen ohikoa izan den modu berean, animaliak xakitzen dira aspaldi bezala. Haran eta mendi hauetan partzuergo zabala eta aberatsa dago. Urtean bitan biltzen da abeltzain aunitz, bailarakoak zein kanpoko franko, beraien ganadua larredi hauetan hedatzeko prest. Behi, ardi eta behorrak, egurrez osaturiko egitura estu batean pasarazten dituzte eta bakoitzari seinalea jartzen zaio.

Bertakoek dute aukera gehien lur hauetako larrediak erabiltzeko, baina kopurua betetzen ez denean, kanpotarrak ere balia daitezke hauetaz. Iparraldekoentzako animali kopuru zehatz bat gordeta dago, aspalditik egin den modura.

Hirugarren egun batean Urepeleko herrian bertan burutzen da pareko ekintza, mugaz beste aldetik eremu berdinetara abiatzen direlarik. Partzuergo izenekin ezagutuak dira lur eremu hauek eta Nafarroako mendi alde aunitzetan, udako larrediak erabiliak izan dira aspaldidanik honela ●

FITXA TEKNIKOA

Zubiri

OHARRAK
Lizarzuko lepotik aurrera bidea okerragoa da, eta zenbait tokitan urak irekitako ildoek eta harriek traba lezakete martxa.

LUZERA 18,3 km

DENBORA 2 ordu

DESNIBELA 520 m

GARAI EGOKIA Uda / Udazkena

ZAILTASUNA ●●●○○

BIBLIOGRAFIA
• 1/50.000 Garralda 26-6 (116)



Gurutzegrama



EZKER ESKUIN

1.- Eguna argitzen hasten duen unea. 2.- Asiako estatua. Röntgen. 3.- Hondarra. Edari alkoholdun. 4.- Modu atzizkia. Hegazti-mota. 5.- Oinarrizko edaria. Diosala hitza. Sufrea. 6.- Mirakulua. Bokal errepikatua. 7.- Haizearen jainkoa. Lege. 8.- Azkenekoa. oxigenoa. Bokala. Auzo, hitz elkarketan. 9.- Katu eme. Du, haiei. 9.- Pertsonak omentzeko ekitaldiak.

GOITIK BEHERA

1.- Emakume. 2.- Teilatuko haga. Amerizioa. 3.- Oihu. Txiro, behartsu. 4.- Oparo. Kaosaren erdian. Noren atzizkia. 5.- Siriako. Sortu zintuena. 6.- Perpausa. Alderantziz, egile atzizkia. 7.- Naizen hau. Arabako herria. Bostehun. 8.- Iparraldean, handi samar. Auto-marka. 9.- Bat. Zakur. Arazoa. 10.- Hatsa. Euskaraz eta kitto!

Kikeren Umorea

TXILEKO UMORE BELTZA

Kazetari europarra, espetxea utzi berri duen militante ezkertiarra ari da elkarrizketatzen:

- Pozik, bizirik irten zarelako?
- Ez, harrituta!

ZENBAT URTE?

Elkarrizketa anonimoa Frantziako espetxe batean:

- Zenbat urte?
- 10.
- Zer egin duk?
- Ezer ez.
- Harritzen nauk. Ezer ez egiteagatik 5 urte dituk!

Elkarrizketa anonimo bera Txileko espetxe batean:

- Zenbat urte?
- 10.
- Zer egin duk?
- Ezer ez.
- Harritzen nauk. Ezer ez egiteagatik 20 urte dituk!

Letra Zopa

D	S	E	L	A	O	L	E	D	I	O	T	N	A	I	K
U	N	S	E	M	E	A	O	R	T	N	O	I	A	B	M
L	I	B	A	R	E	A	L	S	N	H	T	S	E	N	L
I	M	A	K	A	D	A	P	A	P	A	L	A	G	O	A
U	L	I	L	O	A	M	A	B	B	A	J	S	A	A	I
I	A	K	Z	I	S	A	O	B	O	A	N	D	O	D	T
K	N	E	S	Z	R	A	I	N	A	T	K	L	I	L	O
K	O	D	E	E	T	A	B	S	A	N	M	A	S	U	N
O	M	K	R	A	L	E	T	A	B	E	Z	I	S	A	A
Z	A	N	P	E	N	K	O	T	Z	U	I	B	A	S	G

Aurki itzazu letra zopa honetan 8 familia-kideren izenak. Hitzak ezker-eskuin, goitik-behera edo diagonalean azalduko zaizkizu

Aurreko asteko soluzioak

			✪	J	✪	N	✪	S	✪	E	✪
			B	E	T	E	K	I	Z	U	N
			✪	S	O	K	A	✪	U	R	A
✪	S	✪	B	U	K	A	T	U	✪	E	S
N	A	G	U	S	I	T	A	S	U	N	A
✪	K	U	I	✪	T	U	K	A	N	✪	I
G	O	R	A	K	A	✪	U	R	T	E	A
✪	N	I	✪	E	N	A	M	✪	X	I	✪
B	A	D	U	N	✪	L	E	B	I	T	A
✪	K	I	T	A	T	U	A	✪	A	E	K

Gurutzegrama

Ezker-eskuin: 1. Hegaluzeak. 2. Ikaragarri. 3. Gorena. Ak. 4. In. Torizue! 5. Koloristak. 6. Ume. D. Tu. I. 7. Ni. Burunda. 8. Datuak. AEK. 9. E. Nik. Uki. 10. Akta. Ar. Al.

Goitik-behera: 1. Higikundea. 2. Ekonomia. K. 3. Gat. Le. TNT. 4. Areto. Buia. 5. Lanorduak. 6. Ugari. Rk. A. 7. Za. Istu. Ur. 8. Eraztunak. 9. Arkua. Deia. 10. Ki. Ekiak. L.

U	K	D	A	R	K	O	G	A	A	U	T	Z	U	B
A	R	A	X	A	T	N	R	L	O	N	E	J	O	N
B	O	T	I	S	E	I	E	M	A	I	A	T	Z	A
T	I	L	A	T	O	T	I	A	R	E	I	L	L	B
A	K	I	R	R	A	E	T	R	N	A	A	I	G	S
Z	L	R	U	R	R	I	A	I	A	N	R	K	A	U
A	I	D	O	T	S	I	O	R	K	I	A	I	A	H
R	A	D	A	K	H	A	L	I	P	A	L	A	K	O
O	X	P	A	O	X	T	R	A	M	K	O	A	O	K
A	E	T	S	N	T	A	U	D	N	E	B	A	R	K

Hitz Gezidunak



Uzbekistango hiria / Nahasmendua — Zuhaitzmota / Herri handia — Gizon izena / Gar — Kanpo / Jaunaren etxea — Pozik

Izena / Gogo bizia — 50 / Egun

Abizena / Txingurriak — Iratze / Pl., edukiontzi mota — Letoniako hiriburua / Sumendiaho

Gipuzkoan, zain / Lasterka, presaka

Agian / Ospea — Sanferminetako martxa / Barazkimota — Ugari

Zenbaki bakoiti / Zerga ezaguna — Jainko egiptoarra / Rutenioa

Mongoliako hiriburua / Zintzoa — Sufrea / Aluminioa

Galarazpenak / Bokala

Betekada — Zaude — Gauero egin ohi dugu

Pertsonaia: Idazle eta filosofo bizkaitarra (1864-1936)

Denborapasak: LUMA • Umorea: KIKE AMONARRIZ • Komikia: MARKO ARMSPACH

JOSE INAZIO ANSORENA

EUSKADI IRRATIA

Bi irrati maite ditut: Herri Irratia eta Euskadi Irratia. Nire irrati tarteak bi hauek dira: bizarra kentzerakoan, Mariano Ferrer maisuarena eta, automobilean noanean, Euskadi Irratia. Beste irrati batzuk urrutiko maitasun amestuak dira —Bizkaia Irratia, Segura Irratia, Arrate Irratia, Xorroxin, Euskalerria eta...—. Beren inguruetan nabilenean, gustura entzuten ditut. Baina Euskadi Irratiarekin badut maitasun istorio pertsonala. Joandakoan, automobilean nindoala, azaroko 23.ean, hamazazpi urte bete zituela aipatu zuten eta aspaldiko istorio hori etorri zitzaidan gogora.

ORAIN dela hamazazpi urteko Santa Zezilia (1982-11-22) eguna zen, beraz. Donostiako Kontserbatorioko irakasleak —ni ere tartekoa nintzen garai hartan— gure patroiaren egunari dagokion bazkari legea betetzen ari ginen. Leku xaxtar samarrean, bide batez esango dut. Oraindik amaitu gabe gaudela, zerbitzarietako bat etorri zait, telefono dei bat dudala esatera. Hantxe joan naiz:

-Bai?

-Joxe Iñazio? Hi, Joxe Mari Otermin nauk.

-Zer da, Joxe Mari?

-Hi, badakik, Euskadi Irratia antolatzen ari gaituk eta Ramon Labaienek esan ziguk ongi legokeela garai bateko Euskadi Irrati klandestinoaren sintonia berbera erabiltzea, Historiaren ildoarekin bat egiteko.

-Ondo iruditzen zaidak. Eta?

-Horixe ba. Ea hi arduratuko haizen moldaketak eta grabazioak egiteko.

-Konforme. Noizko behar dituzue?

-Hor zagok ba koxka. Bihar goizean hasi behar diagu emititzen. Eta entzun behar den aurreneko doinua horixe duk.

-Joxe Mari, Santa Zezilia ospatzen ari gaituk.

-Dena prestatu diat: estudioa hartuta zagok eta hantxe zaudek hire zain Kaki Arkarazo eta Txomin Artola kitarrekin.

-(Etsita) Eta zein da Euskadi Irratiko sintonia zahar horren doinua?

-Bai, zera duk... Bizkaiko «Dantzari Dantzako» doinu ezagun hori...

-Zein?

Hainbat direnez, hasi naiz batzuk kantatzen eta azkenean *Binangoa*rena kantatzean, ameto eman dio. Paperezko musuzapi batean idatzi ditut notak:



-Horixe duk.

-Ederki ba. Egingo dizkiat bertsio batzuk biharko.

HANTXE abiatu da Ansorena txikia estudio aldera, bere txistuak eta silboteak hartuta. Estudiora iritsi eta, esan bezala, Kaki eta Txomin biak nire zain, baita Angel González Katarain teknikaria ere. Nola edo hala, muturrak hausten, lortu dugu hogeita piku bertsio desberdin grabatzea. Batzuk kitarrez, besteak txistuz, pianoz beste batzuk, *sinteez* ere bai... Jator portatu ziren esandako hirurak. Hurrengo goizean, Euskadi Irratiaren aurreneko emisiorako prest zeuden sintoniak.

Hemendik aurrerakoa ez nuen neronek bizi, kontatu egin zidaten. Emititzen hasteko unea iritsi da eta Ramon Labaien gonbidatu dute noski. Jarri diote sintonia eta berak, harrituta:

-Baina hau ez da Euskadi Irratiko betiko sintonia.

-Zein da ba?

-Beste hau.

Eta ziztukatu egin omen zuen:



Hau ere, Durangaldeko «Dantzari Dantzako» doinuetako bat da. «Ikurrindunaren Zortzikoa» deitzen dena. Horixe behar zuen eta horixe izan zen urteetan Euskadi Irratiko sintonia, klandestinitate garaietan. Santa Zezilia egun batez, nik bazkalondo txarra neukalako, telefonoak tranpa egin zigulako edo Joxe Mari Oterminek belarri txarra izan zuelako, aldatu genuen arte. Eta zorioneko egun hartatik hemezazpi urte pasa dira. Bejondaiola!

"Hantxe abiatu da Ansorena txikia estudio aldera, bere txistuak eta silboteak hartuta. Estudiora iritsi eta, esan bezala, Kaki eta Txomin biak nire zain, baita Angel González Katarain teknikaria ere. Nola edo hala, muturrak hausten, lortu dugu hogeita piku bertsio desberdin grabatzea. Hurrengo goizean, Euskadi Irratiaren aurreneko emisiorako prest zeuden sintoniak"



GURE MENDEA

XX. MENDEKO EUSKAL HERRIA
LIBURU+CD-ROM ETA MAHAI JOKOAN

FAMILIA ETA LAGUNARTERAKO EUSKAL "TRIVIAL"A

SEI GAIEI DAGOZKIEN KOLOREAK ESKURATU BEHAR DITUZU!

- 1.500 galdera-erantzun
- 14 urtetik gorakoentzat
- 2-8 jokalari
- Geografia, kirola, historia, artea, hizkuntza...

ERNE GALDERA GAIZTOEKIN, ZIRIEKIN ETA TRANPEKIN!

Inbertsio eder bat!

XX.MENDEKO EUSKAL KULTURA
Liburu+CD-ROMean

LIBURUA
- Ehun kronika
- Urtez urteko kronologia erreferentziala
- Ehun argazki.

CD-ROMa
- Ehun kronika
- Urtez urteko kronologia osatua
- Hemeroteka: iritzi artikuluak, elkarrizketak, publizitate-iragarkiak
- Pertsonaia esanguratsuak
- Argazki ugari

ARGIA ren eskutik

ARGIAn salgai • Tel.: 943 37 15 45 • denda@argia.com

euskaraz aritzeko tresna berria jaio da

GARA egunkariak, AEKren laguntzari esker, gehigarri berezia kaleratu du. Elkarlan horren emaitzak "**AEK GARA**" du izena eta astelehenero-astelehenero duzue eskuartean, egunkariaren erdiko orrialdeetan.

Bere helburua, bistakoa denez, helduen **alfabetatze eta euskalduntzeari laguntzea** da.

Modu horretan, euskaltegietan euskara ikasten ari diren lagunei ez ezik, gainerako irakurleei ere zuzendurik dago gehigarria, euskaraz irakurtzeko ohitura har dezaten. Finean, Euskal Herri euskalduna lortzeko bidean lagungarri izan nahi du "**AEK GARA**"k.

Astelehenero

- rekin.